

Gora teloia!

ANTZERKI GIDA

AIZPEA GOENAGA





Babeslea
IKERTZE

Ilustrazioak
ANE PIKAZA

Diseinua
YTANTOS

BABESLEA

IKERTZE

IKERTZE ASOCIACIÓN CULTURAL
Txalupagillene 2 bajo
20008 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 310 461
www.ikertze.org



© **AIZPEA GOENAGA**

Lege Gordailua: D-147-2021
ISBN: 978-84-7907-824-9

Ilustrazioak: **ANE PIKAZA**
Diseinua eta maketazioa: **YTANTOS GRAFF**
Itzulpenak: **AIZPEA GOENAGA**

An illustration of a theater rehearsal scene. A woman in a red top and purple pants hangs from a horizontal bar. A spotlight shines on the center. A man in a blue shirt and red pants stands on the right, holding a small orange character with a lightning bolt. A woman in a red dress sits on a stool, holding a tablet. A man in a blue shirt and red pants sits on the floor, holding a string. Two women in pink shirts and red caps stand in the center, clapping. A man in a purple shirt and yellow pants is on the floor, upside down. The background is a blue wall with diagonal lines and a yellow floor.

Laguntzaile eta kideak:

Cesar Saratxu, Kike Amonarriz,
Virginia Imaz, Pablo Ibarluzea,
Teresa Calo, Ana Pimenta,
Aitziber Garmendia, Edi Naudó, Aia Kruse,
Alaitz Olaizola, Amancay Gaztañaga,
Paco Gámez, Juales Larrañaga,
Anartz Zuazua, Telmo Irureta eta...

ANTZERKIA ETA ANTZEZTEA

Antzeztea sekulako erronka da, erronka ederra. Talde lana egin, arduratsu eta gogotsu jolastu, eta batez ere, sorkuntza garatuko duzue. Antzezetan zer kontaktzen den garrantzitsua da; aukera paregabea eskaintzen du amesteko, edota kezka sortzen diguten gaiak taularatzeko eta gai horien inguruko hausnarketa egiteko, edota umorea partekatzeko, eta batez ere, gure inguruko hainbat korapilo askatzen laguntzen du; eta nola ez, "begirada berezi" bat garatzeko tresna ezin hobea da.

Antzerkia, bere osotasunean, eskolako kurrikulumari lotzea lagungarria da. Irakurketa sustatu, adierazmena, euskararen erabilera, ahozkotasuna, baloreen lanketa, garapen intelektuala, sorkuntza, eta abar dira, besteak beste, antzerkiaren bidez egin daitezkeen lanak. Baina era berean, eta taldean egingo den lanaz gain, lan pertsonala ere egingo da: norberaren ahotsa eta gorputza, emozioak eta sorkuntza garatuz. Antzerkia gizakiaren izaerari loturik dagoen oinarrizko adieraz-bidea eta **jolasa da**.

Helburua jolastea da. Jarrera baikor eta gogotsuaz taldean lan egitearen garrantziaz gozatu. Antzerkian, bizitzan bezalaxe, denok dugu gure lekua eta gure betebeharra.

Egiten dugun lanarekin ondo pasatu eta ondo pasarazi.
Gure lana ikusleekin partekatu eta txalo zaparradak jaso.

Antzerki jokoak, hala ere, baditu bere legeak, eta emaitza egoki bat lortzeko hainbat urrats jarraitu behar dira. Gida hau proposamen zabal bat da.
Liburu honetatik zuentzat baliagarria den hori hartu, erabili eta ekin...

Gora teloia!



Antzerkiaren historia

12



Antzerki mota batzuk

26

- 32 2.1. Minoa
- 34 2.2. Pailazoa
- 42 2.3. Maskara
- 48 2.4. Txotxongiloak



Antzezlan lantzen hasi

52

- 55 3.1. Zer kontatuko dugu?
- 55 3.2. Konfliktua-gatazka
- 56 3.3. Nola kontatuko dugu?
- 57 3.4. Talde lana bideratzen hasi: helburuak zehaztu



Antzezlanera irakitzeko

62

- 63 **4.1.** Inprobisazioak
- 67 **4.2.** Testu antzezlanera
- 72 **4.3.** Entseguak
- 76 **4.4.** Pertsonaiak landu
- 78 **4.5.** Eszenografia
- 80 **4.6.** Jantziak
- 81 **4.7.** Tresneria, makillajea, musika, argiak, efektu bereziak, esku-programa, kartela, zabalkundea,...
- 85 **4.8.** Mugimendu eszenikoa finkatu
- 89 **4.9.** Entsegu orokorra

5

Euskal egileen testu batzuk

90





Europako antzerkiaren sorkuntza eta garapenaren oinarriko ezagutza izateak historia eta zibilizazioen berri emango dizu. Garai historikoak antzerkiaren bitartez ezagutu, eta garai bakoitzean antzerkiak izan zuen garrantzia ulertzea oso lagungarria da gizartearen eboluzioa ezagutzeko.

Antzerkiaren historia

Antzerkiaren historia ezagutzeak, historian zehar antzerkiak izan duen garrantziaz jabetzen lagunduko digu, eta zalantzarik gabe, ezagutzak jakitun egingo gaitu.

Grezia klasikoan, antzerkiak eta bere inguruan antolatzen ziren jaialdi eta festek, sekulako garrantzia izan zuten. Jainko-jainkosen omenez egiten ziren antzerki emanaldiak. Agintari guztiak eta herri osoak joaten ziren antzerki lehiaketetara.

Erromatarrek Grezian jaso zuten antzerkia egiteko ohitura, baina kutsu erlijiosoak galdu eta eguneroko bizitzaren gorabeheretara hurbildu zuten. Pertsonaiak jainko-jainkosa edo errege-erreginak izan beharrean zerbitzari eta morroiak izaten ziren. Komedia maite zuten erromatarrek.

Antzerkiak mendeetan zehar sekulako garrantzia izaten jarraitu zuen, hala ere, XVI-XVII. mendeetan antzerkiaren gorakada ikaragarria izan zen.

Espanian, "Urrezko Mendea"; Erresuma Batuan, antzerki *isabelinoa*, eta Shakespeare bezalako egile ospetsuak; Italian, *Comedia dell'Arte*, inprobisazio antzerki barregarria; eta Frantzia, *Molière* antzerkigile ospetsua dira antzerkiak izan zuen garrantziaren adibide. Mende horietan antzerkiak utzi zuen arrastoa aipagarria da, bai antzokietan, bai antzezteko moduan eta baita testuetan ere.

Horrekin batera, herrietan, antzerki herrikoiak, erlijiosoak eta festetako dantza eta komeriak egiten jarraitzen zuten. Gure herrian aspaldiko ohitura zahar hauek gaur arte iraun dute bizirik: Iparaldean egiten diren **pastoralak** eta baita **maskaradak** ere, erdi aroko antzerki zaharren arrastoak dira.


Euskal antzerkiak XX. mende hasieran sekulako gorakada izan zuen. Herri askotan taldeak sortu eta zaletasun handia piztu zen. Gehienetan antzezlan laburrak izaten ziren, barregarriak, herriko xelebreek antzeztutakoak, eta etxeokandre eta neskameen liskarrak edo nagusi eta alprojaren arteko gorabeherak kontatzen zituzten.

Baina XX. mendeko 60-70eko hamarkadetatik aurrera, antzerki tradizionala alde batera utzi eta berrikuntza bizi izan zuen euskal antzerkiak. **Gabriel Aresti** izan zen euskal antzerkia "modernizatu" zuen idazlea. Antzerki politikoa edo soziala egiten zuten talde berriak sortu ziren.

IRAKASLEENTZAKO OHARRA



Komeni da saio hauetan landuko den guztia eskolako ikasgaietan txertatzea edo gurutzatzea. Historia, irakurgaiak, material bilaketa eta bilketa...



IKASLEENTZAKO OHARRA

Talde txikitan banatu. Historiaren garai bakoitza taldetxo batek garatuko du. Ondoren talde bakoitzak bere azalpena denekin partekatuko du. Hemen eskura dituzuen fitxak hartu, eta liburuen edo interneten bidez bertan agertzen diren oinarritzko galdera edo gaien informazioa osatu.

ANTZERKIAREN GARAI ESANGURATSU BATZUK:

Historian zehar antzerkiaren garrantzia handia izan da. Garai bakoitzean, gainera, antzerkiak bere ezaugarri bereziak izan ditu. Eta antzerkiaren garapena, neurri handi batean, gure gizartearen garapenaren isla izan da.

Hauek dira antzerkiak Europako historian izan dituen une garrantzitsu batzuk, eta bide batez, gure antzerkia ezagutzea ere komeni da:

1. **Grezia**
2. **Erroma**
3. **Urrezko Mendea** (Espainia)
Shakespeare (Erresuma Batua)
Comedia dell'Arte (Italia)
Molière (Frantzia)
4. **Euskal Herriko antzerki herrikoiak, eta pastoralak / maskaradak**
5. **Antzerki kostunbrista.**
6. **Euskal antzerkia gaur egun.**

Baina garai haiei eta gure antzerkiak eman duenari buruz zuek irakurri eta ikertzea izango da antzerkiaren mundu aberatsean sartzeko biderik egokiena. Jarraian dituzun fitxak lagungarri izango dituzu lan hori egiteko:

1

GREZIA

1. Antzinako Grezian antzerkiaren zentzia erlijiosoa zen eta garrantzi handia izaten zuen gizartean.

- Agintari guztiak eta herri osoak joaten ziren antzerki lehiaketetara, baina nola izena zuten antzinako Greziako antzerkia, dantza eta musika erakusten zuten espazioak?
- Nolakoak izaten ziren gune horiek?
- Ondo entzuten zen aktoreek esaten zutena?
- Maskarak erabiltzen zituzten?
- Emakumeek antzezten zuten?

2. Historiaren, mitoen eta erlijioaren garrantzia erabatekoa zen Greziako antzerkian.

- Zein dira antzerki klasikoko hiru generoak?
- Zein berezitasun du bakoitzak?

3. Antzeztokian hiru aktore eta *korua* nahikoak izaten ziren antzeztan bat gauzatzeko.

- Zer da *korua*?
- Zein da bere zeregina?

4. Antzinako Greziako autore batzuen lanak gurera iritsi dira, eta antzezten dira oraindik.

- Zein dira garai hartako hiru antzerki idazle nabarmenenak eta zein hiru antzeztan ezagutu beharrekoak?



Fitxak

1º ATALA



2

ERROMA

1. Greziako dramatik dator Erromako antzerkia, baina Erromako inperioko antzerkiak ez zuen Greziakoaren kutsu erlijiosorik. Erromako antzerkian kontakizuna baino garrantzi handiagoa hartu zuen ekintzak, hau da, eszena gainean gertatzen ziren tirabirak ikusteak, horregatik *Korifeoa* desagertuz joan zen.

- Erroman antzerkia egiteko maskarak erabiltzen jarraitu zuten?

2. Greziako antzerkian goi mailako pertsonaiak agertzen ziren: errege-erreginak, jainko-jainkosak edo haien seme-alabak...

- Erromako antzerkian ere goi mailakoak ziren nagusi, ala behe mailako neskame edo zerbitzarien gorabeherak ere kontaktzen hasi ziren, alegia, pertsona "normalen" pasadizoak?

3. Antzerkiak eta batez ere endredoko komediak garrantzi handia izan zuen erromatar garaian.

- Zeintzuk dira egilerik ezagunenak?

4. Erromatarrek oso gogoko zituzten mimoak.

- Emakume mimorik bazen?
- Garai hartako mimoek hitz egiten zuten?





3

XVI-XVII. MENDEKO ANTZERKIA EUROAPAN

1. Espainiako antzerkia: Urrezko Mendea:

- Non antzezten zen? Zer dira *Corralak*?
Oraindik badago Madrilen horrelako antzezlekurik?
- Antzeztanak bertsotan idazten ziren?
- Nortzu dira garai hartako egile ezagunenak?

2. Erresuma Batuko antzerkia: Antzerki *Isabelinoa*:


- Nor da garai hartako antzerki idazlerik ospetsuena?
Zein antzeztan idatzi zituen?
Zein da gehien antzezten den bere antzeztana?
- Antzokietara mundu guztia joaten zen, baina bereizten al ziren maila sozialak antzokietan?
Antzokiek ez zuten sabairik izaten. Zein da Londresen oraindik zutik dagoen garai hartako antzoki ospetsua?
- Emakumeen pertsonaiak zeinek antzezten zituen?

3. Italiako antzerkia: Comedia dell'Arte:

- Comedia dell'Arte, zer nolako antzerki mota da?
- Pertsonaia guztiek eramaten dute maskara?
- Zeintzu dira pertsonaia nagusiak, eta zein istorio edo korapilo dira gehien antzezten direnak?

4. Zein da Frantziako antzerki garairik ospetsuena:

- Zein egile dira Frantziako antzerki klasikoan ezagunenak?
- Zein antzerki du eredu antzerki neoklasikoak?
Eta zein 3 lege betetzen ditu antzerki neoklasikoak?
- Espainia edo Erresuma Batuan dekoratuek ez zuten garrantzi handiegirik, Frantzian ere hori gertatzen zen?
Erresuma Batuan emakumeek ez zuten antzezten, Frantzian berriz, baziren emakume aktoreak?



4

EUSKAL-HERRIKO ANTZERKI HERRIKOIA

pastoralak, maskaradak...

- Non ospatzen dira oraindik pastoralak?
- Aktoreak profesionalak dira ala herritarrek egindako antzerkia da?
- Antzerki hutsa da, ala musika eta dantza ere ohikoak dira?
- Zenbat irauten du pastoral batek?
- Bilatu pastoral ospetsu batzuen izenak.

5

EUSKAL ANTZERKI KOSTUNBRISTA

Euskal Pizkundea

- Zer da? Zer bultzatu nahi zuen mugimendu horrek? Zergatik sortu zen?
- Zergatik zuen bereziki antzerkiak hainbesteko garrantzia?
- Zein dira garai hartako antzerki idazle ezagunenak?

Fitxak


1^o ATALA



6

EUSKAL ANTZERKIA GAUR EGUN

- Gabriel Aresti. Nor zen?
- Zein da ikusi duzun antzezlan baten izenburua?
- Gaur egun gutxi gorabehera zenbat konpainia daude Euskal-Herrian?
- Euskera hutsean egiten duen konpainiarik badago?
- Aipatu hiru konpainia eta hiru antzezlan.
- Ezagutzen duzu euskal aktoreren bat? Eta antzerki idazleren bat?
- Badago euskaraz egiten duen zirkurik?



Ariketak

1^o ATALA



Gorputz beroketa

Lanean hasi aurretik gorputz-beroketa saio bat egin.
Taula hau proposatzen dugu:

1

Zutik jarri, erlaxatuta, gorputzaren posizioaz jabetu. Hanka puntetan jarri, gorputza igo... gora-gora, burutik hari batekin tira egingo balizute bezala... eta jaitsi. Erlaxatu.

2

Sorbaldak oso gora-gora-gora jaso... eta kopetik askatu.

3

Buruarekin biribilak egin, alde batera eta bestera. Burua sorbalda aldera eraman, lepoa ongi luzatuz, ondoren beste aldera.



4

Zutik, eskubiko eskua lurrerrantz zuzendu, gorputza okertuz. Ondoren ezkerreko alderantz egin.

5

Buruarekin borobilak egin. Lepoarekin. Bularrarekin. Gerriarekin. Aldakekin. Belaunekin. Txorkatilekin. Bororil garbiak egin. Ez presarik izan.

6

Sorbaldak belarrira igo eta kolpetik besoak lurrerrantz jaitsi. Borobilak egin sorbaldekin.

7

Arnasa sakon hartu eta gerria aurrera tolestuz haize guztia bota. Erlaxatu eskuak eta besoak gorputzaren erdia aurrerrantz tolestatuta dagoen bitartean.

8

Belauna eskuekin heldu eta bular aldera eraman. Lehenengo ezkerreko belauna eta ondoren eskuinekoa.

9

Eskuak eta oinak lurrean. Ipurdia gora. Mendi bat bazina bezala. Ipurdiarekin borobilak egin, ahalik eta handienak, ipurdia eskubi aldera eraman eta beheraino jaitsi, eta ezker aldetik gora igo, berriz ere mendia eginez. Alde batera eta gero bestera.

10

Zutik, besoak zerura jaso, hanka puntetan jarri eta arnasa botaz erlaxatu.

CESAR SARATXU, aktorea

Emanaldia baino lehen berotzea oso lan pertsonala da. Aktore bakoitzak bere interpretazio teknika duen bezala, edo bere pertsonaiak sortzeko lan metodoa duen bezala, beroketa egiterakoan ere, nork bere taula osatuko du, egokienak diren ariketak aukeratuz, eta antzezlan hasterakoan prest egoteko balioko dio. Gaur egun, antzeztu aurretik gehien gustatzen zaidan beroketa mota **Feldenkrais** metodoa da.

Feldenkrais izena esanda jende gutxi daki zertaz ari naizen, baina apartak diren aktore bikain gehienek egin dute noizbait Moshe Feldenkraisek asmatutako ariketa bat baino gehiago. Metodo honi esker, gure postura era egokian mugitzeko gure gaitasuna hobetu ahal dugu. Gure gorputzaren eta gure arnasaren jabe izatea du helburu. Metodo hau ez da ahaleaginean oinarritzen, baizik eta gure gorputzeko nerbio-sistemaren sentikortasunaren garapenean. Gutxienez 45 minutuko beroketa egin eta gorputza esnatu egingo da.

Horrez gain, eszenatokira irteteko, energia mailarekin zerikusia duen ariketaren bat egiten dut. Eguneroko bizitzan egiten ditugun gauzetarako baino energia gehiago behar da taula gainean. Horregatik energia hori lortzeko ariketak egitea oso ona izaten da. Eszena bat erreparatu bere mugimendu eta guzti, korri egin, eta JOLASAK!!! Talde osoaren artean jolas egitea gauza handia da gero! Dantza egitea ere, berotzeko oso modu ederra da: zutik hasi, geldirik, nire gorputza nola dagoen sentitu eta jabetu eta gutxinaka-gutxinaka musikarekin mugitzen hasi, poliki-poliki, minik hartu gabe. Eta gutxinaka mugimendua eta erritmoa biziagotu. Eta abestu. Ahotsa berotzeko abestea bezalakorik ez da. Oinarritzko teknika edukiz gero, 10 minutu nahikoak dira ahotsa berotzeko eta gero, abestera! Eszenario gainean abestu ezazu, eta, horrela, antzokian nola entzuten den probatu dezakezu: estrofa hau gertu daudenentzat abestuko dut, eta beste hau, berriz, azkeneko lerroan daudenentzat... Honek energia emango dizu, eta baita poza ere. Dantzan bezala, poliki hasi eta gero indar gehiagoz abestu. Dena dela, zein antzezlan mota, halako beroketa eskatzen du, antzeztu behar dudana drama bada, edo komedia, edo tragedia... kasu bakoitzean ariketa jakin batzuk aukeratu behar izaten dira.



Nor da Cesar Sarachu?

Cesar Sarachu Bilbon jaio zen, 1958an. Telebistan, *Cámara Café* seriean Bernardo pertsonaia ezaguna antzeztu zuen eta beste hainbat lan egin ditu; baita zinean ere, eta antzerkian: Bilboko Karraka taldean aritu ondoren Parisera joan zen Lecoq maisuarekin ikastera, eta handik Londresera; eta han *Teatre de la Complicité* antzerki taldearekin *The Street of Crocodiles* antzezlanean parte hartu zuen, eta sekulako arrakasta lortu zuen mundu osoan barrena. Suedian ere antzerkian eta zinean lan egin du.

Ariketak

1^o ATALA



Ahotsa berotzeko ariketak

Ahotsa: gure arnasak ahots-kordak bibratzen dituenean ateratzen dugun soinua.

1

Arnasketak

- Lurrean etzanda, belaunak tolestuta, arnasa sakon hartu, eta haizeak birikak, diafragma eta sabela nola betetzen dituen sentitu. Ondoren haizea gorde (5 zenbatu). Haizea poliki bota, lehendabizi, sabela hustu gero diafragma eta birikak.
- Eskuak saihetsean jarri eta aldeetara puztu birikak.
- Kandela bat piztu, eta poliki-poliki baina gelditu gabe haizea bota kandelari. Ez itzali kandelaren sua.

2

Erlaxazioa

- Etzanda edo eserita, arnasketa ariketak egin. Bitartean ahoa zabaldua mingaina eta matrail hezurra erlaxatu.
- Aaaa... soinua egin arnasa botatzean. Ahalik eta denbora gehien iraun behar du soinuak, etenaldirik gabe.

3

Ahotsaren proiektzioa: bota soinua luze eta urrutira

- Aaaa... edo Sssss... erabiliaz, soinua eskuarekin bultzatuko bagenu bezala, ateratzen dugun soinu hori urrunera bidali, indarrrik galdu gabe, haizea neurri berdinean mantenduz (gorabeherarik gabe).
- Esaldi bat gertu dagoen bati esan eta ondoren gelaren beste muturrean dagoen beste kide bati. Kontua ez da garrasika hitz egitea, proiektatzea baizik. Horretaz jabetu.

4

Ahoskera

Arkatza ahoan jarri, eta koska egiten diozun bitartean aho korapilo bat esan ulertzeko moduan, esate baterako:

*Hara hemen zerbait
biribil-biribila!
Zer ote da?
Zer ote da?
Behi baten
kaka pila!*

5

Modulazioa eta doinua

- Ahotsaren adierazgarritasuna landu. Testu edo esaldi bat hartu eta alderdi hauek landu:
- Enfasia eta azpimarratzea: irakurri testua hitz jakin bat edo batzuei indarra emanez, eta isiluneen garrantziaz jabetu.
 - Monotonia: esaldia inolako intenziorik gabe irakurri. Ondoren, esaldia animo egoera ezberdinekin irakurri. Pozik, beldurtuta, presaka, logalez, etab.
 - Esaldien azken hitzak ondo entzutea beharrezkoa izaten da, horregatik testu bat irakurri bereziki esaldi bakoitzaren azken hitzak azpimarratuta.
 - Hitzak arrapaladan esateko joeraren aurka hitzak ahoskatu eta mastekatuz irakurri testua, hitz bakoitzaren ondoren geldi une bat eginez.

6

Intentzioa lantzeko ariketa

Taldean. Bakoitzak txartel bat hartu: bertan egoera bat idatzita dago. Asmatutako hizkuntzan, bakoitzak txartelean dagoena adierazi behar diozue zuen kideei. Taldekideek zer esan nahi duzun asmatu behar dute.



Ispiluarena

Binaka elkartu, eta bata bestearen aurrean jarri.

Ariketak

1^o ATALA



- A** izango dira mugimenduak egingo dituztenak.
 - B** Parean dagoenaren mugimenduak jarraitu behar dituzte ispilu baten aurrean baleude bezala.
 - A**-k egiten dituen mugimenduak garbiak izan behar dute eta ez azkarrek. Mugimendu handiak.
 - Hasieran mugimendu xumeak egin.
 - Ekintza osoak egin. Esate baterako: logalea duzu eta arropa erantsi eta pijama jantziko duzu. Eta azkenik oheratu. Beste edozein ekintza asmatu dezakezu: goizean gosaldtu, loreak bildu...
 - Kamera geldoan egin dezakezue jolas hau, edota kamera azkarrean.
- Bikoteak aldatu, **A** zena orain **B** izango da.

Imanarena

Ispilukoaren antzeko ariketa da.

- A** eta **B** kideek imanak duten erakargarritasuna izango dute, erakargarritasun hori puntu batean egongo da, esate baterako, eskuetan.
- A** eta **B**-ren eskuak elkar ukitu gabe erakargarritasun hori sentitu behar dute.
- A**-k emango dio mugimenduari hasiera eta **B**-k jarraitu egin beharko du, nahiz eta batzuetan alde egin nahi izan, **A**-k gorputzaren beste zati batzuk ere aktibatuta beharko ditu eta **B** erakarri.

Gutxinaka-gutxinaka gorputz guztia izango dute imanez bete.



Ariketak

1^o ATALA



Isil-isilik

Talde osoak hartuko du parte jolas honetan.

Taldekilde batek, **A**-k, begiak estali behar ditu.

Eta talde multzo osoak elkarren artean pega-pega eginda, isiltasun osoz, gelatik barrena mugitu behar du eta **A**-rengatik ihes egin.

A-k harrapatu behar du taldea. **A**-k norbait ukitzen duen momentuan, pertsona horrek, korrika batean begiak estali eta jolasarekin jarraituko du.

Ahoskera: enfasia

"Aldapeko sagarraren puntaren puntan txoria zegoen kantari" kantu honen esaldi hau erabili (edo beste testuren bat aukeratu dezakezue).

Aldi bakoitzean enfasia hitz batean jarri eta ikusiko duzue nola aldatzen den esaten denaren intentzioa:

*"**ALDAPEKO** sagarraren puntaren puntan txoria zegoen kantari"*

*"Aldapeko **SAGARRAREN** puntaren puntan txoria zegoen kantari"*

*"Aldapeko sagarraren **PUNTAREN PUNTAN** txoria zegoen kantari"*

*"Aldapeko sagarraren puntaren puntan **TXORIA** zegoen kantari"*

*"Aldapeko sagarraren puntaren puntan txoria **ZEGOEN** kantari"*

*"Aldapeko sagarraren puntaren puntan txoria zegoen **KANTARI**"*



Antzerkiaren garai historikoak

Ariketak

1º ATALA



IKASLEENTZAKO
OHARRA



Taldeka egindako ikerketa lana: antzerkiaren garai historikoak.

1 Taldetxo bakoitzak ikertu duen garaian buruz aurkezpen laburra egin. Aipagarrienak diren kontuak azpimarratu.

2 Amaierako komentario kritiko baikorra egin:

- Gaiaren informazioa eta tratamendua nola eman den
- Jende aurrean egindako azalpenarena: jarrera, proiektzioa, presentzia, eta abar...




Euskal Antzezlan klasiko bat irakurri taldean, edota eszena labur bat. Toribio Alzaga, Antonio M^a Labayen, Katalin Eleizegi... euskaraz antzerki asko idazten zen, batez ere, XX. mende hasieran.



Jolasak

1^o ATALA



Ëuritakoak

Hartu euritako bana.

Itxita daudela, euritakoak lurretik jasota mantendu.

Denek neurri berdintsuan.

Gelan barrena euritakoak lurretik jasota mugitzen hasi, inoren artean talkarik egin gabe, eta euritakoak lurretik distantzia berdinean mantentzen saiatu. Horretan kontzentratu, zuen gorputzarekin mugimendu ezberdinak egiten dituzuen bitartean.

KRAK!

Zarata jakin bat entzutean, euritakoak irekitzen hasi.

Presarik gabe. Elkarren artean talkarik egin gabe, ekintza guztiak oso ondo kontrolatuz.

KRAK!

Denek batera itxi euritakoak, eta berriz ibiltzen hasi lurretik altxatuta dituzuela.

Agian, batek daki, zuen antzezlanean euritakoak erabiliko dituzue...

Ekimen eszenikoa

1^o ATALA



Txiste kontaketa jaialdia

Bakoitzak etxean edo norbere kasa txiste aukeraketa bat egin, eta nola kontakutako duzuen entsaiatu: lagunaren aurrean, famili artean, ispilu aurrean, norbere burua grabatuz...

→ Talde txikiak osatu eta talde bakoitzeko kideek bata bestearen ondoren hiruna txiste kontakutako dituzue. Jarraian beste taldeek gauza bera egingo dute. Txiste kontaketa ari zaretenok publikoarekiko lotura sentitu behar duzue. Konexioa. Bakoitzak txistea kontakutako zuen modua topatu behar duzue.

→ Txiste kontaketarako garrantzitsua da hau lantzea: gorputzaren jarrera, ahotsa, erritmoa eta geldieak, pultsio dramatikoak, umorea, enfasiak, pertsonaia ezberdinen ahotsak, sorpresa...

Txistea kontakizun dramatiko labur bat da: planteamendua, korapiloa eta amaiera ditu.

Txiste bat ondo kontakutako, beharrezkoa duen planteamendua izango du, korapilo deigarria, eta ezusteko amaiera.

A, eta ez ahaztu! Txisteez ez dute inoiz iraingarriak izan behar.



Materiala

Txistek non:

Txisteka-misteka txistek mp3an jaisteko

Adituaren aholkua

1^o ATALA

KIKE AMONARRIZ

"Txiste baten arrakasta ez dago kontalariarengan, entzulearengan baizik" zioen **William Shakespeare** idazle handiak. Alegia, txistek nola kontatuko diren baino garrantzitsuagoa dela nork eta nola entzungo dituen aintzat hartzea.

Nolanahi ere, nire eskarmentuaren arabera, garrantzitsua da norberak bere kontatzeko modua osatzea; gustuko ereduak jarraituz, baina imitatu gabe. Edozein pertsonak kontatzea ez da txiste bat. Gero, gauza guztietan bezala, batzuk trebeagoak izango dira besteak baino, baina denok gara gai, gure erara, umorea lantzeko.

Hori lortu ahal izateko, norberak bere kontatzeko eta hitz egiteko era landu behar du, esajeratu gabe, baina norberaren ezaugarriak ahalik eta gehien baliatuz: itxura fisikoa (serioa edo grazioso, argala edo lodia, betaurrekoduna...), hitz egiteko modua (lasaia edo azkarra, ahots tinbre altukoa edo baxukoa...) edo izaera (lotsatia edo ausarta, mugitua edo geldoa...). Denak dira abiapuntu onak, ondo lantzen badira.

Txistek, hizkuntza baliatuz kontatzen dira, eta horrek esan nahi du, norbera bere hitz egiteko modutik eta dakienetik abiatuta, hizkuntza ere landu egin beharko duela, aberastu, bihurritu... Txistek, modu erosoan, adierazkorrean eta entzuleek ulertzeko moduan kontatzea lortu behar dugu.



Edukiak ere zaindu egin behar dira. Ez ditut batere gustuko pertsona ahulak, desberdinak edo menperatuak helburu dituzten txistek. Umorea ez da besteen kontura iseka eta txantxak egitea, edo ingurukoak mintzea, besteekin batera gozatzea baizik.

Komeni da besteen aurrean txistek kontatu aurretik, edukiak ondo barneratuta edukitzea eta zalantzarik gabe kontatzea. Horretarako, aurretik entsaiatzea gomendatuko nizuke: indarra zein hitz edo esalditan jarri behar den erabakitzea, suspensea nabarmentzeko etenak non egin behar diren pentsatzea edo pertsonaiaren hizketa imitatzeke ahotsa nola aldatuko den lantzea.

Oso garrantzitsua da, bestalde, **Shakespearek esan bezala**, aurrean zein entzule izango ditugun aintzat hartzea: ez baita gauza bera txiste bat lagunartean, haur txikiei edo ikasturte amaieran guraso guztien aurrean kontatzea.

Eta batez ere, garrantzitsuena: **kontatzeko lotsa galtzea eta txistek kontatuz ondo pasatzea eta ondo pasaraztea.**

Nor da Kike Amonarriz?

Kike Amonarriz Gorria. 1961eko irailaren 30ean, Euskal Herriko irriburuan, alegia, Tolosan jaioa. Euskal Filologian lizentziaduna.

Euskararen nomada gisa, gure hizkuntzaren aldeko oasi eta kanpamentu asko ezagutuakoa: Tolosako Udal Euskara Zerbitzua, SIADECO Ikerketa taldea, Euskararen Aholku Batordea edo Euskaltzaleen Elkartearen Topagunea, besteak beste.

Merezimendu handirik gabe, "Bai Euskarari Laguna" saria jaso zuen 2014an eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Anton Abbadia saria 2015ean.

Daukan aurpegia izan arren (edo horregatik, agian) ETBko hainbat programatan aritua: "Hau da Hau", "Balinda", "Txiskola", "Sikofonia", "Mihiluze", "Tribuaren berbak", "Burubero" edo "Sagak".

Txiste-kontalari gisa urte askotan ibilitakoa: txiste-afarrietan, bakarriketetan eta umorearen inguruko edo "Zazpiak batman" kolektiboaren umorezko hitzaldietan. 30 urtez argitaratu ditu txistek "Argia" aldizkarian. "Txisteka-misteka" izeneko 4 txiste kasete ere kaleratu zituen Joxeramon Galarragarekin batera eta 6 txiste liburu ditu: "Arpa jotzen" eta "Txorakikeriak" saileko bost.

2



Antzerki mota batzuk

Antzerki motak ezagutzea komeni da,
guk egingo dugun antzezlanarekin hasi baino lehen.

Gure antzezlanak ez du zertan txotxongilo antzezlan bat izan behar, baina agian eszena batean txotxongiloak sartzea oso komenigarria izan daiteke, edo maskara erabiltzea. Edo agian, pailazo sudur gorriarekin egin nahi dugu gure lana. Gehien ezagutzen dugun testu-antzerkian pertsonaiak gure errealitatetik gertu daude, eta egoerak ezagunak egiten zaizkigu gehienetan. Baina badira antzerkia egiteko beste modu batzuk:

1. Estiloa kontuan hartuz, antzerki mota desberdin asko dago.
Hona hemen batzuk:

- **MIMOA**
- **SUDUR GORRIA- PAILAZOA**
- **MASKARA**
- **TXOTXONGILOAK**
- **TESTU ANTZERKIA**

Zein antzerki mota dauden ezagutzeko **fitxak osatu**. Taldeka egin lan hau, talde bakoitzak antzerki mota hauei buruz informazioa bilduko du. Ondoren, gai bakoitzaren inguruan taldetxo bakoitzak osatu duen fitxaren aurkezpena egingo du talde osoaren aurrean.

2. Generoa: antzerki generoak ezagutu: Tragedia (Grezia eta Erromako garaietan batez ere), Komedia eta Drama dira oinarrizko generoak. Horien nahasketaren ondorioz tragikomedia sortzen da. Generoei buruz informazio gehiago **fitxen** bidez osatu eta partekatu.

**Antzerkia, bere barne estrukturan,
hiru zati nagusitan banatzen da:**

- **Planteamendua, korapiloa, eta amaiera.**

Eta **gogoratu**: edozein antzerki mota egiteko kontatu nahi duzun istorioa aukeratu behar duzue. Berdin da mimoa, pailazoa edo testu antzerkia egiten baduzue ere!

Zerbait berezia eta ikuspuntu deigarri batetik kontatzeko gogoia eta nahia eduki behar duzue.

Ariketak


2. ATALA



Gorputza landu

Gorputz beroketa taula egin.
Beste ariketa hauek ere probatu:

Taula
18.
orrialdean



1

Zabaldu ahalik eta gehien ahoa, begiak eta aurpegi guztia ireki. Ondoren txikitu aurpegia sudur aldera.

2

Ahoa txiki-txiki egin eta saiatu aurpegi guztia aho aldera eramaten.

3

Aho txikitik sekulako irribarrea egitera pasa. Ezpainetako ertzak belarrietaraino eramateko ahalegina egin. Ondoren irria galdu gabe hortz guztiak erakutsi. Erlaxatu aurpegia.

4

Ahoa zabaldu eta atera mingaina luuuuze. Saiatu mingainarekin sudur punta utkitzen. Eta ondoren kokotsa.

5

Ezpainak itxita zure ahoa biribil bat eginez mugitu. Alde batera eta gero bestera.

6

Burua tente, atzeraka eramanez, atera kokots azpiko paparra. Erlaxatu.

7

Begirada aurreraka, begiekin biribil handi bat egin burua mugitu gabe. Begiak gora, behera. Ezkerretara eta eskuinetara.

8

Eskuekin aurpegia garbitu behar bagenu bezala aurpegian masajetxo bat eman. Erlaxatu.

Ahotsa landu

1

Amasketak

2

Erlaxazioa

3

Ahotsaren proiezioa

Ariketak

2. ATALA



4

Aho korapiloak

- Alkipean kapa, kapa alkipean; alkipean kapa, kapa alkipean...
- Aurten gure ortuan artoa berde erne da.
- Arre, orrea, aurrean, arraioa.
- Akerrak adarrak okerrak ditu. Okerrak adarrak akerrak ditu. Akerrak okerrak adarrak ditu. Adarrak okerrak akerrak ditu.
- Tantarik tanta, euria kanta, hodeia zutik, eta erreka etzanda.
- Zorri barri sarri larri eta barregarri
- Iputz-apezak napar-istupez atorra; napar-apezak iputz-istupez atorra



Taula
20.
orrialdean

Ahotsa berotzeko ariketak

Ahotsa: gure arnasak ahots-kordak bibratzen dituenean ateratzen dugun soinua.

1

Amasketak

- Lurrean etzanda, belauak tolestuta, arnasa sakon hartu, eta haizeak birrikak diafragma eta sabela nola betetzen dituen sentitu. Ondoren haizea gorde (5 zenbata). Haizea polki bota, lehendabizi, sabela hustu gero diafragma eta birrikak.
- Eskuak saihetsean jarri eta aldeetara puztu birrikak.
- Kandelat bat piztu, eta polki-polki baina gelditu gabe haizea bota kandelari. Ez itzali kandelaren sua.

2

Erlaxazioa

- Etzanda edo eserita, amasketak ariketak egin. Bitartean ahoa zabaldua mingaina eta matrail hezurra erlaxatu.
- Aaaa... soinua egin arnasa botatzen. Ahalik eta denbora gehien iraut behar du soinua etenaldirik gabe.

3

Ahotsaren proiezioa:
bota soinua luze eta urrutira

- Aaaa... edo Ssssss... erabiliaz, soinua eskuarekin bultzatuko bagenu bezala, ateratzen dugun soinua hori urrunera bidali, indarrak galduta gabe, haizea neuri berdinean mantenduz (gorabeherarik gabe).
- Esaldi bat gertu dagoen bati esan eta ondoren gelafren beste muturrean dagoen beste kide bati. Kontua ez da garrasika hitz egitea, proiektatzea baizik. Horretaz jabetu.

4

Ahoskera

Arkatza ahoan jarri, eta koska egiten diozun bitartean aho korapilo bat esan ulertzeko moduan, esate baterako:

Hara hemen zerbaít
bribil-bribilat!
Zer ote da?
Zer ote da?
Behi baten
kaka pilat!

5

Modulazioa eta doinua

- Ahotsaren adierazgarritasuna landu. Testu edo esaldi bat hartu eta alderdi hauek landu:
 - Enfasia eta azpimarratzea: irakurri testua hitz jakin bat edo bätzuei indarra emanaz, eta isiluneen garrantziak jabetu.
 - Monotonia: esaldia inolako intenziorik gabe irakurri. Ondoren, esaldia animo egoera ezberdinekin irakurri. Pozik, belduruta, presaka, logalez, etab.
 - Esaldien azken hitzak ondo entzutea beharrezkoa izaten da, horregatik testu bat irakurri bereziki esaldi bakoitzaren azken hitzak azpimarratuta.
 - Hitzak arropaladan esateko joberaren aurka hitzak ahoskatu eta mastekatu irakurri testua, hitz bakoitzaren ondoren geldi une bat eginez.

6


Intentzioa lantzeko ariketa

Taldean, bakoitzak txartel bat hartu: bertan egoera bat idatzita dago. Asmatutako hizkuntzan, bakoitzak txartelean dagoena adierazi behar ditzue zuen kideei. Taldekideek zer esan nahi duzun asmatu behar dute.



Fitxak

2. ATALA



1. Antzerki estilo edo mota bakoitzari buruz, egin ezazue laburpen bat zuentzat azpimarragarrienak diren ezaugarriak azaleratuz.

- Eztabaida sortu gogokoen duzuen antzerki mota defendatuz.

2. Antzerki genero bakoitzak bere ezaugarri eta lege propioak ditu:

- Komediaren ezaugarriak
- Dramaren ezaugarriak
- Tragediaren ezaugarriak

Publikoarekin kontaktua

Norberak bere burua erakutsi taldearen aurrean. Publikoa sentitu.

JOLASA:

Neska-mutilak espazioan zehar dabilta, batera eta bestera mugituz, eta korrika dabilen horietako batek zerbait kontatu behar die besteei. Mugimenduan dabiltzanen arreta lortu behar du, kasu egitea.

Aaaaaaa!!!


Ikara oihu bat bota. Publikoari begira gelditu izoztuta. Sentitu zure ekintzak sortzen duen efektua eta publikoaren jakin-mina. Jarraitu korrika. Gelditu eta algara zaratatsua egin. Begiratu ikusleen erreakzioa. Jarraitu korrika...

Espazio eszenikoan mugitzen ikasi

Kideekiko harreman espaziala landu.

Ariketak

2. ATALA



1

Begiak itxita taldekide guztiak poliki ibili, elkarrekin topo egindakoa, gelditu eta identifikatu.

2


Oinez ibili taldekide guztiak, bakoitza bere kasa, eta zuen inguruan duzuen espazio guztia bete. Seinale bat entzutean, **KRAK!**, ekintza bat egin, eta berriz ere seinalea entzutean, **KRAK!**, normal ibiltzen jarraitu, hurrengo seinalea entzun arte. Seinalea entzutean...

- Norabidea aldatu.

- Abiadura aldatu.

Bizkor / Motel / Atzeraka / Errenka...

- Bilatu hitz egiteko kide bat. Hizkuntza asmatuarekin hitz egin.



Antzerki mota batzuk

2.1. MIMOA

Hitzik gabeko antzerkia da. Gehienetan aktore bakarra izaten da, eta keinuen bidez adierazten dira egoera eta ekintza guztiak. Oso mugimendu, keinu eta imintzio garbiak eta landuak egin behar dira, kontakizuna eta pertsonaiari gertatzen zaizkion gorabeherak publikoarengana ondo iristeko, eta baita sentimendu eta emozioak azalertzeko ere.

Mimo aktoreek gorputz adierazpena asko lantzen dute, hitzik gabe ikuslea gehienetan barregarriak diren egoeratan murgiltzeko. Baina mimoek ez dute zertan beti umoretsuak izan.

Antzinatik egiten den antzerki mota da. Baina XX. mendean, Frantzian batez ere, mimo modernoak lantzen hasi zen Étienne Decroux aktorea, eta estilo berri bat sortu zuen. Bere ondoren etorri ziren beste mimo ezagun gehiago. Denetan ospetsuena *Marcel Marceau* izan zen; aurpegia zuriz margotzen zuen eta ikuskizun zoragarriak egiten zituen. Youtube-n bere lanaren bideoak topatuko dituzue.

Hala ere, mimo ezagun asko izan dira zineman eta telebistan, esate baterako, Charles Chaplinen *Charlot* pertsonaia edota Rowan Atkinson aktorearen *mister Bean* pertsonaia mutua.



Mimo ariketak:

- 1 Taldeko kide guztiak korrika hasi. Ahalik eta azkarren. **KRAK!** Bat-batean abiadura kolpetik gelditu, baina ekintza ez, eta kamera geldoan jarraitu ordura arte egiten ari zineten keinu berbera egiten, eta gorputzaren jarrera ere berdin mantentzen.
- 2 Trapezio soka baten gainean zabiltzate (irudikatu), eta oreka mantentzen saiatu. Ez da erraza, etengabe erortzeko arrisku handia dago.
- 3 Txalo zaparradak jo, baina zaratarik egin gabe, oso gogoko duzuen ikuskizun bat ikusten arituko bazinate bezala. Poliki-poliki nekatzen zoazte, eta txaloak mantoago eta motelago egingo dituzue. Zaratarik egin gabe beti.

Mimo jolasak:

- 1 Taldearen aurrera banaka atera, eta animo egoera jakin batekin (pozik, maiteminduta, haserre, urduri, zoro-zoro...) ekintza zehatz bat egin, hitzik esan gabe: gosaria prestatu, loreak bildu, hautsak kendu objektu ezberdinei... Baina ekintzak egiten ari denak oztopoak izan behar ditu, esate baterako, gosaria prestatzeko Colacao potea zabaldu nahi du eta ezin du, edota esnea beroegia dago eta ezin du hartu eta urduritasunez itxaron egin behar du putz eginez, etab.
- Ikusle diren taldeko beste kideek zein ekintza eta zein den antzezlearen egoera asmatu behar dute.

Ariketak

2. ATALA



2

ITSATSITA GERATZEN DEN PAPERAREN JOKOA:

Banaka egiteko ariketa da. Baina binaka ere egin daiteke. Itsasteko zinta edo pegamendua duen papera prestatu. Paper zati hori eskura itsatsita geratuko zaizue. Askatu egin nahi duzue, baina ezin duzue. Hankarekin zapaldu papera eta hanka azpian geratuko da papera, ezin kendu. Berriz ere eskuak erabili oin azpitik kentzeko, eta ezustean papera ipurdian itsatsita geratuko da, eta gero... Zuen pertsonaiak, harriduraz, haserre, nazkatuta, etsita eta horrelako emozioak erakutsiko ditu, egoera inozo baten biktima suertatzen baita.

Binaka eginez gero, paper hori batak besteari kendu nahiko dio, baina kentzen dionari itsatsita geratuko zaio.



Antzerki mota batzuk

2.2. SUDUR GORRIA- PAILAZOA-CLOWNa

Sudur gorria, dagoen maskararik txikiena dela esan ohi da.

Maskara janzteak antzerkiaren "erritoan" sartzearen garrantzia du, horregatik ez da nahikoa sudur gorria janztea eta tontakeria pare bat egitea, ez! Sudur gorria jantzi eta aldatu egiten zaizu bai aurpegia eta baita jarrera ere! Sudur gorria jantzi eta pertsonaia sortzen duzu. Pertsonaia berezi bat, izaera inozo, urduri edo inuxentearekin, edota bere begirada biziarekin. Badira pailazo **AZKARRAK**, edo **LOTSAGABE ALPROJAK**, edo **TRAKETSAK**, eta nola ez, pailazo **BIHURRIAK** edo **TONTOLOAK**.

Nork bere pailazoa du. Barrutik ateratzen da, baina pertsonaia hori landu egin behar da. Nola hitz egin, nola ibili, zein keinu dituen ohikoak, edo esate baterako, muturreko egoera batean zer egingo duen probatu, eta zuen pailazoa nolakoa den bilatu.

Pailazoen mundua barregarria da oso, baita maitagarria ere, eta hunkigarria. Pailazoak bere "mundu berezia" sortu behar du, mundu magikoa bere izaera garatzeko. Gehienetan gauza txikiez jabetzen da, eta arazoak nonahi gertatzen zaizkio, espero gabeko kontuekin.

Pailazoak txantxak egiten ditu. Baita txiribueltak, edota malabareak, erorketak edo magia jokoak. Musika ere jotzen du eta...

Gogoratu: zenbat eta trebezia gehiago landu zure ikusleak gehiago **txundituko** dituzu!!!

Pailazoa egitearena oso serioa den jolasa da!

PAILAZO LANA EGITEKO ARAUDIA:

Euskal Herrian pailazo ugari ditugu: Txirri, Mirri eta Txiribiton, baita Pirritx, Porrotx eta Marimotots, edo Virginia Imaz, eta... Begiratu interneten haien argazkietan, euren makillaje eta jantzi bereziak.

1

Ez inoiz presarik izan!

2

Garbi eduki zer kontatu edo adierazi nahi duzun.

3

Keinuak beti handiak, garbiak eta zehatzak egin. Gauza asko eta nahasiak egiteak ez du laguntzen.

4

Topatu "zure pailazoari" ezaugarri nagusi bat: ibilera geldoa, edo oinak okertuta, edo maiz estropezu egiten duen pertsonaia, edo galtzak oso gora igotzen dituen, edo etengabe behatza sudurrean duena, edo ipurdiak sekulako zama balu bezala ibiltzen dena... eta ikusiko duzue zuen ibilerak nola aldatzen duen pertsonaiaren izaera. Bilatu berezia izango den zoezer. Batzuetan oso apalak eta diskretoak diren pailazoak ere oso bereziak izan daitezke.

5

Sudurra jantzi eta ispiluaren aurrean zure aurpegiko keinuak entsaiatu: poza, haserrea, mina, harridura, inozente edo txintxo aurpegia, edota maltzur aurpegia.

6

Makillajea eta jantziak. Sudur gorria jartzeaz gain aurpegia zuriz margotu ahal duzu, eta begiak beltzez inguratu. Horrela zure keinuak nabarmenago geratuko dira. Eta jantziek, nola ez, pertsonaia berezi hori sortzen lagunduko dizute: jaka erraldoi bat, tiranteak, mototsak, galtzerdi koloretsuak, zapata handiak... denak lagunduko du mundu magiko hori sortzen.

Ariketak

2. ATALA



Pailazo sudurra: ariketak

Pailazo sudur gorria jantzi eta ispiluan zure burua begiratu. Keinuak lantzen hasi: begiak, ahoaren keinuak... Hitzik gabeko lana egin, gorputzari eta aurpegiko espresioari lehentasuna eman. Norberaren CLOWN-pailazo pertsonaia landu, eta ariketa horietatik sortzen dena finkatu.

1 LANDU BEHARREKOA:

a. Pertsonaia garatu, nola begiratzen duen, zein arazotan sartzen den, eta arazo horien aurrean zer-nolako erabakiak hartzen dituen, zein irtenbide bururatzen zaion, publikoa kontuan hartzea, *tenpoa* edo denbora (ezin da dena azkarregi egin, ezta gehiegi luzatu ere), etab.

b. Aita, buseko txoferra, auzokoa, edo abeslari famatu baten begirada edo tankerak hartu zure pailazoa sortzeko. Ez duzu imitatu behar, bere ezaugarriren bat edo jarrera gogoan edukitzea nahikoa da.

c. Emozioak edo animo egoerak: poza, tristura, maiteminduta egotea... edota gosea, hotza, kakagurea, logalea... Pentsatu, identifikatu, sentitu, eta adierazi egoera hauek edo antzekoak. Zuen pertsonaia erabat baldintzatuko dute.

d. Kontakizunak lantzen hasi:

Pertsonaia horietako bat zara, eta aulki batean eseri behar duzu. Aulkiak esertzerakoan zarata egiten du.

Zer egin egoera horren aurrean?

Alkandora bat jantzi behar duzu dotore egoteko... baina botoiak gaizki lotzen dituzu. Denak askatu eta berriz hasi. Berriz ere denak lotu eta oraingoan okerrago!

Zer egin egoera horren aurrean?

Txapel dotore bat duzu.

Baina txikiegia da eta burua mugitzen duzunean erori egiten da, behin eta berriz.

Zer egin txapelari eusteko?

Bazkaltzekoa tuper batean ekarri duzu.

Gose zara, eseri, serbilleta atera, manteltxoa, dena ondo prestatu, eta azkenean... tuperra irekitzean oliba bat besterik ez dago. Harridura.

Platerean oliba jarri eta... zer egingo zenuke egoera horretan?

Pertsonaia paseatzen ari da, eta norbaiten zain zain dago eta halako batean bere aurrean tarta eder bat ikusten du. Tartara hurbildu. Erreakzioak landu. Garrantzia duen ekintza indartu. Begirada guztiak aktoreak nahi duen lekura bideratu behar dira. **Zer egin, pixka bat probatu ala...?**

Lo egin nahi eta euli bat dabil pertsonaiaren inguruan bueltaka.

Zer egin egoera horretan?



A



B

Ariketak

2. ATALA



2 OINARRIZKO HITZIK GABEKO ELKARRIZKETA BI AKTOREEN ARTEAN:

Biak sudurra jantzita publikoari begira. **A**-k **B**-ri begiratu dio. Publikoari begiratu berriz.

B-k **A**-ri bi aldiz azkar begiratu. **A**-k **B**-ri luze begiratu. **A**-k publikoari begiratu eta arnasa sakon bota.

B-k poliki-poliki **A**-ri begiratu. Etab....



3 ARKAKUSO AKROBATAREN ESKETXA:

Pailazo saio hau oso ezaguna da. Zu zirku bateko pailazo mundiala zara eta arkakuso oso azkar bat domestikatu duzu, eta mundu osoari erakutsiko diozu:

- Itxaroteko keinua egin jendeari. Garrantzi handia emanez, poxpolo edo bestelako kutxa txiki bat poltsikotik atera.
- Kutxatxo ireki eta barruan dagoena ikaragarria dela adierazi publikoari (kutxan ez dago ezer, baina zuk han barruan xomorroa balego bezala jokatu behar duzu)
- Zabaldu zure eskuineko eskua eta zure begiradak eskuineko eskutik ezkerrekora egin behar du, airean salto egiten ari den arkakusoari jarraituz. Ahoarekin txistu txiki bat egin, arkakusoak hegan egitean ateratzen duen zarata bezalakoa. Ezkerreko eskura iristean, eskuak beheraka egin behar du, saltoaren indarragatik.

- Ahoarekin arkakusoak hegan egiterakoan ateratzen duen soinua egin. Eta esku batetik bestera salto egingo du hiru bira handi eginez -zure begiekin jarraitu mugimendua, ZZZZZZ egiten duzun bitartean-.
- Salto oso zailak eta airean nahi adina txiribuelta egin ditzake "zure arkakusoak".
- Halako batean salto oso zaila egiteko esaten diozu keinuz. Arkakusoak ez du nahi. Zuk, gogor, egin behar duela esango diozu. Eta azkenean arkakusoak zure begira salto egingo du edo zure jantzien barrura... eta ziztadak ematen hasiko da.
- Edo... pentsatu beste amaieraren bat!!!

Adituaren aholkua

2. ATALA

VIRGINIA IMAZ

CLOWN KODEA:

Frantsesez eta ingelesez *Clown* hitzak pailazoa esan nahi du. Clown-ak, bufoiak, eta Comedia dell'Arteko pertsonaiak (Colombina, Arlequino edo Pantaleone bezalakoak) gure kulturen **maskara-antzerkia** deitzen diogunaren parte dira. Antzezpen horietan, karikato edo pertsonaia komikoek gorputz deformatu edo grotesko bat aurkezten dute, publikoa hunkitzea eta barre eginaraztea helburu duena.

Pailazoaren sudur gorria munduko maskara txikiena omen da. Maskara bat janzten dugunean, desberdin sentitzen gara eta jendeak ere desberdin ikusten gaitu. Mozorroto zara inauterietan inork zu ez ezagutzeko moduan? Sentitu al duzu txantxak egiteko askatasuna? Clown sudurrak askatasuna ematen digu, betiko pertsona ez izateko askatasuna: "nahi dudana izan naiteke eta nahi bezala jokatu dezaket". Antzerkian, maskara ez da ezkutatzeke, gehiago erakusteko tresna baizik.

Clown jokoan, zure burua maskarekin eta ezohiko energiarekin mugituz agertzen da. Bere helburua une bakoitzean sentitzen ari dena adieraztea da (adieraztea = barruan dagoena ateraztea). Dena jolasa da, eta clown kodea da joko eszenikorik dibertigarriena.

Pertsona heldu batzuk uste dute pailazoa izatea txorakeriak egitea dela. Bai. Hori ere bada, baina ez da hori bakarrik. Izan ere, sinetsarazi digute gauza inportanteak beti serioak, larriak eta... aspergarriak behar dutela izan! Handitzen goaz eta jolasteari uzten diogu, lastima!. Jolas gehiago behar da bizitzan eta bizitza gehiago jolasean.

Bestalde, clown kodea arte eszeniko bat da. Ez da nahikoa sudurra jantzi eta edonola edozer gauza egitea. Txorakeria bikain eta dibertigarriak egiteko ere ikasi egin behar da. Edo hobe esanda, gezur pila bat deskasizi



behar da: "Zuk ez dakizu...", "Zuk ezin duzu...", "Ez deitu atentzioa...", "Barregarri geratuko zara...". Ez dugu inor epaitu behar, eta gure buruak ere ez ditugu epaitu behar, eta berriz jolastu behar da eta ondo pasatzeko zer egin behar den gogoratu. Pailazoarena egitea baino, pailazo izatea da kontua. Mugarik garrantzitsuena minik ez egitea da; ez nork bere buruari, ez beste inori.

Adituaren aholkua

2. ATALA

Pailazoak gure ahultasuna erakusten du, gure inozentzia. Gogorarazten digu ez dugula dena kontrolatzen, berez, ez dugu benetan garrantzitsua den ia ezer kontrolatzen. Clown-a traketsa da, edozer gauzarekin distraitzen delako, batez ere publikoarekin. Nahasten da, baina aurrera egingo du. Saiatu eta saiatu, eta berriz ere saiatuko da. Ustekabeek, hutsegiteek, porrotek ez diote jarraitzeko gogoak kentzen. Ez du bere goxotasuna, izua edo amorrua adierazteko beldurrik. Ez du grazia eginarazi nahi. Benetan ari da.

Clown inprobisazioan trebatzeari esker, beldurrak eta lotsak kentzen ditugu, elkar entzutea hobetzen dugu, besteen lekuan jartzen ikasten dugu, gure sormena garatzen dugu, hunkitu egiten gara eta barre egiten dugu. Eta batzuetan, publikoak aurrean jartzen diogun ispiluarekin barre egiten du, bai, bere tik, bere mania, bere konplexuak eta bere amets eta irrikak aurrez aurre ikusten dituelako.

Clown kodea elkar hobeto ezagutzeko bidea da, eta norbera den bezalakoa izateko baimena emateko artea. Bai, egia da, nik ezin dut beste inork bezala barre eginarazi, baina sorpresa handia da ikustea nik bezala, beste inork ezin duela barrea eragin. Clown jokoak erakusten digu pertsona bakoitza bakarra dela.



Nor da Virginia Imaz?

Jaio egin nintzen. Umetan nire jolasa antzerkia egitea zen. 19 urte bete nituenean clown ikastaro bat egin nuen eta barre egitea zenbat gustatzen zitzaidan gogoratu nuen.

Irakaslea izan nintzen, filologia hispanikoa ikasi nuen, Gestalt terapia eta zinema eta antropologia pixka bat, baina batez ere clown eta komedia ikastaroak egin izan ditut. Eta oraindik ere ikasten jarraitzen dut. Oihulari Klown antzerki konpainia sortu nuen 1988an. Pailazoari esker jolasa lanbide bihurtu dut eta neure buruaz barre egiten irakatsi dit.


Horri esker, munduan zehar ere ibili naiz, eta hiru kontinentetako 14 herrialdetan antzeztu dut. Antzerkietan, kaleetan, ospitaleetan, errefuxiatu-esparruetan, kongresuetan lan egin izan dut, eta ia hiru urtez, Cirque du Soleil ospetsuaren Nouba ikuskizunean, Kanadan eta EABetan parte hartu nuen.

2017an, Emakundek, sari bat eman zidan arte eszenikoetan 30 urte baino gehiagoz berdintasunaren alde egindako ibilbideagatik.

Noizean behin, oraindik ere, mariperfektua izateko tentazioak izaten ditut, zoriontsua izan beharrean, beti arrazoi izatearekin tematuta dabilen marijakintsu petral bat. Orduan klown sudurra jantzi eta pasa egiten zait.

Jolasak

2. ATALA




Estropezua:

Estropezu egin eta oreka galdu dezakezu... lurrera erori arte!

- **Oinez hasi eta halako batean...** eskuineko hankarekin ezkerreko hankako orkatila kolpatu. Ibileraren aldaketa horrek estropezu egitearen efektua egingo du. Baina orain, bigarren lana dator, eta aurrekoa bezain garrantzitsua: efektua. Alegia, zuk gorputzarekin egingo duzun erreakzioa, zenbat eta handiagoa, are eta barregarriagoa. Saiatu, behin eta berriz, mugimendu garbiak egin arte.
- **Oreka galdu:** estropezuaren ondoren... ai ama! Ai ama! Ai... oreka galdu eta... ai, erori egingo zara... Luzatu oreka galdu izanaren efektua.
- **Danbala, lurrera erori.** Orain ere erortzean hartu duzun minaren efektua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta barregarriagoa izango da.
- **Zarata:** eroritakoan eskua zabalik duzula lurraren kontra jotzen baduzu, zure erorketan sekulako danbatekoa hartu duzula emango du.
- **Erreakzioa:** erori ondoren zer egingo duzu? Ezer gertatu ez balitz bezala altxatu? Ala negar zotinka hasi? Ala disimulatzeko... jolas bat asmatu?

Jolasak

2. ATALA



Zaplaztekoa

BI LAGUNEN ARTEAN:

A-k eskua zabal-zabalik jarri eta zaplaztekoa emango dio **B**-ri. Baina ez dio aurpegia ukituko!!!!

B-k kolpea jasotzen duen unean, bere bi eskuekin -disimuluan- txalo zaratatsua egin behar du. **Eta jakina, oso oso garrantzitsua: erreakzioa!** Zaplaztekoak min handia egin diola erakutsi behar du. Zenbat eta handiagoa hobe: **B**-k eskua bere masailera eraman,

A-k ikaragarritzko mina egin balio bezala.


Ez da erraza, beraz... ondo entsaiatu.

HORMAREN EDO ZERBAITEN KONTRA KASKARREKOA:

Edozerekin har dezakezu danbatekoa: leiho baten kontra, horma baten kontra... baina ez jo zeure burua, itxura besterik ez egin.

"Kolpea" hatzen duzun une berean, eskua zabalik duzula horma edo dena delakoa jo.

Eta ondoren... Erreakzioa. Eskua burura eraman kaskarrekoa hartu izan bazenu bezala eta aieneka edo negarrez hasi. Batek baino gehiagok sinetsi baietz!



IKASLEENTZAKO OHARRA



PILAZO SUDUR GORRIA NOLA EGIN:

Pin-pongeko pilota batekin:

- Erditik moztu
- Aldeetan bi zulo oso txiki egin, eta haietatik goma elastikoa pasa sudur puntan ondo gera dadin.
- Gure sudurtxoa gorritz margotu.

Eta... prest!

Seguru sudur gorria egiteko beste hamaika ideia bururatuko zaizkizuela, esate baterako, ur botiletako tapoi handiak gorritz margotuta, edo esponja batekin, edo plastikozko fruta borobil batekin, edo... bi zulo egin goma lotu, eta listo!!!





Antzerki mota batzuk

2.3. MASKARA

Historian zehar maskara antzerkiari lotuta dagoen ezinbesteko tresna da. Maskara antzeztearen errotoaren parte da.

Maskarak: Historia

Antzinako Grezian, aktoreak ez ziren eszenatokira maskararik gabe ateratzen. Hariz, egurrez edo larruz egiten zituzten. Pertsonaiaren ezaugarriak handitu egiten zituzten. Maskarei esker, gainera, aktore batek pertsonaia bat baino gehiago antzestu zitzakeen.

Ondoren Italian Comedia dell'Arte indartzen hasi zenean, maskarak ere zabaltzen joan ziren. Maskara xebreak izaten ziren, sudur luzeak edota masail puztuak edo...

Maskarak: Motak

Maskara mota asko dago: paperez egindakoak, larruzkoak, kartoiarekin eginak, espumazkoak, egurrezkoak, etab... Batzuek aurpegi osoa estaltzen dute, eta beste batzuek, berriz, aurpegi erdia edota aurpegiaren zati bat (sudurra, begiak, masailak...). Badira buru osoa estaltzen duten maskara handiak ere.

Maskarak: Adierazpenak

Erabileraren arabera ere, maskara tankera askotakoa izan daiteke:

- Maskara neutroa: gehienetan zuria izaten da, eta ez du inolako keinurik izaten. Gorputzaren eta buruaren mugimenduek adieraziko dute maskararen bidez pertsonaiari gertatzen zaiona.

MASKARAREKIN LAN EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ARAU BATZUK:

- 1 Ez ukitu maskara, horrek gizatiartu egiten baitu eta maskararen garrantzia gutxitu.
- 2 Mantendu zutik aurpegia, beti frontaltasuna landu, arreta eta energia mantentzeko.
- 3 Pertsonaiak hitz egin behar duenean soilik hitz egin.
- 4 Zure ekintzetan jarri arreta.
- 5 Zure mugimendu guztiak ondo erabaki eta oso ondo neurtu, ikusleek arreta ez dezaten galdu.
- 6 Hartu denbora: begiratu, pentsatu, ideiak piztu eta erreakzionatu. Utzi ikusleei ere denbora erreakzionatu ahal izateko.

- Maskara erdia: ahoa libre uzten duten maskarak izaten dira. Horrela aktoreak hitz egin dezake eta entzungo zaio, baina, hala ere, maskarak ez du bere indarra galduko.
- Pertsonaia maskara: ezaugarri nabarmenak dituen maskara, pertsonaia hori sortzeko oso lagungarria izango da. Esate baterako, kopetiluna den pertsonaia bat egiteko, edota potolontzio bat egiteko, edo... Maskara egoki batek publikoari berehala ikustarazten dio pertsonaia nolakoa den. Pertsonaia batzuk ezagunagoak egingo zaizkigu, baina beste pertsonaia batzuk erabat fantastikoak izan daitezke. Maskarak aukera hori ere ematen du.
- Mamu, jainko-jainkosa edo animalia basatien maskarak, pertsonaia bereziren bat egiteko oso lagungarriak dira.
- Mozorro maskara: antzezteko baino ezkutatzeko edo inauterietarako erabiltzen diren maskara koloretsuak eta apaingarritz beteak izaten dira.

Maskarak: Erabilpena

Maskara janzten dugunean gorputz osoak maskara horri lagundu behar dio, hau da, bere zerbitzura lan egin behar du. Alegia, kontatu edo esan nahi duguna, gorputzaren jarrera eta mugimenduen bidez adieraziko dugu. Horregatik maskara erabiltzeko gorputza landu beharko dugu. Eta, **KONTUZZZZ!** maskara ez da batera eta bestera, gora eta behera mugitu behar, aurpegia mugitzen dugun bezala. Kontrola eskatzen du maskarak. Mugimendu garbi eta zehatzak.

Maskararen atzean aktore bat dago, pertsonaiari bizia emango diona. Aktore askorentzat, hasieran behintzat, maskara baten atzetik lan egiteak balio dezake lotsa usatzeko edo jende aurrean agertzeak ematen duen larritasunetik babesteko.

PABLO IBARLUZEA

MASKARAREN MAGIA:

Duela urte asko, antzerkia egiten hasi nintzenean, maskara-ikuskizun bat ikustera joan nintzen, non aktoreek hainbat pertsonaia antzetzen zituzten. Maskarek aurpegia estaltzen zieten eta ezin zuten hitz egin, baina, hala ere, dibertigarria, zirraragarria, tristea... izan zen. Saioa amaitzean, agurtzera irten ziren, eta maskarak kentzean, txundituta geratu nintzen: ez zuten beren pertsonaien antzik! Maskara haien azpian, nik ikusten nuen aurpegiak gain, ezin zuen beste aurpegiarik egon! Nire bizitza betiko aldatu zuen esperientzia izan zen: antzerkiaren magia ezagutu nuen.

Maskara objektu finkoa da, mugitzen ez dena, eta, hala ere, nola da posible pertsonaia bizirik dagoela eta emozioak sentitzen dituela ikustea? Niretzat maskarak antzerkiaren misterioa erakusteko modurik argienak dira. Aktoreek, sekulako gaitasuna dute beren gorputza bakarrik erabiliz, unibertso ezberdinak sortzeko, irudimenezko leku bitxietara eramateko, besaulkitik altxatu gabe istorio amaigabeetara bidaiatzeko aukera eskaintzen digute.

Orain, maskararekin lan egiteko aktoreak prestatzen ditut. Helburua beti bera da: "inork ez dezala aktorea ikusi, ikusleek pertsonaia bakarrik ikus dezatela". Erronka handia da sinestaraztea larru puska bat edo plastiko zati hori hezur-haragizkoa balitz bezala bizi eta sentitzen duen norbait dela.

Lortzen badugu, ikusleek beren irudimena eskaini digutela esan nahi du, eta infinitura eta haratago eraman ahal izango ditugu!

Zuzendari Pedagogikoa

Pablo Ibarluzearen Nazioarteko Eskola (Ikerketa eta Sorkuntza Eszenikoa)

pabloibarluzea@gmail.com • www.pabloibarluzea.com  @pabloibarluzea  #pabloibarluzea

Cursos Pablo IBARLUZEA Workshops • Escuela Internacional PABLO IBARLUZEA International School



Nor da Pablo Ibarluzea?

Paris eta Bartzelona artean trebatutako aktorea, zuzendaria eta antzerki-pedagogoa. Bere eskola propioa zuzentzen du Bilbon, eta 15 nazionalitate baino gehiagoko ikasleak joaten dira bertara. Clown gisa lan egin du Cirque du Soleilekin. Marie de Jongh konpainiaren AMOUR ikuskizunean ere aktore gisa aritu zen (Maskara ikuskizun horrek Max saria irabazi zuen).

Ariketak

2. ATALA



1 Maskara bat egin.

2 Maskara jantzita: lo egotetik, esnatu, eta norberak bere burua aurkeztu.

3 Pertsonaiak sortu: izaera, ibilera... eta beste pertsonaiekin harremana eraiki.

4 Euskal Mitologia:

- Mitologiarekin lotura duen ipuin bat bildu.
- Mitologiako pertsonaia bat aukeratu.
- Bakoitzaren maskara egin.
- Maskara horien bidez pertsonaiak sortu dituzue, ipuina ere baduzue, orain antzeztea besterik ez zaizue gelditzen! Dakizuen bezala planteamendua, korapiloa eta amaiera ondo pentsatu eta aurrera!

5 **Talde-lana:** abesti bat aukeratu. Abesti horretan dauden pertsonaien maskarak sortu. Pertsonaia horiek abestian gertatzen dena antzeztuko dute. Abestuko dutenek, korukoek, denek maskara berdina egingo dute. Baduzue ikuskizun labur bat prestatzeko abiapuntua! Gora teloa!

IRAKASLEENTZAKO OHARRA



Maskararen nondik norakoak ezagutzea lagungarri izango da bai gure gizartearen historia ezagutzeko, baita kanpoko kulturei buruz jakin-mina pizteko ere, eta nola ez, gure tradizioei buruz ikertzeko: mitologia, festa eta dantza tradizionalak... ezagutzeak gure gizartearen aberastasuna gerturatzeko aukera paregabea eskaintzen digu.



IRAKASLEENTZAKO OHARRA

MASKARAK:

Maskarekin lan egiteak sekulako aukera ematen du.

Antzezlan batean pertsonaia batzuk eraman dezakete maskara, edo pertsonaia bakar batek, edo...

Saiatu animalien mundu bat sortzen. Bakoitzak gogoko duzen animalia bat aukeratu. Kartoi edo kartulina batean maskara bat moztu eta elastikoa jarri. Ondoren animalia margotu.

A ze zoologikoa!!!



Fitxa

2. ATALA



1. Maskararen historia laburra.


- Non hasi zen erabiltzen?
- Zertarako erabiltzen zen?

2. Gure inguruan dauden maskarak. Antzerkian eta bizitzan.

3. Euskal Herriko inauterietan maskara ezagun asko dituzu.

- Bilatu maskara desberdinak eta zein herritakoak diren.

4. Zergatik janzten ditugu maskarak mozorrotzen garenean?



IKASLEENTZAKO OHARRA



MASKARA BAT EGITEKO MODU BATZUK:


- 1. Kartulina edo kartoi** bat moztuz egin dezakezu zure maskara: begiko zuloak, ahokoa eta sudurrekoak egin, eta nahi bezala margotu. Ez ahaztu aurpegian eusteko goma bat jartzea albotik albora.
- 2. Globo bat, egunkari bat eta kola zuria behar duzu:**
 - Globo bat, gutxi gorabehera, zure aurpegiaren neurrira puztu.
 - Egunkari orriak tiritek duten neurriko zati txikietan puskatu (eskuz txikitu. Ez erabili guraizeak)
 - Ontzi batean kola zuria jarri, ur pixka batekin nahastuta, eta egunkari zatitxoak bertan busti eta poliki-poliki globoaren gainean jartzen joan.
 - Begi eta ahoa egongo diren lekuak ez bete egunkari zatiz. Lodiera nahikoa duenean, lehortzen utzi eta ondoren globoa leherrarazi.
 - Maskarak izango dituen alde zorrotzetatik lixa pasa, eta aldeetan bi zulo txiki egin goma elastikoa haietatik pasa eta burura eusteko.
 - Nahi bezala margotu zure maskara. Eta... pertsonaia lantzera!





Jolasa

2. ATALA



- 1 Aukeratu animalia bat. Animalia horren maskara egin. Interneten bakoitzak bere animaliaren bideoak ikusi, bere keinuak, mugimenduak, jarrera... ondo begiratu. Ondoren ikusi duzun ezaugarrietako bat aukeratu: ibileraren erritmoa, burua mugitzeko modua, begirada... Saiatu animalia hori zure modura egiten.
- 2 Ondoren animaliaren soinuak imitatu. Eta jolastu animalia horiek bazinate bezala ibiltzen.
- 3 Taldeko "animalia" guztiak basoan zabiltzatela irudikatu eta denok batera espazioan barrena mugitzen hasi. Animaliekin harremanetan jarri. Gelditu, begiratu, usaindu, ukitu, eta zuen arteko harremana nolakoa izango den eraiki eta antzeztu.
- 4 Animalien hizkera. Egoera jakin bat eman bi edo hiru aktoreri: esate baterako, mahai gainean pastel bat zegoen eta halako batean desagertu egin da. Haietako batek jan egin du, seguru. Haien arteko jarduna inprobisatu, baina bakoitzak aukeratuko duen animaliaren hizkuntzan. Animalia horren soinuak eginez adieraziko du bakoitzak esan nahi duena, baina hitzik erabili gabe.

Gogoratu! Hemen egindako lana antzezlan baten oinarria izan daiteke, eta aurrerago erabili ahalko duzue

Antzerki mota batzuk

2.4. TXOTXONGILOAK



Mundu osoan erabiltzen dira txotxongiloak eta bost kontinenteetan egiten da antzerki mota hau. Hainbat herrialdetan, gainera, sekulako garrantzia du txotxongilo antzerkiak, esate baterako Txinan edota Indian.

Txotxongilo antzerkia oso aberatsa da, ezaugarri eta tankera askotako txotxongiloak daude.

- Teknikaren arabera: eskukoak, harizkoak, makilezkoak, barruan sartzekoak, itzalekoak...
- Materialen arabera: egurrezkoak, oihalezkoak, kartoizkoak, objektu bereziekin eginak...

Oso berezia da aktore batek txotxongilo bati bizia ematen dionean, aktorea desagertu egingo da, nahiz eta eszenatokian egon, bere indar guztia manipulatzeko duen panpinari emango dio. Benetan ederra da txotxongiloak ikusleen arreta guztia nola piztuko duen ikustea!

Txotxongiloak lantzerakoan zuek nahi dituzuen izakiak irudikatu behar dituzue. Materialak aukeratu, pertsonaia zer nolakoa izango den erabaki eta lanera! Txotxongiloa zuek egiteak lotura berezia sortuko dizue pertsonaia horrekiko, eta txotxongiloa mugitzen hasten zaretenean zuen txotxongiloari emozioak pasako dizkiozue, eta txotxongilo horri "bizia" emango diozue. Txotxongiloa aktore izango da eta zuek manipulatzailerik bihurtuko zarete.

Txotxongilo antzerkia egiteak askeago sentiarazteko aukera emango dizue, norberak bere "nitasuna" utzi eta beste pertsonaia batean murgiltzean, zuek "ikustezin" bihurtuko zarete.

Txotxongiloari bizia emateak, izaera bat eman behar zaiola esan nahi du, pertsonaia sortu, ahotsa jarri eta hitz egiteko modua landu.



Tolosan dagoen TOPIC Txotxongilo Museoa txotxongiloen mundura hurbiltzeko aukera paregabea eskaintzen du:

1

Galtzetin bat hartu eta txotxongilo bihurtu: begiak josi, ahoa egin... txotxongiloak probatzen hasi, ahotsa jarri, mugimendua sortu, haiekin harremana eraiki eta azken batean bizia eman.



Ariketak

2. ATALA



2

Plastikozko poltsa bat eta goma bat nahikoak dituzu olagarro itxura duen txotxongilo bat egiteko.

Eskura duzuen edozein elementu bilatu eta txotxongilo bat sortzen saiatu.

Zuen txotxongiloa eskutan duzuela gelan barrena mugitzen hasi.

KRAK! Zarata entzutean...

Gertuen duzun kidearekin hitz egiten hasi, baina zuek ez, **ZUEN TXOTXONGILOAK!** Bere burua aurkeztu eta elkarrizketa sortu. Harremanak eraiki.

KRAK! Jarraitu ibiltzen hurrengo seinalea entzun arte eta...

KRAK! Beste kide batekin elkarrizketan hasi.

3

Norberak bere txotxongiloa egin: eskukoa, hariduna, itzalekoa ala beste edozein motatakoa. Beste material bereziekin ere egin ote daitezkeen esploratu eta asmatu.

Inguruan dituzuen makina bat elementu erabili ditzakezue txotxongiloak sortzeko: botilak, esponjak, zapatak, egur pusketa bat, sartagi bat, erratza, plastikozko edo paperezko poltsak...

Txotxongilo bakoitzaren aurkezpena egingo duzue:

- Egileak bere txotxongiloa aurkeztuko du.
- Txotxongiloak bere burua aurkeztu. Izena eta nor den kontatu. Txotxongiloaren eta zure artean hitz egin. Bakoitzaren izaeratik bien arteko elkarrizketa sortu.
- Txiste bat edo pasadizo xeble bat aukeratu eta antzestu txotxongiloekin.

Ariketak

2. ATALA



Beste txotxongilo mota bat

- Kartoi mehe beltza hartu. Nahi duzun pertsona edo animalia edo gauzaren silueta margotu. Esate baterako, katu bat, sorgin bat, neskatila bat, mamu bat, elefante bat...!
- Kartulina gainean irudiak margotu ondoren, moztu guraitez.
- Makila fin eta luze baten muturra isatsi zeloarekin irudiaren atzeko aldean.
- Itzalen txotxongiloen pertsonaia bat izango duzu, beste antzerki mota bat lantzen hasteko lehen urratsa da.
- Maindire bat zintzilikatu eta atzetik argi indartsu bat jarri. Zuek maindirearen atzean mugitu txotxongiloak... honela benetan itzaletako antzerkia egingo duzue. Indiako hegoaldean antzerki mota hau oso ezaguna da.
- Pertsonaia hauen bidez istorio mordoa kontatu ahal izango duzue, inolako mugarik gabe.

Jolasa

2. ATALA



Txotxongiloak

Pertsonaiak aurkezteko beste modu bat lantzen hasi:

- 1 Behatzaren punta errotulagailu batez margotu:** begiak, ilea, ahoa... eta **TATXAN!!** Pertsonaia hori baduzu, orain bizia eman behar diozu, eta zure beste eskuko pertsonaiekin (behatzekin) harremanetan jarri.
- 2 Eskumuturra itxi.** Behatz erakuslea eta behatz potoloaren artean zulo txo bat geldituko zaizu, ahoa balitz bezala mugitu. Margotu goiko aldean bi begi eta zuloa dagoen lekuan ezpainak. Ikusiko duzu zein txotxongilo xelebrea izango duzun!
- 3 Binaka elkartu.** Bata harizko txotxongiloa izango da eta bestea, berriz, manipulatzailerak. Jolastu elkarrekin. Manipulatzailerak "txotxongiloaren" mugimenduak markatu behar ditu.





TXOTXONGILOEI BURUZKO ERAKUSKETA ANTOLATU

1. Txotxongilo teknika ezberdinak. Lerro batzuetan teknika bakoitzari buruzko informazioa jaso.
2. Teknika bakoitzean egindako txotxongilo baten argazkia bilatu.
3. Senide edo etxekoen artean norbaitek txotxongiloren bat ote duen galdetu. Hala balitz, fitxa bat egin, datu hauek jasoaz:
 - Txotxongiloaren jabearen izen eta abizenak
 - Txotxongiloa nongoa da?
 - Noiztik daukazu?
 - Nola eskuratu zenuen?
4. Material horrekin, gehi zuek egindako txotxongiloekin erakusketa bat antolatu ahal duzue.

BIRZIKLATZE PROZESUA EZAGUTU

Birziklatzeko materialak aztertu eta erabilgarritasuna eman.

Plastikozko botilak, plastikozko poltsak, arrautzen kartoizko kaxak...

Diseinatu birziklatzeko materialekin zure txotxongiloa, antzerkian erabiltzeko proposamenak landu.



Interneten birziklatzeari buruz informazio asko topatuko duzu. Begiratu zure herriko udalak zer egiten duen birziklatzeko.

3



Antzerkia lantzen hasi

Ariketak, jolasak, inprobisazioak... denetarik egin duzue, bai, baina... jende aurrean erakusteko antzezlan bat eraiki nahi duzue, nola ez!

Antzerkia lantzen hasterakoan, batez ere bi aukera dituzue: egile batek idatzitako antzezlan taularatu, edo... taldearen artean garatuko duzuen proposamena sortu.

Modu batera edo bestera, galdera mordoak pilatuko zaizkizue, "zer kontatu nahi dugu? zein da gure helburua? komedia ala drama egin nahi dugu? zerbait salatu nahi dugu? fantasiari bidea eman nahi diogu ala nahiago dugu antzerki errealista egin? musika eta dantzarik nahi dugu? edo..."

Antzerkia talde lana da, eta erabakiak denen artean hartzea komeni da, denen iritziak entzun, eta modu baikorrean lan egin. Lan handia izango bada ere, helburua ondo pasatzea da; hasiera hasieratik denen ideiak partekatu, kideek esandakoa entzun, zure ideiak proposatu, eta eskuzabaltasunez hartu eta eman, inposatu gabe, konbentzitu eta besteen proposamenak onartzu.

Antzerkia lantzen hasteko, muntaia egiteko bururatzen zaizkizuen ideia guztiak jaso. Taldean eztabaidatu. Proposamenen aukerak aztertu... Baina oinarrian, bi erabaki nagusi hartu beharko dituzue: zer kontatu nahi duzuen eta nola kontatu nahi duzuen. Horregatik oso ondo pentsatu eta erabaki behar duzue ze emaitza erakutsi nahi duzuen jendaurrean.

IRAKASLEENTZAKO OHARRA



Prozesuaren fase honetan, irakaslearen laguntza ezinbestekoa da.

Taldeak dituen gaitasunak eta aukerak zeintzuk diren kontuan hartu behar dira emaitza aberasgarria izan dadin, eta ikasleek beren buruarengan konfiantza gal ez dezaten, edota hartu beharreko erabakiak ondo bideratu daitezten.

- Egile batek idatzitako testu bat lantzea erabakitzen baduzue, agian hasieran errazagoa izango da, baina testu hori zuen beharretara egokitu beharko duzue. Batez ere, zenbat aktore zareten kontuan hartu eta testua moldatu partaide kopuruaren beharretara. Ondo aztertu testuak "zer" kontatzen duen, eta zuek "nola" kontatu nahi duzuen.
- Zuek sortutako istorio bat bada, edota ipuin baten egokitzapena, kontuan hartu antzezkiak istorio bat kontatu behar duela baina ekintzen bidez. Hitzak bezain garrantzitsuak dira antzezlanen gertatzen diren gauzak. Jarri zuen sormen guztia dantzan. Hautsi mugak, moldeak, eta topikoak. Gogoko duzuen zerbait kontatu modu erakargarrian eta berezian.

Bestalde, taldean dituzuen baliabideak ere gogoan izan. Baina ez ahaztu zuen irudimenak eta zuen sorkuntzaren orijinaltasunak ez duela mugarik.



Kontuan hartu era berean, zuen lanaren iraupena.

Ez daude bi antzerki muntaia berdin, ezta bi saio berdin ere. Eta hori da benetan antzerki-jolasaren handitasuna. Saio bakoitzean sortzen eta jolasten arituko zarete, "berezia" izango den antzezlan taularatzeko. Hala ere, antzezlan bat eraikitzen hasterakoan, taula gainean "biziko" duzuen horrek zuen arima eduki behar du, zuen gogoia, indarra eta ikusleekin partekatu nahia.

TERESA CALO

ANTZERKIA IDAZTEA

Idazlea istorioak kontatzen gozaten duen hori da. Antzerkian, istorio horiek "mugatuta" daude, leku jakin batean gertatu behar dutelako -eszenatokian- eta denbora neurri batean. Gainera, kontuan hartu behar ditugu erabili ahal izango ditugun elementuak: eszenografia, jantziak, atrezoa, argiak... baina ez ditugu oztopo bezala hartu behar mila modutara erraztu baitaitezke, irudimena erabiliz, jakina! Garrantzitsuenari beti, kontatu nahi duguna aukeratzea da. Guretzat "garrantzitsua" den zerbait izan behar du, hau da, kezkatuko gaituena, jakin-mina piztuko diguna edo ondo pasaraziko diguna, besterik gabe. Eta idazterakoan gozatu egin behar dugu. Idatziko dugun antzezlan hori, emaitza hori, garrantzitsua da oso, baina ez da presaren bidetik etorriko. Sortzerakoan ez da ona izaten presaka ibiltzea, kontatu nahi dugunetik aldendu gaitzake.

Gainera, kontuan hartu, gauza guztiekin bezalaxe, eginaz ikasten dela. Saiatu, ezabatu, aukeratu... eta, berriz ere diot, beti-beti-beti... gozatu.

Antzerki idazlea. Gidoilaria. Aktorea. Antzerki irakaslea.



Nor da Teresa Calo?

Antzerkiak txikitatik erakartzen du, eta hemeretzi urterekin gogotsu hasiko da Orain taldean antzezten. Eta antzeztearekin batera idazten ere hasiko da. Zazpi antzezlan ditu argitaratuta— Horietako lau sarituak izan dira; **Donostia Hiria Saria** irabazi zuen *El día en que inventé tu nombre* antzezlanagatik-. Lan gehiago ere idatzi ditu eta lau antzezlan estreinatu dizkiote, horietako bi berak zuzendu ditu gainera. Gidoilari gisa aritu izan da lanean *Jaun ta Jabe*, *Maité*, *Goenkale* eta beste hainbat telesailarako. *La luz con el tiempo dentro* zinema-gidoia idatzi zuen. Aktoreen prestakuntzan ere hogeita bost urte eman ditu, TAE antzerki eskola sortuz.



3.1. Zer kontatuko dugu?

Zer kontatu NAHI dugu? Galdera honi erantzun behar diozue lehendabizi. Eguneroko bizitzan zerbait berezia gertatzen bazaizue, lagunei kontatu nahi diozue, ezta? Antzerkiaren bidez ere zerbait berezia kontatzeko aukera izango duzue. Gaia aukeratu ondoren, beste hamaika baldintza, kezka, zalantza etorriko dira, eta eztabaida interesgarriak piztu daitezke.

Antzerkia lantzeko prozesuan oso garrantzitsua da, ikastea, entzutea, zalantzak mahai gaineratzea, arriskatzea... sorkuntza prozesuak beti erronka berriak dira! Ez amore eman, taldearen barruan bakoitzari bere lekua eskaini eta errespetuz jokatu, eta batez ere, ondo pasa... Aurrera titiriteroak!

Zer kontatu nahi den, hori da GAIA, antzeztanaren muina.

Eta antzeztana gai hori kontatzeko eta adierazteko erabiliko den BIDEA.

3.2. Konfliktua/gatazka:

Antzerkiaren muinean beti dago arazo bat. Talka egiten duten egoerak, errealitateak, sentimenduak... Tirabira bat, sokatiran bezala, pertsonaia bakoitzak bere nahia, bere asmoa, gogoia edo helburua izango du eta bakoitzak berearen alde nola egiten duen ikusten da antzerkian.

Talka edo gatazka bakoitzaren atzean istorio bat egongo da, pertsonaia batzuk, egoera bat... eta guzti hori kontatzeko bidea eraiki behar duzue.

Esate baterako, ezberdinen arteko maitasunaz hitz egin nahi baduzue, alegia, bi gazteren arteko ezinezko maitasunaz, hor dago *Romeo eta Julieta*, William Shakespeareren antzeztana.

Bi familia haserre bizi dira, familia bateko mutilak eta beste familiako neskek elkar ezagutuko dute eta biak zeharo maitemindu egingo dira. Baina maitasun horrek ezin du aurrera egin. Ihes egiten badute harrapatu, zigortu eta banatuko dituzte. Horregatik, bere gertuko adiskide diren zaindari eta apaiz baten laguntzaz, plan bat prestatuko dute. *Julietak* burutuko du plana eta mezulari bat bidaliko dio *Romeori*, asmatu duen planaren berri emateko. Hil itxura emango dion edabe magiko bat edango du *Julietak*, familiak hilik dagoela pentsatuko du, baina ehortzi ondoren, esnatuko da.

Gauzez *Romeo* bere bila etorriko da eta biek batera ihes egingo dute. Inor ez da haien bila joango, eta aske izango dira bi maitaleak. *Julietak* mezularia bidali du *Romeorengana*, baina... ez da iritsiko!

Romeok bere maitea hil dela entzungo du, kaperara joango da eta hilik ikusten duenean, minaren minez bere buruaz beste egingo du. Amaiera jakin nahi?... Irakurri ezazue antzeztana. Ederra da benetan.

Baina ez baduzue halako tragediarik kontatu nahi, badira beste hamaika antzeztan maitasunaren zailtasunak kontatzen dituztenak.

Antzeztana zuek idatzi behar baduzue, taldearen artean gaia erabaki, kontakizuna sortu, egoerak landu eta elkarrizketak idatzi. Zuei gertatutako zerbait izan daiteke oinarria, ala historiako pasarte bat, ala egunkarian irakurritako pasadizo bat, edota erabat asmatutako kontua... hainbat istorio daude kontatzeko!

Hasera honetan, antzeztan interesgarria baina erraza prestatu, ederra baina sinplea eta denboraz luzeegia izango ez den lana. Antzerkiaren munduan murgiltzen ari zarete, eta gozatu!

3.3. Nola kontatuko dugu?

Hurrengo erabakia, zuen istorioa kontatzeko zein genero erabili nahi duzuen jakitea da: komedia, drama... Emozioak dantzan jartzeko, barre eginarazteko...

Komedia antzezlan umoretsua da, pertsonaiak modu xelebrean saiatuko dira behar dutena lortzen, egoera bitxiak biziko dituzte, ezustekoz beteak.

Antzerki dramatikoak, berriz, arazo latz edo larri bat planteatzen du. Batzuetan amaiera baikorra izango du, edo amaiera "ona"; baina beste askotan ez du, ikusleek nahiko luketen amaiera zoriontsurik izango. Hala ere, batzuetan, tragediak modu umoretsuan ere antzeztu daitezke. Zergatik ez?

Bestalde, antzerkia antzezterakoan, modu ponposo batean egin daiteke edota modu errealistan: gure eguneroko bizitzatik gertu eta identifikagarriak diren pertsonaiak taularatuz.

Baina irudimena aske utzi eta fantasiako antzerkia ere egin daiteke, pertsonaia fantastikoak sortuz.

Antzerkian ez jarri irudimenari mugarik. Sortu, jolastu, gozatu, partekatu... zuek ondo pasa eta ikusleek ere tarte ahaztezina pasa dezaten.



Ariketak

3. ATALA



- 1 Binaka elkartu eta batak besteari interesatzen zaion arazoa azaldu. Eta arazo horri buruz elkarri galderak egin:

- Zergatik?
- Nola irudikatzen duzu?
- Zein da helburua? eta...

Ondoren bakoitzaren ideia post-it batean idatzi. Talde osoa elkartzean, post-it guztiak bildu, irakurri eta denen artean partekatu.

- 2 Jorratu nahi den gai horri buruz antzezlan bat idatzita ote dagoen bilatu. Edo antzerkira moldatu daitekeen libururen bat ote dagoen ikusi. Edo agian, eta hala erabakiz gero, talde lanean sortzeko bidea hartu.

a) Ideia nagusia idatzi

b) Pertsonaien zerrenda egin

c) Eskema egin: hasiera, korapiloa eta amaiera

3.4. Talde lana bideratzen hasi: helburuak zehaztu

Erabaki hauek guztiak hartu ondoren, antzezlan topatu edo zuek idatzi behar baduzue, hasi lanean.

a) Antzezlan topatu:

Oraindik ez duzue aurkitu? Etxean zein antzezlan ezagutzen dituzten galdetu. Bilatu zuen liburutegian. Bilatu interneten. Partekatu zuen informazioa antzerkia egiten duten beste ikasleekin.

Topatu duzue? Primeran!, Eta zenbat aktore arituko zarete? Agian pertsonaia bat, bi aktoreen artean egin daiteke, edo alderantziz... Hasi moldaketak pentsatzen.

Agian testua laburtu beharko duzue, edo eszenaren bat erantsi. Edo pertsonaia baten papera talde batek antzetz dezake, Greziako antzerkian egin ohi zen bezala, edo...

b) Talde sorkuntza:

Antzezlan taldekideen artean burutzen hasi zarete? Bikain! Zuen lana finkatzen hasteko inprobisazio txikiak egiten hasi. Gustukoak dituzuen egoeretatik hasi, eta inprobisazioetan sortu diren egoera egokienak jaso. Horrela antzezlan zuen asmo eta neurria sortuko duzue!

ANA PIMENTA

Antzerki ekoizpena antzezlan bat aurrera eramateko behar diren ekintza guztiez arduratzea da: ikuskizun bat egingo dela erabakitzen denetik, estreinatzen den arte. Jarduera asko barne hartzen ditu. Ekoizpenaren ardura da gauza den-denek ondo funtzionatzea. Ekipo guztiak koordinatzen ditu: artistikoa (egilea, zuzendaria, aktoreak, eszenografia, jantziak, musika, argazkia, bideoa, kartelaren diseinua...), teknikoa, bulegoa (nominak kudeatu, fakturak ordaindu, soldatak, eta abar).

Produkzioaren prozesuan momentu desberdinak daude:

Lehenik, aurrekontua, ideia, testua, eta epeen arabera **produkzio diseinua** egiten da. Lan hori produkzio zuzendaritzari dagokio. Ondoren, lehen aipatutako talde artistiko guztiekin hitz egiten hasi behar da. Epeak aztertu (entseguak etab. antolatzeke) eta atal bakoitzari behar dituen baliabideak eskuratuko zaizkio. Oso garrantzitsua da ekoizpenerako dugun aurrekontua ez gaintitzea.

Ekoizle exekutiboa da diseinatu den hori guztia gauzatzen duen pertsona. Eta aurrekontua ez gaintitzea ere zaindu behar du. Gure hizkeran, "produkzioa" da zulo guztiak estali behar dituen. Eta egia da. Fase horretan sortzen diren arazo

guztiak "produkzioak" konpondu behar ditu, trebetasun handiarekin, patxadaz, baina tinko, dena pikutara joan ez dadin.

Taldeak koordinatzeaz arduratzen da, entseguetara joan, erostetak egin... Lan asko egin behar da, batzuetan ikusten ez diren lanak, baina behar-beharrezkoak direnak. Gure motorra pasioa, ilusioa eta egiten dugun horretan konfiantza izatea da. Eta TALDE lana. Ekoizpen bat diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko faktore erabakigarri bat dago, eta gu saiatzen gara hura ez ahazten: publikoa. Ondo definitu behar dugu zer nolako publikoarengana jo nahi dugun, zein adinekora.

Ikusleak antzezlan amaitu eta kalera ateratzen direnean, obrari buruz hitz egiten jarraitzea nahi dugu, baina, batez ere, sartu zirenean ez bezala ateratzea: denbora alferrik ez galdu izana; eta barre egin izana, hunkitu izana, sinesmenak zapuztu izana, pertsonaia horiei buruz gehiago jakin nahia eta Interneten bilatzeko gogoia piztea -garai horri buruz, istorio horri buruz...-

Eta, batez ere, ANTZERKIRA itzuli nahi izatea...

Vaiven antzerki taldeko ekoizlea



Nor da Ana Pimenta?

Aktorea, dantzaria eta ekoizlea.

Ur konpainiaren sortzailea, haiekin *Hamlet* ekoitzi zuen. 1998an VAIVEN taldea sortu zuen eta besteak beste, *Lotsagabeak*, *La Corage*, *A cuestras con Murphy*, edo *Treblinkara azken tren*, antzezlan arrakastatsuek produkzitu ditu. Vaiven antzerki taldea Euskal Herriko konpainia garrantzitsuenetariko bat da. 20 urte baino gehiago darama ekoizpen lanetan. Sari ugari jaso ditu.

1 Stand-up moduko bakarrizketa laburrak landu.

Gaia pentsatu. Zuri edo familiari gertatutako pasadizo barregarria bada, hobe. Egokia den tonua eman kontakizunari eta kontatzeko modua ere landu. Garatu kontakizuna:

- a. **Hasiera:** Zer kontatu behar duzu kontakizuna kokatzeko?
- b. **Korapiloa:** Zein da gakoa? Arazo potoloa?
- c. **Amaiera:** Ikuspuntu berezia landu, espero ez den amaiera bat. Ezustekoa.



2 Pasadizo bat kontatu, baina amaiera baino lehenago eten kontakizuna.

Ondoren ikasleek kontakizunari amaiera eman behar diote. Irudimena eta sormena landuz. Ikuspuntu "berezia" eta espero ez dena planteatuz.

Ariketa berdina egin daiteke ipuin tradizional laburrekin.

Edo serieetan agertzen diren egoera xelebreekin, planteamendua kontatu eta haiek amaiera eman diezaiotela.

3 Kantu bat aukeratu. Esate baterako, *Maritxu nora zoaz?*

Eta biren artean antzeztuko duzue. Baina... aldi bakoitzean egoera ezberdin baten baldintzapean:

- Atzerritarrak zarete eta hitzen bila zabiltzate
- Festak dira, eta parrandan
- Beldurrezko egoera batean
- Erabat maiteminduta

- Bata lotsatuta eta bestea lotsagabe. Edo alderantziz
- Bata haserre eta bestea jostalari. Edo alderantziz
- Iragarki bat egiten ari bazinate bezala

- Jendeari barre eginaraziz
- Zuen lagunik hoberena hil da eta iturria pozoitua balego bezala.
- Broadway-eko musikal bat balitz bezala *etab... etab... etab...*


Ariketak

3. ATALA



Ariketak

3. ATALA



Begiratzeko ikasi

1 Gelan dagoen elementu bat begiratu.

Zuetako batek **ONDO** begiratu eta aztertu bere ezaugarri guztiak: kolorea, forma, zer duen apurtuta...

Gero taldekideek galderak egingo dizkizute objektu horri buruz, zure begirada zehatza ote den proban jartzeko.

2 Musika jarri.

Taldeko batek egiten dituen mugimenduak taldeko beste kideek jarraitu behar dituzte. Gorputz osoa mugitu.

3 Taldeko guztiek elkarri begiratu behar diote.

Erreparatu ahal dituzuen elementu gehienak gogoan hartu. Kanpora bira eman elkar ez ikusteko, eta zuetako batek beste kide baten izena esango du, eta honelako galdera luzatuko dio: "A-ren galtzak ze koloretakoak dira?". Jolas hau modu askotara molda dezakezue.



Sentitzen ikasi

- Begiak itxi eta entzun inguruko zaratak.
- Begiak itxi eta ukitu objektu bat.
- Begiak itxi eta eskura dituzun hiruzpalau gauzen usaina sentitu.
- Begiak itxi eta jateko mokadu txiki bat hartu (ogia, goxoki bat...) eta zaporea sentitu.
- Begiak itxi eta gogoratu goizean ikusitako objektu bat, oso modu zehatzean. Gogoratu gosaldutakoaren zaporea...

Irudimena lantzeko ariketa

- Keinu bat egin kideen aurrean, eta zer egiten ari zaren asmatu behar dute.
- Zuen inguruan dagoen objektu bat hartu: aulki bat, esate baterako, eta zein erabilera desberdin eman asmatu. Istorio absurdo bat eraiki aulkiaren inguruan: koetea, maleta, altxorra... Eman bide zuen irudimenari!
- Bakoitzak objektu bat hartuko du, eta ez dagokion erabilera eman. Esate baterako: liburu bat txori bihurtu, edo edalontzi bat katalaju, edo zapata itsasontzi... Bakoitzak erabilera ezberdina eman objektuei.

Fitxak

3. ATALA



KOMEDIA

- Zein da komediaren helburua? Bere bi edo hiru ezaugarri nagusiak?
- Nolakoak izan ohi dira pertsonaiak?
- Nor da Antzinako Grezian komediaren aitzindari?
- *Lisistrata*ren laburpen txiki bat egin.

DRAMA

- Zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak?
- Drama erromantikoa, drama soziala, drama epikoa... Zertan oinarritzen dira?
- Seguruenik, historian zehar, *Hamlet* izango da pertsonaia dramatikorik antzeztuena. Bere bakarrizketa ospetsuko lehen esaldiak eskuratu. Zertaz ari da?

Antzezlanik egokiena denen artean aukeratzeko bide bat: hiru antzezlari proposatu taldeari. Antzezle kopurua eta interesatzen zaizuen gaia kontuan hartuz. 3 talde txikitan banatu eta talde txiki bakoitzak bat irakurriko du. Ondoren talde txiki bakoitzak bere lanaren alde edo kontra egiteko arrazoiak talde guztiaren aurrean arrazoitu.

1. Alaitz Olaizola, Enkarni Genua, Jokin Oregi, Amancay Gaztañaga, Yolanda Arrieta, Patxo Telleria, Aizpea Goenaga... eta beste hamaika euskal antzerki egileren testuak edota **www.mikelmartinez.eus/teatrotestuak** webgunean dauden testuetako bat eskuratu dezakezue. Edota klasiko baten moldaketa ere egin dezakezue.

2. Interesatzen zaizuen gaia, papertxoetan idatzi, eta denen artean eztabaidatuko dira proposamen guztiak:

- Boto gehien dituen gaiaren inguruan galderak egiten hasi.
- Interneten, egunkarietan, liburuetan... bilatu. Gaiari buruz, gai horri lotutako pertsonaiei buruz, etab.
- Zenbat eta galdera gehiagori erantzun, are eta errazagoa izango da antzezlana eraikitzekeko puntu konkretua topatzea. Gaia handia bada ere, gure antzezlenerako motorra oso gauza txikia eta xumea izan daiteke. Esate baterako, gerrari buruz hitz egin nahi dugu, baina agian ume batek bere panpina galdu duela kontatuko dugu, gerraren testuinguruan.

Ekimen eszenikoa

3. ATALA



Prestatu ezazue telebista kate oso bat.


Egizue Teleberria berri xelebreekin, eta eguraldiaren berri ere eman. Ondoren iragarkien tartean iragarki bat prestatu eta antzeztu. Eta nola ez, elkarrizketa programa bat edo gogoko duzuen beste programa bat sortu. Musika saioak, etab...

Telebista kate honen gorabeherak antzerki bat egiteko aukera emango dizue.

Gora Teloia!



4



Antzezlanana eraikitzen

4.1. Inprobisazioak

Idea bat edo antzezlaneko testua lantzeko prozesuan ematen diren egoerak oinarri hartuta, inprobisazioak egitea proposatzen dizuet. Bi aktore edo gehiagoren arteko inprobisazioak. Zuen sormena garatzeko jolasa da eta egoerara hurbiltzeko aukera. Inprobisazio hauetan, bat-batean zuek erantzun beharko diozue zuen kideari, azalpenak eman, borrokatu, alegia, zuen helburua lortzeko bidea egin. Eta nahi gabe pertsonaietara eta antzezlanaren muinera gerturatzen joango zarete.

Inprobisazio horiek antzezlanean gertatuko diren egoerekin harremana izan beharko lukete, eta pistak emango dizkizue, ondoren sortuko duzuen antzezlanerako.

Inprobisazioak egiteko beharrezkoa da aurretik lan egitea. GATAZKA zein den jakin behar dugu, eta egoera prestatu behar da, zer nahi duen pertsonaia batek lortu eta zergatik ez dion emango beste pertsonaiak.

Sortu behar da egoera: non eta noiz gertatzen da? Eta zeintzuk dira pertsonaiak? Zer egiten dute egoera horretan? Zergatik daude hor?

Oso garrantzitsua da taula gainean ari direnen lana, baina baita lan hori ikusten ari direnen arreta ere, baliagarriak diren ekarpenak jasotzeko. Eta inprobisazioetatik ateratzen den material "ona" edo interesgarria finkatu eta talde lanean sortutako antzezlanean txertatzen joan zaitezke. Edota testu-antzezlanera gehitu daiteke. Edo bere horretan

esketch bat bezalaxe txukundu, behin eta berriz entsegatu, eta... beste esketch gehiagorekin antzezlanana osatu! **Eta Gora Teloia!**

Hauek dira antzerki inprobisazio bat egiterakoan ezinbestekoak diren oinarriak:

1. Protagonista **A** - Antagonista **B**.

Bi pertsonaia. Batak zerbait nahi du. Besteak, berriz, ez dio eman nahi. Nor da eskatzailea eta nor da hari aurre egingo diona. Nahi dituzuen pertsonaiak sortu. Jolastu.

2. Nahia. Gatazka.

Hau da inprobisazioaren muina. Zer nahi du protagonistak? Edo zer behar du? Eta zergatik beste pertsonaiak ez dio eman nahi? Zergatik egiten dute talka pertsonaia hauek?

3. Premia larria.

Presa. Lehenbailehen lortu behar du bere helburua. Bizkor. Ezin da luzatu: Zehatza eta laburra behar du izan jolas honek.

4. Helburua lortzeko beharra.


Garrantzi eta behar handia eduki behar dute bi pertsonaiek.

Esate baterako, pertsonaia bat ama da, eta beste pertsonaia neska gazte bat. Amak telefonoa kendu dio alabari, eta telefonorik gabe zigortu du. Neska dago mutil batekin maiteminduta, eta mutilak mezu bat bidali dio neskari, eta ez badio erantzuten, berarekin atera nahi ez duela pentsatuko du. Neskak telefonoa behar/nahi du, gogo handiz gainera. Eta amak ez dio itzuli nahi ikasketetan sekulako porrota egin duelako, eta hori adostu duelako bere irakaslearekin.

Kasu honetan, protagonista **A** NESKA da eta antagonista **B** AMA. Nahia, telefonoa lortzea da. Presa du mutilak mezua bidaliko diolako. Mutilarekin maiteminduta dago eta harremana hasi ala ez dago jokoan.

Kokapena: etxeko egongela, edo kotxea, biak autoan eserita.

Horrelako hamaika egoera pentsatu eta antzestu ditzakezue.



IKASLEENTZAKO OHARRA

Zein gaien inguruan inprobisatu?

Amaigabeko zerrenda egin daiteke: guraso-gazteen arteko tirabirak, mitologiako pertsonaien arteko kontuak, mugikorren erabilera, gerrak, "desberdin" izatearen arazoak, errefuxiatuen arazoak, eguneroko bizitzaren gorabeherak, fantasiazko ipuinak, bulling-a...

Ahotsa landu

Taula
20.
orrialdean

Ahotsa berotzeko ariketak

Ahotsa gure arnasak ahots-kordak birbratzen dituenen ateratzen dugun soinua.

1

Arnasketak

- Lurrean etzanda, belarnek tolestuta, arnasa sakon hartu, eta haizeak birrikak, diafragma eta sabela nola betetzen dituen sentitu. Ondoren haizea gorde (5 zenbata). Haizea polki bota, lehendabizi, sabela hustu gero diafragma eta birrikak.
- Eskuak saihetsean jarri eta aldeetara puztu birrikak.
- Kandelak bat piztu, eta polki-polki baina gelditu gabe haizea bota kandelari. Ez itzali kandelaren sua.

2

Erlaxazioa

- Etzanda edo eserita, arnasketak ariketak egin. Bitartean ahoa zabaldu mingaina eta matrail hezurra erlaxatu.
- Aaaa... soinua egin arnasa botatzean. Ahalik eta denbora gehien iraun behar du soinuk etenaldirik gabe.

3

Ahotsaren proiezioa: bota soinua luze eta urrutira

- Aaaa... edo Sssss... erabiliaz, soinua eskuarekin bujizatzuko bagenu bezala, ateratzen dugun soinua hori urrutiera bidali, indarrak galdu gabe, haizea neuri berdinan mantenduz (gorabeherarik gabe).
- Esaldi bat gettu dagoen bati esan eta ondoren gelaren beste muturrean dagoen beste kide bati. Kontua ez da garraska hitz egitea, proiektatzea baizik. Horretaz jabetu.

4

Ahoskera

Arkatza ahoan jarri, eta koska egiten diozun bitartean aho korapilo bat esan ulertzeko moduan, esate baterako:

Hara hemen zerbat
biribil-biribila!
Zer ote da?
Zer ote da?
Behi baten
kaka pila!

5

Modulazioa eta doinua


Ahotsaren adierazgarritasuna landu. Testu edo esaldi bat hartu eta alderdi hauek landu:

- Enfasia eta azpimartatzea: irakurri testua hitz jakin bat edo batzuei indarra emanaz, eta isiluneen garrantziak jabetu.
- Monotonia: esaldia inolako intontziorik gabe irakurri. Pozik, belduruta, presaka, logalez, etab.
- Esaldien azken hitzak ondo entzutea beharrezkoa izaten da, horregatik testu bat irakurri bereziki esaldi bakoitzaren azken hitzak azpimarratuta.
- Hitzak arrapoladan esateko joraren aurka hitzak ahoskatu eta mastekatu irakurri testua, hitz bakoitzaren ondoren geldi une bat eginez.

6

Intentzioa lantzeko ariketa

Taldean. Bakoitzak txartel bat hartu; bertan egoera bat idatzita dago. Asmatutako hizkuntzan, bakoitzak txartelean dagoena adierazi behar diozue zuen kideei. Taldekideek zer esan nahi duzun asmatu behar dute.



64

Ahotsaren nolakotasuna landu

Saiatu zuen testua ahots ezberdinez esaten: urratua, sudurrekoa, lodia, agudoa...

Inprobisazio ariketak pertsonaiak lantzeko:

Ariketak

4. ATALA



1

Karta batzuk prestatu zenbaki batzuekin:

1 etik 10era. Zenbaki bakoitza izaera bat da.

1 zenbakiak oso pertsonalitate ahula, makurtua, beldurtia, adierazten du.

10 zenbakiak, berriz, izaera indartsu eta agintaria.

Bien arteko jokoa: neska-mutilek karta bana hartu eta zenbakiaren arabera egin behar dute egoera jakin bati buruzko inprobisazioa (gaiak: guraso eta seme-alaben arteko eztabaidak, udaltzaina eta skater baten artekoak...)

3

Kolore zuriko kartetan pertsonaiak idatzi: urduria, pasota, ergela, haserre bizikoa, maitagarria, pijo...

Kolore gorriko kartetan emozioak: haserre, pozik, hunkituta, triste, minduta, beldurtuta, harrituta...

Aktore bakoitzak bi karta hartu behar ditu eta horiekin egoera jakin batean bi alderdi horiek erabiliz, bere pertsonaia landu.

Egoerak: autobus geltoki batean ez datorren autobusaren zain, musika talde gogokoenaren sarrerak erosteko ilaran zain eta zain...


2

Kartak egin:

Karta bakoitzean tailerreko partaideek pertsona ezagun baten irudia itsatsi edo izena jarri.

Adibidez: 1: lehendakaria, 2: Ainhoa Arteta, 3: zure herriko alkatea, 4: Garbiñe Muguruza, 5: Aita Santua, 6: Aitziber Garmendia, 7: Donald Trump, etab.

- a. Jolas honetara ateratzen den neskak edo mutilak pertsonaia horren imitazioa egin behar du, pasadizo bat kontatzen duen bitartean. Esate baterako: telebista kate baterako galderi zuzenean erantzun behar diozue "futbola rollo bat dela kontatuz" eta hartu duzun kartako pertsonaia imitatu.
- b. Edota aipatutako inprobisazioetan, amak alabari telefonoa kentzen dion inprobisazioan, esate baterako, amak 6. gutuna hartu du (Aitziber Garmendia) eta alabak 2. (Ainhoa Arteta). Egin inprobisazioa pertsonaia horiek zareten plantak eginez (izena ez da esan behar). Eta erabateko imitazioa egin baino, imintzioa da, pertsonaia hori gogoan eduki.



Ariketak

4. ATALA



Inprobisazio ariketak gaiak lantzeko:

Honelako inprobisazioetatik ere antezlanerako materiala eta ideiak atera ditzakezue.

Inprobisazio hauek egiteko, hasi baino lehen oso ondo pentsatu zer eskatu behar diozun beste pertsonari, eta behar/nahi duzuna lortzeko estrategia ondo pentsatu, irudimena lanean jarri, eta jakina, presa eduki behar duzu.

- a. Aurreko saio batean gai zerrenda luzea atera zenuten. Gai horietako bat hartu eta egoera jakin batean kokatu: autobusaren paradan, sendagilearen itxaron gelan, egongela batean, ikastolako zuzendariaren bulegoan...
- b. Eman dezagun: **A** pertsonaia plazako zuhaitz bat moztu eta botatzera dator. **B**-k ez du zuhaitza botatzea nahi. **B** zuhaitzera kateatuko da.
- c. Gaia aukeratu ondoren, pertsonaien xehetasunak adostu: anai-arrebak dira? Edo irakaslea eta ikaslea? Edo...
- d. Eta guztia argi dagoenean hasi inprobisazioarekin, bakoitzak nahi duena lortzeko ahalegina egin behar du, eta irtenbide bat bilatu amaieran: adostasuna ala haustura.

Inprobisazioaren ondoren oso interesgarria da egindakoari buruz hitz egitea, eta jolasean atera diren gorabeherak aztertzea.



4.2. Testu antzezlana:

a

Testua aukeratu duzue. Primeran! Hala ere, testu horri buruz zuen iritzi kritikoa garatzea garrantzitsua da, taldeak testu horri bere ikuspuntua eta interpretazioa emateko. Eta behin eta berriz irakurtzearen bidez testuak dituen "koloreak" eta esanahiak bilatzea komeni da.

Gogoratu, askotan testu berbera modu komikoan, edo dramatikoan interpretatu daitekeela. Emango diozuen ikuspuntuan dago gakoa.

Saiatu zaitezte topikoak hausten! Zerbait berria eta berezia egiten.

Zuen sorkuntzari marka berezia erantsi: inprobisazioetatik jasotako esaldi edo egoera bat, maskararekin azalduko diren pertsonaia batzuk, musika eta dantza ere sartu ahal duzue, taldean zareten aktore kopurura egokitzeko sortu edo moldatutako eszena berriak sartu, edo zuen esanahia txertatu, etab. Alegia, testua zuena egin.

Antzerki testua esku artean duzue, eta... ikusiko duzuen bezala, antzerki testu bat modu konbentzionaletan forma aldetik honela banatzen da:

- **Ekitaldia:** gehienetan, ekitaldi bakoitza leku eta momentu jakin batean gertatzen da.
- **Eszena:** ekitaldi barruan, leku berean gertatzen da, baina pertsonaien aldaketa dagoen bakoitzean eszena aldatzen da. Pertsonaia batzuk sartu, edo besteak ateratzean gertatzen den egoera berri hori eszena bat da.

Antzerki testu baten garapena, hiru zati nagusitan banatzen da (12. orrian aipatu bezala):

PLANTEAMENDUA

Zer, non, zein pertsonaiek hartuko duten parte... antzezlana ulertzeko beharrezkoa den guztia adieraziko da.

KORAPILOA

Arazoa korapilatzen joango da, eztanda egin arte. Hau klimaxa edo antzezlanaren gailurra izango da.

BUKAERA

Eztandaren ondorioz gertatutako guztiaren ondorioak azalduko dira.

Ariketak

4. ATALA



Testuarekin jolasean:

- 1 Testuaren eszena edo zati bat irakurri.
- 2 Aurreko testu bera beste modu batean irakurri: dramatikoa den testua umorez irakurri, neska baten pertsonaia mutil batek egin, etab. Testuarekin jolasten hasi.

Ahotsa proiektatzeko ariketak:

- Denak gorrak zarete. Ez duzue piperrik entzuten eta testua oso ozen esan behar duzue.
- Imaginatu futbol zelai erraldoi batean zaudetela eta azkeneko lerroan dagoenak entzun behar zaituztela. Zuen izena esan ahalik eta ozenen. Ez garrasika... baizik eta ozen. Eta kontuz, ahotsa proiektatzeak ez du haserre hitz egin behar duzunik esan nahi.
- Esaldi bat hartu, eta normal hasi eta gero eta ozenago esan. Adibidez:

Mamuek beldurtu egiten naute eta ez ditut ikusi nahi

Telebistako aurkezlearen ariketa:

Kamera batek grabatzen zaituzte, eta ikusleak kamerak duen objektiboaren atzean daukazue. Publikoari zuzenean hitz egin. Zertaz? Eskolako kronika, eguraldiaren berri... Baina saiatu beti zuen "ukitu berezia" ematen.

- Oso ondo finkatu non kokatu zuen begirada. Begirada hori ez duzue galdu behar.
- Nori hitz egiten diozue? Aukeratu entzule jakin bat (Ama, izeba, lagun bat...).

HD

00:00:00



REC

b

Testua lantzeko urrats batzuk:

Testuarekin lanean hasi zarete. Badakizue zein den zuen antzezlanaren muina eta zer kontatu nahi duzuen. Primeran! Baina pertsonaiak banatzen hasi baino lehen zuen artean hitz egin, eztabaidatu zer gustatzen zaizuen eta zein akats ikusten dizkiozuen antzezlanari, zer hobetu daitekeen...

Antzezlanaren irakurtzen dugunean testuaren esanahia ondo ulertzea ezinbestekoa da. Baina agerian dagoen esanahiaz gain, azpian dagoen zentzua ere bilatu testuan.

Zalantzarik gabe aurrera egiteko testuaren hitz, esanahi eta egoera guztiak ondo ulertu behar dituzue. Eta ulertzen ez duzuen hitza hiztegian begiratu edo galdetu. **Ulergaitzak diren hitz, esaldi edo egoerak argitu.** Nola kontatuko duzue istorio bat ez baduzue zerbait ondo ulertzen?

Zuen lanarekin, zuen sormen eta ekintzekin testuan dagoen kontakizuna aberastu behar duzue. Hori da helburua.

Aberastu.



ANTZEZLANA NOLA LANDU:

• Testuaren irakurketa

- Antzezlanaren testuinguru historikoa aztertu: zein antzezlan mota den eta zein emanaldi mota egin nahi duzuen erabakitzen lagunduko dizue.
- Antzezlanaren hasieran pertsonaien zerrenda dator. Pertsonaia bakoitzari aurpegia jarri, horrek asko lagunduko dizue antzezlanaren irakurtzerakoan.
- Dagoeneko jakin badakizue zein den antzezlanaren tonua, zer kontatzen duen, zein den lanaren helburu nagusia, etab. Horrek antzezlanaren modu egokian irakurtzen lagunduko dizue.
- Taldekide guztien artean irakurri behar baduzue antzezlanaren lehen aldiz, komeni da denok aurrez aurre eseri eta elkar ikustea. Poliki irakurri. Eta lehen esan bezala, ulertzen ez dituzuen hitzen esanahia hiztegian bilatu.
- Zuetako norbaitek "akotazioak" irakurri. Akotazioek antzezlanaren kokalekua deskribatzen dute, baita ekintzak edo gertatzen diren gora-behera guztiak.
- Testua ozen irakurtzean bizia eman behar diozue pertsonaiei, bihotza jarri eta sormena erantsi.

• Pertsonaien banaketa

Ez da lan erraza. Denek nahi dute pertsonaia inportante bat antzeztu, baina antzerkian esan ohi den bezala "ez dago pertsonaia txikirik, aktore handiak baizik", alegia, berdina da pertsonaia handia edo txikia antzeztu behar izatea, ondo pentsatu nola egingo duzuen eta gozatu! Antzerkiaren munduan denontzat dago lekua, eta denok zarete beharrezko.

• Ardura banaketa

Antzerkian aktore lanaz gain, beste hamaika zeregin dago. Oraingoan, **zuzendaria** eta **zuzendari laguntzailea** nor izango diren erabaki. Beste lanen banaketa ondoren zehaztuko duzue.

AITZIBER GARMENDIA

PERTSONAIK SORTZEN

Pertsonaia sortzeko garaian imitazioz jokaten dut normalean. Ez dut esan nahi pertsona konkretu bat imitatzen dudanik, pertsona ezberdinen ezaugarriak biltzen joaten naizela baizik. Horretarako lehenengo pausua: begiratzea. Kalera irten eta begiratu, nola barre egiten duen neska horrek, nolako begirada duen ume honek, nola hitz egiten duen gizon hark... Gero jasotakoaren artean "collage" moduko bat egiten dut, baliagarri izan zaizkidan ezaugarriekin, irudimenean nuen pertsonaia hezur-haragizko bihurtu arte.

Garrantzitsua iruditzen zait pertsonaia emozionalki prestatu aurretik fisikoki prestatzea, portaera fisikoak beti laguntzen didalako ondoren portaera emozionalera edo psikologikora iristen.

Behin oinarri hori dudanean, hurrengo pausua pertsonaia hori sinestea da, barneratzea; testu batekin zein inprobisatze batekin betidanik ezagutzen dudan norbait naizela sinestea. Eta garrantzitsuena, jolastea, beldurrik gabe jolas egitea.



Nor da Aitziber Garmendia?

Zaldibin jaio eta ikastolan hasi zen antzerkia egiten. 19urterekin Martin telesailean hasi zen lanean. Telebistan, zinean, eta antzekian lan ugari egin ditu, 25 antzezlan baino gehiago taularatu ditu. Aktore aparta, komedian bereziki ezaguna bada ere, edozein pertsonaia sinesgarri eta maitagarri egiten ditu.



Gorputz beroketa

Lanean hasi aurretik beroketa taula egin.

Itsuaren jokoa

Talde osoa espazioan banatu.

Denek begiak itxi. **Ez ireki begiak!** Eta arduradun batek esandakoan poliki-poliki ibiltzen hasi.

Arduradunak egoera batean zaudetela esango du, esate baterako, baso eder baten erdian zaudete, eta ibiltzen jarraituko duzue, eta halako batean euria hasiko du. Sentitu euria, baina halako batean euri zaparradak busti egingo zaituzte. Asko. Blai zaudete, oinetakoak blai, kamixeta busti-busti eginda... zuhaitz baten azpian babestuko zarete. Euria gelditu da eta norbaitek sua piztu du, sutondoan jarri eta berotuko zarete, eta usain ederra dator... etab... etab...



Ahotsa landu

- 1 **Arnasketak** egin
- 2 **Erlaxazioa.** Gorputzetik tentsioak kanporatu
- 3 **Ahotsa berotu:** Brrrrr... brrrrr... luzeak eta ozenak egin. Ma-me-mi-mo-mu... ozenak eta kantatuak egin.
- 4 **Modulazioa eta doinua:** Ahotsaren adierazgarritasuna landu. Esaldi luze bat aukeratu, buruz ikasi eta ozenki esan. Esate baterako: **baga biga higa...**

→ Aldi bakoitzean modu ezberdin batean esaten saiatu.
Aldi bakoitzean hitz desberdin bat azpimarratu:

Baga, biga, higa,
laga, boga, sega,
Zai, zoi, bele,
harma, tiro, pun!

Xirristi-mirristi.
gerrena plat,
Olio zopa, Kikili salda,
Urrup edan edo klik ... ikimilikiliklik

→ Azken hitzak janda uzteko joera saihestu: saiatu zure azken hitzei indar berezia ematen:

Baga biga higa

→ Hitzak arrapaladan esatea saihesteko, esaldiko hitz bakoitzaren ondoren, pentsatu (ez esan) bat hitza:

Baga (BAT) biga (BAT) higa (BAT)...

Ariketak
4. ATALA



4.3. Entseguak:

ANTOLAKUNTZA. LEHEN URRATSAK.

Buru-belarri hasi zarete lanean. Zorionak. Hala ere, oraindik asko dago egiteko, horregatik ondo antolatu behar duzue egin beharreko guztia.

Talde guztiaren artean plangintza bat egin, plangintza denok onartu eta errespetatu behar duzue.

Lan ardura hauek banatu behar dituzue:

- **Zuzendaria**

Berak landu behar du antzezlan, eta bere zeregina da antzezlan bide onetik eramatea. Erabakiak hartu, antolakuntza egin, eta aktoreen lana zuzendu. Duela urte batzuk arte, zuzendaria taldeko aktore bat izaten zen. Gaur egun gehienetan ez ditu bi lanak egiten. Baina hori zuen esku dago.

- **Zuzendari laguntzailea**

Zuzendariarekin adostutakoak partekatzen ditu: informazioa banatu, entseguen ordutegi eta zereginak antolatu... Egun bakoitzean zein eszena entsegatuko diren ere erabakiko du zuzendariarekin batera.

- **Eszenografia arduraduna**

Dekoratua erabakiak hartu zuzendariarekin, eta zuen kasuan, lan taldearekin batera.

- **Tresneria edo atrezzo arduraduna**

Behar diren tresna guztiak lortu eta eskura eduki: edalontziak, edo aulkiak, edo loreak edo... Eta adi! Entsegu bakoitzaren ondoren, dena txukun-txukun jaso behar da. Baina denon artean!!!

- **Jantzien arduraduna**

Pertsonaiak finkatuta dauden momentuan pentsatu behar da zer nolako jantziak eramango dituzuen. Eszenografia ere kontutan eduki behar da. Adibidez, eszenografia fantasiakoa bada jantziek ere hala moduzkoak behar dute izan.

- **Argien arduraduna**

Agian fokuak izango dituzue. Ala ez. Baina agian momentu batean linternak erabili ahal dituzue, ala...

- **Soinuaren arduraduna**

Musika aukeratzea oso garrantzitsua da, baita zein momentutan sartu behar den erabakitzea ere. Horretarako tresna egokia beharko duzue. Bestelako zarata edo soinu efekturik behar bada, esate baterako ekaitza irudikatu behar bada, metalezko txapa bat astinduz, ekaitzaren burrunba izango duzue. Eta interneten ere efektu mordoak topatuko duzue.

- **Makillaje eta orrazkera arduraduna**

Pertsonaien orrazkera eta makillajea proposatuko duen pertsona edo taldea aukeratu. Behar diren margo bereziak eskuratu beharko dituzue, baita pelukak, biboteak...

- **Koreografoa**

Dantzaren bat balego, dantza horren mugimenduak burutu eta prestatzeko koreografo lana egingo duen norbait behar duzue.

- **Ekoizpen arduraduna**

Dena prest edukitzeko ardura hartuko duen laguna. Zerbait behar bada, hori lortzeko ahaleginak egingo ditu.

- **Banatzaila**

Non antzeztu, noiz, nor gonbidatu...

Aktore lana egiteaz gain, lan hauek guztiak zuen artean banatu ditzakezue, eta bakoitza bere zereginaz arduratu, eta tarteka, dagoena edo falta denaren errepaso egin denen artean.



IKASLEENTZAKO OHARRA

Dena dela, agian, zuen antzezlanak ez du horrenbesteko lan banaketa beharko. Primeran! Hala bada, lan guztiak egin ditzakezue denon artean. Talde lanean.

Testua ikasten hasi aurretik, irakurketak egiterakoan zein intentziorekin esango duzuen esaldi bakoitza finkatu. Adibidez, eszena batean zure pertsonaiak haserretu behar badu, badakizu zer intentzio eman behar diozun zure zati horri testua ikasterakoan.

Ez ikasi modu mekanikoan!!! Kontuz, saiatu eguneroko bizitzan hitz egiten duzuen bezala hitz egiten, nahiz eta taula gainean, eta ikusleentzat aritu.

Testua ikasi. Aktore bakoitzak bere testua oso-oso-oso ondo ikasi behar du. Behin eta berriz errepikatu. Esaldiak noiz esan behar diren jakin. Eta oso garrantzitsua: zergatik esaten diren pentsatu, esaten den horrek zentzua izan dezan.



Nola ikasi testua.

- Azpimarratu zure pertsonaiaren testua.
- Ulertzen ez diren hitzak hiztegia begiratu.
Oso garrantzitsua da zer esaten duzun ulertzea.
- Bigarren zentzua edo azpikoa bilatu: zure pertsonaiak
- **"Kafe bat hartuko nuke"** - esaten du.
Baina:
- **"Zurekin hitz egin nahi dut"** - esan nahi du.
- Testua ulertu ondoren, zatika joan.
Esaldia errepikatuz ikasten baduzu, testuari zentzua eman, garbi eduki zer esaten ari zaren.
- Grabatu zure ahotsa, eta behin eta berriz entzun.
- Esan testua, leku eta momentu ezberdinetan:
dutxatzean, kirola egitean...
- Errepikatu zure testua baita lo hartu aurretik ere!
Amestu testuarekin eta zure pertsonaiarekin.

Ariketak

4. ATALA



Gorputz eta ahots beroketa ariketak egin.

Memoria ariketak:

- Biribilean jarri. Bakoitzak hitz bat esan behar du. Ondean dagoenak aurrekoak esan duen hitza errepikatu behar du, gehi bere hitza. Hurrengoak, aurrekoek esandakoak gehi berea. Horrela norbaitek katea eten arte.
- Aktore batek ekintza kate bat egin: aulkian eserita egon, ahoa zabaldu, belarria arraskatu, altxa, pausu batzuk eman... Ondoren beste aktore bat aterako da erdira, eta aurrekoak egindako sekuentzia guztia errepikatu beharko du, gehi berak erantsiko duena ondoren datorrenarentzat, eta...

Testua kanporatzeko ariketak:

Enfasiak, doinuak... lantzeko ariketak.

- Zure testua animo egoera ezberdinetan esan: haserre, pozik, beldurtuta...
Entzun eta ikusi nola aldatzen den zure testuaren musika eta baita erritmoa ere. Eta zure kideena nola aldatzen den ere entzun.
- Zure esaldi bakoitzean garrantzia duen hitz bat azpimarratu.
Eta ozen esaterakoan hitz hori indar handiagoz esan, eta gainera keinu batez lagundu.
Kontuz! Hau ariketa bat da, gero antzezlanean ez duzu zertan horrela egin.
- Esaldiko lehenengo eta azkeneko hitzak indar gehiagoz esan.
- Esan zuen elkarrizketak elkarrengandik oso gertu.
Ondoren kideengandik urrutiratu eta berriz errepikatu.
Eta azkenik oso urrutitik errepikatu.



Ekimen eszenikoa

4. ATALA



Antzerkian gorputz-adierazpena, jarrera, jolasa, musika, argia eta beste hamaika kontuz gain... hitza da oso garrantzitsua.

Eta nola ez, zein hizkuntzatan egingo den antzerkia. Euskaraz? Bikain! Orduan... agian pertsonaia batzuk hika hitz egin dezakete, edota berorika. Edo agian pertsonaia jakin batek euskalki batean hitz egin dezake...

Gaztelaniaz? Frantsesez? Ingelesez? Edo...

Testu bat ondo ikasiz gero, edozein hizkuntzatan antzeztu ahal duzue.

Antzerkia hizkuntzak ikasteko tresna ezin hobea da. Erabili!

Ekimen eszeniko honetan eszena labur bat egitea proposatzen dizuegu. Antzeztu eszena labur bat euskaraz, pertsonaiek hika hitz egiten dutela. Eta ondoren eszena bera ingelesez prestatu.

Eta ondoren... 掌声

ANARTZ ZUAZUA

Borobil Teatroa Estudioa Donostiako Gros auzoan dagoen antzerki estudioa da, antzerkiko eta beste jakintzagai artistikoetako sortzaileekin lantegi praktikoak eskaintzen dituena.

Ingelesez ere eskaintzen ditugu antzerki klaseak. Antzerkiak hizkuntzarekin lan zehatzagoa egiteko aukera ematen du, eta atzerriko hizkuntzak irakasteko baliabide egokiak eskaintzen ditu, dinamika praktiko batez. Inprobisazio gidatuak eta egituratuak erabiltzen ditugu. Esaldi edo idatzitako elkarrizketa batekin, egoera batekin edo pertsonaia desberdinen harremanen bidez hasten gara ikasleak gidatzen, eta horrela, gutxinaka-gutxinaka eszena eta istorioak osatzen ditugu. Inprobisazioa da tresna nagusia eta horrek ikasle bakoitzaren hizkuntza maila erakusten digu. Jolasen bitartez, ikasteko gaitasuna garatzen dugu, eta ingelesez komunikatzerakoan ziurrago sentiaraztea sustatzen dugu. Ikasleak mugitu egiten dira, gorputza, ahotsa eta soinuak erabiltzen dituzte, giro erlaxatu eta natural bat sortuz hizkuntza erabiltzerakoan, horrela presioa guztiak arinduz.



Nor da Anartz Zuazua?

Antzertin, Madrilgo W.Layton antzerki laborategian eta Pariseko J. Lecoq antzerki eskolan burutu zituen ikasketak. Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan burutu zituen. Klarineta eta pianoa dira jotzen dakizkien instrumentuak. Zinema eta bideo ikasketak Andoaingo zinema eskolan burutu zituen. Orduetik zuzendari eta aktore bezala lan egin du antzerkian, telebistan eta zinean. Zurriola Antzerki Eskolaren sortzaileetarikoa bat izan zen eta bertan zazpi urte eman zituen irakasle. Orain zenbait ikastetxetan dabil antzerkia irakasten. 2012. urtean Borobil Teatroa sortu zuen. 2020. urtean Borobil Teatroa Estudioa zabaldu du, bere lanen sormen espazioa eta antzerki ikasketak eskaintzen diren lekua.



4.4. Pertsonaiak landu:

Testua ikastearekin batera, zuen pertsonaia nolakoa izango den irudikatzen ari zarete. Nolakoa da? Zaharra, zuen adinekoa, potoloa, zuhurra... edo animalia bat? Ehunka galdera etorriko zaizkizue eta zuek poliki-poliki zuen pertsonaia sortuko duzue.


Saiatu beti zuen lana sinplea eta erraza egiten, baina horrek ez du esan nahi jolastu eta arriskatu behar ez duzuenik.

• **Pertsonaia eraikitze arreta jarri eta obserbazioa landu**

Ondo begiratu zuen inguruan edo kalean, zuek antzeztuko duzuen pertsonaiaren antzekorik ba ote dagoen. Begiratu arretaz jendeak egiten dituen keinu, tik edo hitz egiteko moduak.

• **Emozioen ezagutza**

Sentipenak antzerkian oso garrantzitsuak dira. Emozioak ezagutu, eta nola azalduko dituzuen jakitea ezinbesteko da zuen aktore lanean. Esate baterako, haserre egoteak ez du esan nahi oihuka hitz egin behar denik, haserre berdinarekin oso isilean hitz egin daiteke. Baina indarririk galdu gabe. **Puntxa** galdu gabe!



ANTZEZTEKO TEKNIKAK:

Antzezteko orduan teknika asko daude, eta aktoreek gehienetan beren lana egiteko ikasi egin dute, eta asko gainera! Gorputza prestatu, ahotsa landu eta emozioak kanporatzeko trebeziak ikasi.

Dena dela, azken urte hauetan naturaltasunez antzezteko joera dago. Pentsatu behar duzue antzerkiko pertsonaiak zuek zaretela, eta momentu hori bizi. Antzerkirako sortu duzuen egoeran sinetsi, pertsonaia barneratu, eta batez ere **ELKAR ENTZUN!!!**

Sortu duzuen egoera hori bizi, sentitu, gozatu, jolastu, jolastu.... eta **jolastu**.

Antzerkia talde lana da eta errespetuz, eskuzabaltasunez eta maitasunez egitea funtsezkoa da.

• **Barrutik kanpora lan egin - Kanpotik barrura**

Barne ezaugarriak: pertsonaiaren alderdi psikologikoak dira. Guk pertsonaia horri bizia emateko, ezagutu egin behar dugu. Nolakoa da pertsonaia, zer gertatu zaio, zein da bere familia eta ingurua, zergatik dago egoera horretan...? Hitz bakar batean bildu ditzakezu bururatzen zaizkizun erantzunak eta zerrenda bat sortu.

Kanpo ezaugarriak: ezaugarri fisikoak.

- Nolakoa da fisikoki, potoloa, kondorduna, herrena, handia, lepo-luzea, ezer ikusten ez duena, kirolaria...?

- Nola hitz egiten du? Nola begiratzen du? Nola jaten du? Nola ibiltzen da?...

Eta ezaugarri fisiko erantsiak:

- Bere jantzia, bere ilea, txapela, bibotea, takoiak edo beste hamaika eranskin, pertsonaia eraikitzen lagunduko dutenak.

- Kolorea: pertsonaia horrek zein koloretako arropa darama, eta zergatik? Agian ez du garrantzirik zuen antzezlanean, baina nahi izanez gero garrantzi handia eduki dezake.



IKASLEENTZAKO OHARRA

BAKARRIZKETAK:

Antzerkia gehienetan, pertsonaien arteko **elkarrizketan** oinarritzen da, eta elkarrizketaren oinarria elkar entzutea da. Entzun eta erantzun.

Baina **bakarrizketak** ere izaten dira. Nori zuzendu bakarrik hitz egin behar baduzue?

- Ikusleei.
Orduan zuzenean pertsona bati begiratu, gero besteari, hitz egiten ari zaren bitartean.
- Zeure buruari.
Pentsamenduak ahoz gora kanporatzeko modua da.
- "Mundura".
Zehaztu gabe dagoenean nori esaten zaion, hoberena ondo ezagutzen duzuen norbait irudikatu eta berari hitz egitea da. Pentsatu zuen lagun batengan edo amonarengan... eta berari hitz egiten ari bazinate bezala azaldu zuen bakarrizketa.



1 Gorputza eta ahotsa landu:

Korri egiten hasi espazioan sakabanatuta. **Txalo** entzutean izoztuta gelditu gorputzarekin keinu berezi bat eginez. **Txalo**. Karrera motzak egin eta gelditu, berriz ere karrera motzak egin eta gelditu. **Txalo**. Azkar ibili. **Txalo**. Ikusten duzun pertsonaren izena xuxurlatu. **Txalo**. Korrika hasi. **Txalo**. Gelditu eta ikusten duzun pertsonaren izena ozen esan gorputzean hotza sentituz. **Txalo**. Denak elkartu, haizearentzat zirrikiturik utzi gabe. **Txalo**. Bakoitzak bere lekua bilatu eta kantu bat xuxurlatu...

2 Zentzumen-ariketak:

→ Ariketa hau zuetako norbaitek zuzendu dezake: lurrean etzan, begiak itxi eta ariketaren gidariak esango du: "hasi hotza sentitzen, elurra egin du eta elur gainean etzanda zaudete. Behatzak izozten ari zaizkizue, baina ez duzue behatzak mugitzeko indarririk ere...". Eta horrelakoak esaten joango da, eta begiak itxita dituzuenek irudikatu behar duzue eta hotz hori gorputzean nola sartzen zaizuen sentitu behar duzue, hotzaren hotzaz indarririk gabe nola geratzen zaretan barneratu, etab.

→ Ondoren ariketa berbera baina bero sentsazioz. Edo bustita, edo neke ikaragarriarekin, edota egarriz...

→ Biribilean jarri eta batak besteari pilota pasa (pilota zuen irudimenean besterik ez dago). Sentitu pilotaren forma, neurria, zama... eta hurrengo kideari pasa.

→ Trapu batekin leiho bateko kristala edo mahai bat garbitu. Ondoren leiho edo mahairik gabe eta trapurik gabe egin aurreko ekintza. Sentitu zuen gorputzaren jarrera, muskuluen indarra, etab.

3 Elkarrizketa jokoa:

Bi aktore aurrez aurre eseri, metro eta erdiko distantzian, eta zuen dialogoak elkarri esaten joan, ping-pongeko partida batean pilota botatzen ari bazinate bezala. Arin-arin, etenaldirik gabe.

4 Pertsonaiak beste kokapen batean landu:

Esate baterako, parkera joan eta hantxe eszena batzuk egin.

Ariketak

4. ATALA



4.5. Eszenografia:

Antzerkia egingo duzuen lekua eszenatokia da. Batzuetan ikusleak biribilean dituzuela egingo duzue antzerkia, edo oholtza baten gainean. Klean egitea ere beste aukera bat da.

Baina aukeratutako lekuan, antzeztuko duzuen eremua kokatu egin behar duzue, inguru berezi bat sortu behar da, bai zuen lana egiteko, baita ikusleak murgiltzeko ere. Eta hori eszenografiaren bidez sortuko duzue. Antzezteko edukiko duzuen lekua kontuan hartu, eta erabili nahi duzuen estetika eta tonuarekin bat datorren espazio eszenikoa pentsatu, proposamenak egin eta zuentzat egokiena dena sortu.

Etxe bateko egongela sortu nahi baduzue, egongela batean dauden altzariak jarri ditzakezue, edo oso elementu gutxirekin egongela dela adierazi; bestela atzeko horman egongelako altzariak ere margotu ditzakezue, edo modu erabat askean sortu zuen antzezteko ingurunea.

Zuek eroso sentitu behar duzue, eta ikusleek berehala sinetsiko dute eszenario gaineko hori egongela bat dela, nahiz eta kartoizko kaxez eginda egon.

Irudimena zuen beharretara egokitu eta sortu... eszenatokiaren atzeko horman paper handi bat jarri eta margotu dezakezue. Edo oihal bat zintzilikatu. Edo lkastetxean dituzuen altzariak erabili. Edo familiari eskatu. Edo birziklatzeko guneetan elementuak bilatu. Edo "errealista" ez den espazio berezi bat sortu, plastikozko ur botilez, esate baterako. **IRUDIMENA** lanean jarri.

Garrantzitsuena da zuen eszenografia horrek antzezlanaren egiteko balio izatea, eta beharrezkoak dituzuen elementuak edukitzea. Eszenografiak zuen lana bildu eta kokatu egingo du, zuen lana egiteko espazio berezia sortuko du.

Ariketak

4. ATALA



Beroketa ariketak

Gorputza eta ahotsa berotu.

- Hiruko taldeetan bildu, burua itsatsita duzue, jira eta bueltaka poliki-poliki ibili medusa bazinate bezala. Ondoren sorbalda duzue itsatsita, eta gero eskuak, gero ipurdia... eta horrela hanketaraino. Gelditu gabe, forma bereziak sortu.
- Robotak zarete. Gorputz osoa tentsioan duzue. Aldi bakoitzean gorputzaren zati bat mugitzen duzue. Gorputz osoa mugitu ondoren, erlaxatu eta mugimendu biribilak egin hankekin, belaunekin, ipurdiarekin, gerriarekin, sorbaldekin, buruarekin...
- Xaboiarekin egindako pinportak dituzuela irudikatu, eta pinportak airean mantentzeko putz egin, eSSSSe soinua eginez.

Taldeka eszenografiak planteatu

- Talde txikitik banatu eta bakoitzak bere proposamena aurkeztu.
- Ikusi duzuen antzerkietako eszenografietako ideiak ekarri.
- Denen artean espazio eszeniko bat aukeratu. Eztabaidatu nola, zein material, noren laguntza lortu ahal duzuen...

Eszenografia eraiki

Lan hau oso dibertigarria izan daiteke eta zuen taldekoak ez direnen laguntza ere eskatu ahal duzue.

EDI NAUDÓ

Eszenario diseinatzailea eta antzerki zuzendaria

Eszenografiak balio digu espazioa mugatzeko eta ikusleari akzioa garatzen den lekua iradokitzeke. Modu askotakoa izan daiteke. Naturalista, surrealista, poetikoa, funtzionala, minimalista, abstraktua... eta argiztapenarekin batera, atmosfera bat sortzen lagundu behar digu.

Lorategi bat sor dezakegu, adibidez era errealistan banku, harresi eta zuhaixka batzuekin.

Edo zuhaitzak sortu kartoizko hodiekin, oinarriak lurrera itsatsi eta goi aldea, mozketak eginez, zabaldu, adarrak balira bezala; eta hosto gisa zapata zaharrak zintzilikatu.

Edo modu poetiko batean lur guztia hostoekin estali.

Sukalde bat edo egongela bat birsortu behar badugu, adibidez, harraska bat, hozkailu bat, altzariak, mahai bat eta aukiak, etab. jarri ditzakegu. Baina lurrean espazioa marratu dezakegu, arkitektoen planoak balitz bezala, eta espazio desberdinak, eta behar diren elementuak, ateak, etab. koloreetako zinta itsaskorarekin markatzea nahikoa izan daiteke.

Edo errepikatzen den elementu bakarra erabiliz; espazio guztia kolore berdinez margotutako aulkiz betetzea.

Testuak eta zuzendariak markatzen duen estiloaren arabera egingo da eszenografia eta dekoratua.

Materialei dagokienez, erabiltzen errazak eta merkeak direnak erabili. Oihalak eta hormetako papera oso ohikoak dira. Eta baliabide onak dira, baldin eta eskegitzeko tokirik badago

Atzeko horma sortzeko, birziklatzeko materiala erabiliz, kartoizko kutxak bata bestearen gainean jarri, eta makilez edo listoez josi. Ondo itxi kaxak eta metatu, baina leihoetarako edo atetarako zuloak utzi, desiratutako forma sortu; eta pintxoak izango balira bezala makilekin zeharkatu kutxak, bai bertikalki, bai horizontalki. Horrek sendotasuna emango dio. Azkenik margotzeko sprayekin, graffiti gisa margotu daiteke.



Webgune honetan begiratzea proposatzen dizuet.
Salvordarrak eszenografia egile familia oso ospetsua da:



Nor zen Edi Naudó

Edi Katalunian, Vic herrian jaio zen. Aktore, zuzendari eta antzerki irakasle izan zen. Baita gainera antzerki teknikaria, argizatzailea eta, batez ere, eszenografoa ere bazen. Esan daiteke Edik antzerkia gauzatzeko denetarik egin zuela. Kataluniako, eta batez ere, Euskal Herriko talde askorekin lan egin zuen, eta oso maitatua zen. 2019. urtean zendu zen, eta euskal antzerkian sekulako zuloa utzi zuen.

4.6. Jantziak:

Jantzien bidez berehala kokatu dezakegu zein momentu historikotan gertatzen den antzezlan, edo munduko zein herrialdetan.

Jantziek gainera pertsonaia sortzen laguntzen dute, eta sinesgarriagoa egiten.

Gogoratu jantziek lagundu egin behar zaituztela, eta ez dute zertan traba izan, horregatik eroso dituzuen jantziak erabili. Aktore batek zanpatuz doan soineko luze bat janzten badu, bere soinekoa ez zanpatzeaz kezkatuago egongo da bere pertsonaiaz baino, eta hori ez da batere lagungarria; gainera, estropezu egiteko arriskua izango luke.

Jantziak oihalekin egin daitezke, kateorrazak edo *inperdibleak* erabiliz. Edo etxekoei eskatu jantziak. Ziur ez zaizuela oso zaila egingo jantzi egokiak lortzea eta zuen beharretara moldatzea.

Gogoratu kolore aukeraketa egiteak pertsonaiak indartzeko balio dezakeela; esate baterako, maltzurak kolore ilunez irudikatzen ditugu (baina sortu ditzakezue maltzur koloretsuak), edo maitemindutako gaztetxoak pastel kolorez jantzi ohi dira (baina rockeroak izan daitezke), etab.

Edota kolore aukeraketa jakin bat egiteak antzezlanari estetika berezi bat eman diezaioke. Esate baterako, pertsonaia guztiak zuriz jantzita badoaz, edo beltzez, edo...

Ariketak

4. ATALA



1 Jantzien maleta sortu

Maleta handi bat zuen gelara eraman eta bertan mozorro eta jantziak, baita peluka edo bizarrak, zapatak eta poltsak sartu. Beti eskura izango dituzue pertsonaiak sortzeko lagungarri izango zaizkizuen elementuak.

→ Norberaren pertsonaiari gehien hurbiltzen zaion jantzia aukeratu. Eta pertsonaia landu.

→ Pertsonaiak inoiz erabiliko ez lukeen jantzia jarri eta pertsonaia landu.


→ Ohartu!!! nahi gabe ere, mozorrotzen garenean gure izaera mozorro horretara egokitzen dugu, adi egon ahotsa nola aldatzen duzuen, ibilera...

2 Jantzien maletan dituzuen oihal eta apaingarriekin, zirku bat prestatu behar duzue edo... Ez du zertan "errealista" izan. Edota ezkontza bat, edo...

4.7. Tresneria. Makillajea. Musika. Argiztapena. Efektu espezialak. Esku programa. Kartela. Zabalkundea:

Lanean ari zarete, eta entseguak aurrera doazen heinean, seguruenik lanen banaketa gero eta beharrezkoagoa izango duzue.

Azken erabakiak hartu behar dira, eta hainbat gai zehazten joan eta ondo lotu. Hemen duzue beharrezkoak izan ditzakezuen gauzen zerrenda bat:



• TRESNERIA:

Tresneria edo atrezzoaren eszenarioan erabiltzen ditugun gauza horiek guztiak dira. Edalontzi bat, edo liburu bat, edo pertsonaiak erabiliko duen kanabera. Eta behar diren gauza horien guztien zerrenda egin behar da, eta antzezlanaren hasieratik prest eta bere lekuan egon behar du:

- Eszenarioan jarri antzezlanaren hasieratik prest egon behar duen guztia.
- Eszenarioaren atzeko aldean, banbalina artean, aktoreek eszenara atera behar dituzten gauzak prest eduki. Esate baterako, eszena bat amaitu, eta aktorea kanpora atera eta berriz sartuko da eszenariora eskutan poltsa bat dakarrela, poltsa horrek banbalina artean prest egon behar du, leku jakin batean. Pentsa ezazue, aktorea poltsa hartzera joan eta ez dagoela egon beharko lukeen lekuan... AAAA!... Urduritasunez betetako momentu horiek saihestu behar dira.

Eszenografiarekin lotura handia du tresneriak, eszenografiarekin batera erabiliko dituzuen "gauzak" eta jantziak garrantzi handia izango dute eszenario gainean, eta ikusleek oso ondo ikusten dituzte, foku handia hartzen baitute. Beraz, ondo zaindu erabiliko duzuen gauzarik txikiena ere.

Askotan ez da beharrezkoa benetako tresneriak edukitzea, eta mundu "imaginarioa" sortu dezakezue. Janaria jateko itxurak egin...

• MUSIKA:

Musikak antzerkian garrantzi handia du. Giroan sartzen laguntzen du, atmosferak sortuz.

Musika egokia jartzeak, gainera, gertatzen dena azpimarra dezake: beldurrezko egoerak, umorea, drama eta egoera larriak, suspensea, etab. indartuko ditu.

Edota antzezlanaren **zuek jo** dezakezue musika zuzenean.

Musika ere hasieran jar daiteke, girotzeko. Edo amaieran agurtzeko. Baina zuen aukera da musika erabiltzea ala ez erabiltzea.

• **MAKILLAJEA:**


Makillajeak zuen pertsonaiei indar berezia emango die, horregatik makillajea ere oso garrantzitsua da. Ez da asko behar zuen pertsonaiei "ukittu berezia" emateko.

Pertsonaia bereziak edo ezaugarriak nabarmendu behar badituzue, makillajearen bidez landu ditzakezue. Agure baten pertsonaia egiteko, edo mamu bat, sorgin bat, pailazo bat... makillajea bezalakorik ez da. Makillajeak areagotu egingo ditu pertsonaia horren ezaugarri nagusiak eta identifikatzen lagunduko digu.

• **ARGIZTAPENA:**

Fokuen bidez giro bereziak sortzen dira antzerkian. Agian, zuen taldeak badu fokurik, hala bada, ondo zuzendu argia erakutsi nahi duzuenaz azpimarratzeko.

Dena dela, argi berezirik ez baduzue ere, saiatu antzerkia egingo duzuen lekuan argia izaten, eta ikusleak dauden aldeko argia itzaltzerik baduzue, hobe, arreta guztia antzezlanearan egongo da. Alegia, bi giro bereiztea komeni da: antzerkia gertatzen den lekua eta ikusleak eserita dauden lekua.



IKASLEENTZAKO OHARRA

Antzezlari bakoitzak bere berezitasunak izango ditu eta zuek haiei erantzun beharko diezue modurik egokienean, antzezlariaren mesedetan. Baina gogoratu, saiatu beti gauzak ahalik eta **modu errazenean** egiten.



Ispiluaren aurrean:

Margoen erabilera: kolore argiek piztu eta argitu egiten dute aurpegia. Ilunek berriz maltzur itxura emango digute.

Oinarrizko margoekin lantzen hasi:

- Pertsonai **zahar** bat egin nahi baduzue, hartu aurpegia margotzeko arkatz ilun bat, beltza edo marroia. Zimurtu zuen aurpegia, eta zimurren bat agertzen zaizuen lekuan arkatzarekin margotu lerro suabeak. Begien inguruan, kopeta aldean, ahoaren aldeetan... Probatu ispilu aurrean!
- **Ume** baten itxura hartzeko, masail gorriak margotu eta begiak biribildu eta txikitu.
- **Hortza falta** dela makillatzeko, margotu hortza lapitz beltzarekin. Atx... ze itsusia!!!

Ariketak

4. ATALA



Aurpegian ditugun puntu garrantzitsuak:

- **Begiak:** alboetara luzatu daitezke, edo biribildu.
 - Bekainak: margo beltzez luzatuta eta gorantz margotuta gaizto itxura emango digute. Bekainak elkartzeak aurpegia erabat aldatzen du.
 - Begi zuloak ilunduz gero, gaixo itxura edo gaiztoarena emango digute.
- **Sudurra:** sudurraren alboak ilun margotuta sudurra zorrotzu egiten da, eta sorgin bat makillatzeko lagundu dezake.
- **Ahoa:** ertzak beherantz margotuta haserrearen aurpegia izango dugu.
- **Masailak:** ume baten makillajea egiteko, kolore gorritz biribilak margotu masailetan. Eta masail azpian arrasto iluna margotuz, pertsonaia maltzurra sortuko duzue.



Den-dena da garrantzitsua, baina ez da inoiz ahaztu behar zer kontatu nahi dugun. Gure arazoak, elkarren arteko liskarrak, gure gizarteko gatazkak ikusarazi, eta haiei buruz pentsarazteko antzerkia bezalakorik ez da! Gogoz, ilusioz eta maitasunez egin behar da antzerkia.



**IKASLEENTZAKO
OHARRA**

AIA KRUSE

ANTZERKI SOZIALA

Antzerkia betidanik, jolas bat izateaz gain, gure artean eta gizartean dauden arazoak kanporatzeko tresna ere bada. Txiki-txikitandik ikusi ditut antzezlanak eta ondo gogoratzen dut haietako antzerki batzuek nigan izan zuten eragina. Txiki-txikitandik egin dut antzerkia, eta nire kezka nagusia beti, antzezlanak ondo egiteaz gain, zer kontatu da.

Idatzi eta sortu ditudan antzerkietan beti badago fantasiarentzako lekua, baita gure inguruan gertatzen diren errealitate gordinak kanporatzeko beharra. Munduko desorekak, genero ikuspegia, etorkinen arazoak, indarkeria, etab.

La Patronita izeneko antzezlanak idatzi eta zuzendu nuen. Bertan, mexikar neskatxa bat da protagonista. Eta bere begietatik ikusiko dugu haren ama eta beste emakume talde bat janaria prestatzen, *La Bestia* izeneko trenean doazen emigranteen artean banatzeko, tren horretan Mexiko osoa gurutzatzen dutenen artean. Sekulakoa da emakume horiek egiten duten lana. Eta antzerkiaren bitartez adierazten da, emigranteen egoera gordina. Baina batez ere, mundua ulertu nahi duen neska horren bitartez, gizartean gertatzen diren injustiziak kontatzen ditut, eta nola ez, jendearen bihotz ona agerian jarri; eta antzerkiaren bidez gure gizartearen ispilu bat egiten da, giza eskubideak aldarrikatzeko.

La Patronita idazteko asko irakurri behar izan nuen, asko ikasi, ikusi eta galdetu. Antzezlan horrek asko erakutsi dit, eta espero dut antzerkiera etorritako haur, gazte eta familiek, itxuraz gugandik urruti dagoen egoera batera hurbiltzea. Gehienetan, haur baten xalotasunetik gai konplexuak askoz hobeto ulertzen dira. Buelta asko ematen dizkiegun gai potoloei, galdera xumeak eginez gero, erantzuna lortzea errazagoa da.



Nor da Aia Kruse?

Etxean, umetan, moztaroz betetako maleta ateratzen genuen bakoitzean, antzerki eta bideo mordoak egiten genituen. Interpretazio eta arte eszeniko ikasketak burutu nituen, eta etengabe ikasten jarraitu dit.

Ane (2020), *Nora* (2020); *Handia* (2016) eta *Zorion Perfektua* (2008) luzemetraietan lan egin dut, baita laburmetrai askotan ere.

Antzezlanetan aktore bezala lan egiteaz gain, testuak idatzi eta zuzendu ere egin ditut.

Maskara, abestea, eta antzerkia edota zinema egitea, ikustea eta bitztea gustatzen zait.

4.8. Mugimendu eszenikoa finkatu:

Testua ikastearekin batera, ekintzak daude, baita zereginak eta mugimenduak ere. Pertsonaia bat sartu eszenatokira, beste pertsonaia batengana hurbildu, besarkatu, eseri, alde egin... Eszenan egingo ditugun mugimendu horiek guztiak zehatzak izan behar dute, eta finkatu egin behar dira.

Mugimendu horiek zuek proposatutakoak izan daitezke, eta zuzendariak ondo ikusten baditu, finkatu egin behar dituzue. Beste batzuetan, berriz, mugimendu horiek zuzendariak finkatzen ditu antzezlanari edo eszenari hobeto doazkiolako.

Mugimenduak behin finkatu ondoren, ez dira aldatu behar.


Aktore guztiak jakin behar dute zer egingo duten beste aktoreek, nondik aterako diren edo zer esango duten. Aldaketak nahasketa sortzen du, eta ez da ona taldearentzat.

Eszenatokian gertatzen diren joan-etorri guztiak mugimendu eszenikoak dira, eta **LOGIKA bat eduki behar dute. Edo logika eza... logiko bat!**

Gogoan izan: **antzerkia ikusleek ikusi eta entzuteko egiten dugu!** Beraz, ikusleak dauden alderantz lan egin behar dugu. Ikusleei ez bizkarra eman hitzegiterakoan, bestela ez zaituzte ikusiko ezta entzungo ere!! Beraz, orain arte egin dituzuen ariketa guztiak erabiltzen hasi: beldurrik gabe, antzeztu jende alderantz, baina ikusleengan begirada finkatu gabe, beren presentzia sentitu eta haiei zuzendu zuen lana; ozen eta garbi hitz egin; etab.

Teloia antzeztokiaren aurrean dagoen oihala da. Teloia altxa edo irekitzen denean, antzezlanari hasiko da. Gaur egun antzoki askok ez dute

teloirik eta zuen antzezlanak ere agian ez du beharko. Eszenatokiaren aurreko alde batzuetan ikuslearengana kanporatzen da, eta aurreko alde horri **prosenioa** deitzen zaio. **Banbalinak**, eszenarioaren alboetan zintzilik dauden oihalak dira, eta antzeztokiaren alboak estaltzen ditu. Albo horietan jartzen dira antzezlanean zehar atera behar diren tresna guztiak, edo aktoreak jantziz aldatu behar badu ere, hor jartzen dira; aktoreek hor itxaroten dute irteteko momentua. Eta publikoak ez du hor gertatzen dena ikusi behar, eszenan gertatzen den horretan arreata galduko luke bestela.



IKASLEENTZAKO OHARRA

ANTZEZTOKIAREN ATZEALDEKO

ANTOLAKUNTZA oso beharrezkoa da. Horregatik, publikoaren begiradatik ezkutuan dauden aulki, mahai, kutxa edo dena delakoetan, komeni da antzezlanak irauten duen bitartean behar duzuen guztia prest edukitzea. Antolakuntza hori finkatu eta errespetatu, inork ez du dagoen lekutik ezer mugitu behar. Askotan sartu-irtenaldiak oso azkar egin behar dira eta ez du astirik ematen behar duzun hori topatzen hasteko.



OSO GARRANTZITSUA DA ESZENATOKIAREN ALBO EDO ATZEALDEAN ISILTASUNA ETA ORDENA MANTENTZEA!!!

Xxxxxxiiii... antzezten ari gara!!!

Mugimenduak, ekintzak eta testua antolatzerakoan, esan bezala logika bat garatu behar da. Aktoreek gainera ez duzue inoiz ahaztu behar publikoarentzat lan egin behar duzuela, aktoreen ahotsa entzun eta zuen aurpegiak ikusi behar ditu ikusleak, baina modu natural batean, beste aktoreen atzean ezkutatu gabe, mugimenduak edo testua aldatu gabe, errespetuz. Baina batez ere, eszenatoki gainean gozatu behar duzue.

ANTZEZTEN

Antzezterakoan, aktoreek beren mundua sortu behar dute, bere antzezlana "bizitzeko". Aktoreak taula gainean daudenean, nahiz eta ikusleak aurrean dituela jakin, publikoa ez balego bezala jokatu behar dute. Horretarako aktoreek ikusleekiko horma ikustezin bat eraiki behar dute: **LAUGARREN HORMA** deitzen zaiona.

Kontzentrazioa ezinbestekoa da. Burua antzeztokian eduki, egin beharreko lanean. Eta batez ere... batez ere... **ELKAR ENTZUN!!!** Beste aktoreek esaten dutena arretaz entzun, eta esan duen horri logika osoz erantzun.

Interpretazioak bilakaera handia egin du mendeetan zehar: Antzinako Greziako maskarak erabiltzetik, deklamazio oso faltuen garaietaraino... baina gaur egun, eta agian zinema eta telebistaren eraginagatik, modu naturalean antzezten da, sinesgarritasun handiarekin, alegia, pertsonaiak "benetan" diren bezala interpretatuz eta bizi duten arazoei erantzunez.



IKUSLEAK

TAULA GAINEAN, ANTZEZTERAKOAN SORTU DAITEZKEEN ARAZOEI NOLA AURRE EGIN ETA KONPONDU:

Testua ahanztea oso ohikoa den zerbait da, urduritasunagatik izaten da gehienetan. Halako batean, oholtza gainean, testua ahaztu egiten bazaizue, bi gauza gerta daitezke:

- Esan beharreko hitza ez duzuela gogoratzen: lasai, aldatu hitzak eta SEGI AURRERA!
- Ez duzue gogoratzen ezer: lasai, aktorerik handienei ere gertatzen zaie. Egin behar duzuen da arnasa sakon hartu eta seguru etorriko zaizuela esan beharrekoa. Gogoratu: zuentzat amaigabeko denbora pasa dela iruditzen bazaizue ere, ikusleak gehienetan ez dira konturatzen zuek isilune "luze samarra!" egin duzuenik. Zaudete lasai. Horrelakoetan, hoberena inprobisatzea eta beste aktoreei laguntza eskatzea da!!!

Zure kidea bere **testuarekin nahastu** bada, eta zure aurretik esan behar zuena ez badu esaten... zuk lasai hartu eta... **aurrera egin!!!** Agian berak esan behar zuena, pixka bat moldatu eta zuk esan. Eta inor ez da konturatuko!

Ariketak

4. ATALA



Antzezlanaren entseguak:

Entseguetan antzezlanari forma emango diozue. Nahiz eta batzuetan entseguetan aspertu, oso garrantzitsua da kontzentrazioa eta gogotsu lan egitea.

Entseguaren ondoren zuzendariak ematen dituen oharra eta zuzenketak oso ondo entzun behar dira eta gogoan hartu, hurrengo entseguan hobetzeko.



TELMO IRURETA

AKTOREA

Gustukoa baduzue antzerkia... aurrera! Gogoia izanda eta bakoitzaren abileziak landuz gauza asko lortu daitezke.

Nire egoera ez da erraza izan, fisikoki oso baldintzatuta nagoelako, eta nire ezaugarri fisikoak dituen pertsonaia bat antzezteko aurkitzea oso zaila delako, baina beti agertzen da aukeraren bat. Eta bestela... nik neuk sortzen dut.

Ez ikusi falta dena edo ez dagoena bakarrik, ikusi amestu daitekeena ere. Amestu daitekeena lortu daiteke. Eta nik egin badut zuek ere egin ahal izango duzue.

Behin *casting* bat egin nahi nuen eta nire kurrikuluma eta argazkiak bidali nituen. Goiz batean produktoratik deitu zidaten (imajinatu nire poza!):

- *Asko gustatu zaigu zure ibilbidea eta zure irudia -esan zidaten- castina egin nahi dizugu, datorren asteazkenean goizeko 11etan, hemen gure bulegoan.*

Hain urduri eta pozik jarri nintzen! Ez nekiela zer esan ere, baina azkeneko momentuan zalantza txoro bat etorri zitzaidan:

- *Barkatu, igogailurik ba al dago?*

- *Zer?*

- *Igogailua.*

- *Ez.*

- *Baina... ez al duzue nire kurrikulumaren azpian jartzen duena irakurri, alegia, gurpildun aulkian noala?*

- *Mmmm ba... ez. Bada... gero deituko dizut.*

Eta ez zidaten deitu. Pena eta amorru ikaragarria eman zidan, baina ez diot horregatik antzezteari utzi. Eta sortu zaizkidan aukera zoragarriez ikaragarri gozatu dut, eta gozatuko dut. Bidean topatzen diren harriak gorago igotzeko aukera besterik ez dira. Mugak? Norberak jartzen dituenak!



Nor da Telmo Irureta?

Magisteritza ikasi nuen (2007-2010) eta ondoren Pedagogia (2010-2012). Baina nire zaletasuna antzeztekoa da, eta horregatik TAE-Arte Eszenikoen Tailerrean ikasi nuen 2012tik 2015era.

Telebistan *Barre Librean* eta *La que se avecina* telesailean aritu naiz.

Antzerkian monologoak egin ditut. Eta Mireia Gabilondok zuzendutako *Streaptease* antzezlanean aktore eta gidoilari izan nintzen. Alex Tellorekin inklusioari buruzko lanetan ere parte hartu dut, *Jendeartean bidaide* obran adibidez.

Gala ugaritan aurkezle-lanetan aritzen naiz, Donostiako Giza Esbubideen Zinemaldian, edota Begiradak Zinemaldian esate baterako.

Nire bizitzako gora beherei buruzko film bat ere errodatu dut.

4.9. Entsegu orokorra:

Dagoeneko dena prest duzue. Pertsonaiak landuta, jantziak atonduta, dekoratua egina, tresneria guztia lortu duzue, entsegutan egindako lana ere antzematen da, mugimenduak eta egin beharreko ekintzak ikasita daude, musika ere behar den momentuan sartzen da, argiak, txartela, antzokia prest... Baina guzti honekin batera, espero ez genuen gonbidatua azalduko da: **URDURITASUNA!!!** Azken momentuko zalantzak, kezkak, falta direnak... Mantendu burua hotz eta errepasatu ea dena prest dagoen.

Horrelako uneetan oso eskertzekoa izaten da elkarri laguntzea. Eta batez ere, ez haserretu lagunekin. Denok urduri egongo zarete. Edo agian ez!

Hoberena erlaxatzea eta beroketa ariketak egitea da. Kontzentratu. Zuen pertsonaiarengan pentsatu, antzetzuko duzuen egoeran... Izurik ez. Patxada, bai!!! Eta ondo pasatzeko gogo. Jolastu. Gogoratu: **LOTSAK EZ DU EZERTARAKO BALIO, ETA... JOAN EGINGO DA.** Ez da gurekin betiko geldituko.

Dena prest duzue, estreinaldiaren aurretik entsegu orokorra egiteko. **Ondooooo.** Horrek esan nahi du lan bikaina egin duzuela eta sekulako txalo zaparrada merezi duzuela.

Baina lehendabizi goazen entsaio orokorrarekin. Komeni da seriotasun osoz egitea, non huts egiten duzuen ikusteko (hutsegiterik balego behintzat!). Konpondu konpondu beharreko guztia, indarrak hartu eta.... **AURRERA! GORA TELOIA!**

Baina entseguarekin amaitu baino lehen, bukaerako **AGURRA** entsaiatu behar duzue. Modu koreografiatu batean.

Amaitu bezain laster, nondik aterako zareten agurtzera erabaki behar duzue, nola atera, non kokatu... eta denok batera burua gerriraino nola makurtuko duzuen. Gogoratu: **zuekin, lan taldean, lanean aritu diren kide guztiek ere agurtzera atera behar dute**, antzetzuko ez badute ere! Eta zorte ona opa beharrean... badakizue, gaztelaniaz "Mucha mierda" opa zaio antzetzera doanari; ingelesez "Break a leg"; frantsesez "Merde"... eta euskaraz "Kaka zaharra!" esan ohi da.



KAKA ZAHARRA!!!

Aspaldian jendea gurdiz joaten zen antzokietara, eta atarian zaldi kaka asko baldin bazegoen, horrek esan nahi zuen gurdi asko etorri zela antzokira, alegia, ikusle ugari, eta antzezlanak erabateko arrakasta izango zuen seinale zen!!! Beraz...

5



Euskal egileen testu batzuk

Euskal antzerki idazle bikainak daude.
Hemen haietako batzuen testu laburrak edo
antzezlanen eszenak jaso ditugu (eta beste
lurralde eder bateko egile baten lana ere badago):
Alaitz Olaizola, Amancay Gaztañaga, Paco Gámez,
Juales Larrañaga... eskarmentu handiko antzerki
idazleak eta egileak dira. Nik idatzitako testu bat
ere txertatu dut... eta Toribio Alzaga handiaren
antzezlan bat.

Gora Teloia eta kaka zaharra!!!

HONDAMENDIA

Alaitz Olaizola

HONDAMENDIA antzerki obraren lagin bat duzue honako hau.

Mundua pikutara joan da. Lasai eta bakean bizi ziren gizakiak gaur arte, baina bat-batean, bonba bat jaurti dute. Batzuk momentuan hil dira, beste batzuk zonbi bilakatu dira bonbak sortutako gasen ondorioz... eta gutxi batzuk, lur azpiko bunker batean sartu dira hondamenditik ihesi. Baina, hori ote konponbidea? Nola bizi zulo batean ia janaririk eta urik gabe? Nola mantendu elkarbizitza baketsua?

1. agerraldia

Bunkerra ilunpean dago. Bunkerrean hiru aulki zahar, apalategi zaharkitu bat, argiaren kontadorea eta kaxa mordo bat daude izkina batean pilatuta. Isiltasuna. Bat-batean, sirena entzuten da, alarma. GORKA, ANE, AINHOA, DENIS, NEREA eta MARA sartzen dira korrika, urduri. Nerea erosketa poltsa batzuekin eskuetan.

MARA: (Oihuka) Azkar, itxi atea!

Isiltasuna. Denak zutik geratzen dira, alde guztietara begira, oso urduri.

GORKA: Ze leku da hau?

Denis txoko batera joaten da, bakarrik. Aulki batean esertzen da, bere buruan bilduta.

AINHOA: Itxura guztien arabera, bunker bat.

ANE: Bai. (Ingurura begira) Zaharkitu samarra, baina bunkerra. Hemen ondo egongo gara.

GORKA: (Urduri) Ondo? Lur azpian bizi behar al dugu hemendik aurrera? Gureak egin du!

MARA: Edo hemen barruan bizi edo kanpoan hil.

NEREA: Hil? Ez dut denborarik eduki daukadan diru guztia gastatzeko!

AINHOA: Ahaztu dirua. Hemen ez du ezertarako balio.

NEREA: Ezetz? Diruarekin arazo denak konpontzen dira!

DENIS: Hau ez.

Denak berari begira geratzen dira.

ANE: Arrazoi du. Gehienez ere sua egiteko balioko duten paper zahar batzuk baino ez dira orain zure bileteak.

NEREA: *(Erabat asaldatuta)* Zu erotuta zaude! Dirua erre? Mesedez!

GORKA: Hau miseria!

AINHOA: Begiratu alde ona. Jende mordoa hil da auskalo nork bota duen bonbaren ondorioz eta gu salbatu egin gara.

GORKA: *(Ainhoari)* Zu hasi zara oihuka: "sartu hor! Sartu hor!" esanez. Horregatik sartu naiz. Zer pasatu da?

ANE: Ez dakit, baina sirena entzun dudanean berehala antzeman dut alarma nuklear bat zela. Ingeniaria naiz eta kanpoko atea ikusi dudanean, berehala jakin dut bunker bat zela.

MARA: Zuri esker gaude hemen. Zugatik izan ez balitz...

NEREA: Arropa dendatik atera berria nintzen... Asteburuan festa bat egin behar genuen nire etxean... eta orain...

MARA: *(Haserre)* Aizu! Munduko biztanle bakarrak bihurtu gara segundo batean, eta zu festarekin pentsatzen?

DENIS: *(Mespretxuz)* Ba! Aberatsen kezka!

Bitartean, Gorka, bunkerraren beste aldera hurbiltzen da.

GORKA Aizue, hemen ate bat dago.

Denak, Denis ezik, Gorka dagoen aldera joaten dira korrika.

MARA: Ikus dezagun zer dagoen.

Denak ezkutatu egiten dira. Denis ez. Halako batean, norbaitek atea jotzen du kanpotik. (Hankarekin edo zarata egin norbaitek)

Denis asaldatu egiten da, baina ez du kasurik egiten.

MIJAIL OFF: *(R ak rr esaten dituen errusiarra da)* Irreki! Irreki atea!

Gorka agertzen da.

DENIS: Norbait atea jotzen ari da.

GORKA: Eta zergatik ez duzu irekitzen?

DENIS: Bakarrik egon nahi dudalako!

GORKA: Leku ederrera etorri zara bakarrik egoteko!

MIJAIL OFF: Irreki atea!

Gorka ezkutatu egiten da aterantz. Ezkutuan, ireki egiten du. Korrika sartzen dira MIJAIL, SARA, AINARA, GABRIEL eta ANDONI. Denisek belarriak ixten ditu. Ez zaizkio batere gustatzen zarata eta jendearen presentzia.

Jarraitzen du...

Alaitz Olaizola, Azpeitia 1975

Haur zela hasi zen antzerkia egiten, ondoren Antxieta antzerki tandean aritu zen, eta baita Lakrikun antzerki taldean ere. Helduentzat eta gazteentzat antzerki-tailer ugari eskaini ditu. Orain Azpeitiko Emakumeen Antzerki Tailerra zuzentzen du.

2001ean **Toribio Altzaga Saria** irabazi zuen, *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*, eta 2006an berriz ere, sari hori irabazi zuen *Joanes: itxaropenaren semea* lanekin. 2004an, **Donostia Hiria saria** *Clitemnestraren itzulera* antzerki lanarekin.

Telebistan gidoilari lanetan aritzeaz gain, helduentzat eta haurrentzat antzerki ugari idatzi, taularatu eta argitaratu ditu.



INFORME TXARRA

Juales Larrañaga

Pertsonaiak: Ama, Aita eta Tutorea.

Eszena eta agerraldia:

Mahai baten inguruan eserita daude hirurak. Gurasoak alde batean eta irakaslea aurrean. Irakasleak bere aurrean paper batzuk ditu. Romaldaren informea da.

- AITA:** Beno, zuk esango diguzu nola doan gure neska eskolan.
- IRAKASLEA:** Egia esan, nahiko gaizki dabil Romalda.
- AMA:** Romalda nahiko gaizki dabilela? Ez da posible!
- IRAKASLEA:** Ba..., bai. Romaldak, ez dakit etxean, baina eskolan behintzat ez du lanik egiten.
- AMA:** Romaldak ez duela lanik egiten? Ez da posible!
- AITA:** Ba... etxean gure Romalda oso langilea da.
- IRAKASLEA:** Beste irakasleak esan didatenez eta nik neuk ikusi ahal izan dudanez, Romaldak ez du parte hartzen lantaldean, ez du ezer idazten, ez du irakurtzen, ez du jasotzen, ez du erantzuten, hitz batean, Romaldak ez du ezer egiten.
- AMA:** Romaldak ez duela ezer egiten? Ez da posible!
- AITA:** Arraioak! Hori ez da gure Romalda, beste bat izango da, agian beste ikasle batekin nahastu zara. Gure Romalda ez da alperra, oso langilea baizik.
- IRAKASLEA:** *(Argazki bat ateratzen)* Hau al da Romalda?
- AITA:** Bai, horixe da!

- AMA:** Bai, hori bera da gure Romalda.
- IRAKASLEA:** Ba..., lehen esan dizuedana errepikatuko dut, Romaldak ez du lanik egiten. Hori bai, molestatu ere ez du egiten.
- AMA:** Aizu, ez badu kolperik ematen errua zuena da. Gurekin ez da hori gertatzen. Hemen disziplina falta zaio, disziplina.
- AITA:** Hori, horrelakorik ez da gure etxean gertatzen. Romalda, egunero, eskolatik irten eta berehala etxeratzen da. Eta, besteak jolasean ari diren bitartean bazkariaren plater eta ontzi guztiak garbitzen ditu.
- AMA:** Eta are gehiago, platerak eta ontziak garbitutakoan, zurgailua hartuta egunero logela, egongela eta pasiloko moketak garbitzen ditu.
- AITA:** Eta ez hori bakarrik, ez, moketen garbiketa amaitu ondoren, gure afaria prestatzen du egunero.
- AMA:** Eta afaria prestatzen duen bitartean nik biderketak galdetzen dizkiot buruketak ondo egin ditzan.
- IRAKASLEA:** Baina agian gehiegi da Romaldarentzat.
- AITA:** Zer diozu? Gure Romaldak hori eta mila gauza gehiago egin dezake.
- AMA:** Adibidez, gure Romaldak egunero, afalostean, guk pelikula ikusten dugun bitartean, masajea egiten digu.
- AITA:** Eta ohean gaudenean, lo geldu gaitzen, ipui bat kontatzen digu.
- IRAKASLEA:** Barkatu, baina hori gehiegi da!
- AMA:** Gehiegi? Hori ez da ezer.
- AITA:** Baina, zuk zer uste duzu, gure Romalda milingi bat dela, ala?
- AITA:** Nork esnatzen gaitu egunero?
- AMA:** Romaldak!
- AITA:** Nork prestatzen du goizero gosaria?
- AMA:** Romaldak!

- AITA:** Nork erosten du egunero goizeko zazpitan egunkaria?
- AMA:** Romaldak!
- AITA:** Nork ekartzen dizkigu ohera egunkaria eta gosaria?
- AMA:** Romaldak! (**Karraxika**)
- IRAKASLEA:** Baina hori sinestezina da, abuso bat da!
- AITA:** Zer abuso eta zer abusondo!
- AMA:** Abusoa, zuena! Romaldak ez duela lanik egiten esatea ere!
- AITA:** Entzun duzun guztia entzun ondoren ez duzu berriro esango gure Romalda alperra denik.
- IRAKASLEA:** Ez, arrazoia duzue. Zuen alaba langile hutsa da. Gehiago esango nuke, esklabu bat da. Horregatik eskolan lo seko gerazen da sartu bezain azkar
- AITA:** Bada zerbait egin beharko duzu!
- IRAKASLEA:** Bai, erabakia hartu dut: OHE BAT PRESTATUKO DIOT, LASAI LASAI LO EGIN DEZAN. AGUR!!!

Amaia

Juales Larrañaga, *Donostia 1956*

Amara Berri ikastetxeko irakaslea izan da. Bertan antzerkia, zinema, irratia eta beste hamaika sorkuntza adierazpide bultzatu ditu.

Ikastetxe horretako neska-mutilentzat antzezlan ugari idatzi ditu eta baita taularatu ere.

30 urte daramatza, gainera, Jonas pailazoaren pertsonaia egiten **Kike, Blas eta Jonas** pailazo taldearekin.



NANA TEILATU GAINEAN

Paco Gámez

2016ko SGAE-ko Haur Antzerki saria (Antzezlan honen eszena baten zatia da ondoren datorrena)

NORBAIT

NANA ohartzen da harrotu duen istiluaz; ahoa estali eta makurtu egiten da.

AHOTSA: Naaaana!

NANA tximinia atzean ezkututzen da.

AHOTSA: Oihu egin eta esnatu egin nauzu!

NANA: *(Oso apal)* Barkatu.

AHOTSA: Kostata lokartu naizenean, zure txorakeriekin hasi behar zenuen.

NANA: Ez dira txorakeriak, Aizu!

AHOTSA: *(NANA imitatzen du)* Ahatearen gola! Ahatearen gola!

NANA: Barkatu.

AHOTSA: Uuuuug!

Isilunea.

NANA: Lo egiten utziko dizut.

NANA aspertu egiten da. Teilatuan zehar dabil. Ez daki zer egin. Pentsatzen ari da.

NANA: Aizu... *(Inork ez dio erantzuten)* Aizu, barkatu.

Alde guztietara begiratu, errieta egin dion AHOTSA nondik datorren jakiten saiatzen da.

NANA: Entzun! Aizu! Kaixo!

Erabateko isiltasuna.

NANA: Aizu! (**Bat-batean garrasi egiten du**) AHATAREN GOOOOLA!

AHOTSA: UUUUUUUUUUUUUUG. Isil zaitez!

NANA: Kaixo!

AHOTSA: Bai zarela astuna!

NANA: Aspertuta nagoooo!

AHOTSA: Bada, egizu lo.

NANA: Teilatutik eroriko naizen beldur naiz.

AHOTSA: Bai zera! Beldurti hori. Ni egoera okerragoan nago eta ez naiz erortzen.

NANA: Bai, seguru! Ez dut uste inor ni baino okerrago dagoenik.

AHOTSA: Ez? Zu Esne Bidearen erdigunea zarela uste duzu! Bada ez, erdigunea eguzkia da...

NANA: Zein zara, jakintsu hori?

AHOTSA: Nola bada Jakintsua nor naizen galdezka? Ez nauzu ezagutzen?

NANA: Ez dakit bada. (**Inguruan begiratzen du bila**) Non zaude?

AHOTSA: Hemen.

NANA: Non?

AHOTSA: Hemen (**Barre egiten du**).

NANA: Emadazu arrastoren bat

AHOTSA: Ikusten duzu atzealdeko teilatu hori?

NANA: Zein?

AHOTSA: Horia.

NANA: Bai, baina hor ez zaude.

AHOTSA: Ez, noski!

Biak barre egiten dute.

NANA: Gertuago zaude orduan.

AHOTSA: Uretatik kanpo dauden etxe-orratzaren sei solairuak uretatik ateratzen lkusten dituzu?

NANA: Bai.

AHOTSA: Bada kontatu hiru solairu goitik hasita eta ertzetik bost leiho.

NANA: Hiru... Eta bat, bi, hiru, lau eta... Itzalita dagoen leihoan?

AHOTSA: Bada hor ere ez! (**Barre egiten du**)

NANA: Jo! Nahikoa da! Non zaude?

AHOTSA: Bila, bila, bila nazazuuuu.

NANA: Berdin zait. Ni primeran nago zu gabe. Gau guztia bakarrik eman dut, eta ez zaitut ezertarako behar.

AHOTSA: Kaixo!

NANAk ez dio AHOTSAri jaramonik egiten. Teilatuan salto-saltoka dabil

AHOTSA: Nana!

NANAk ahopeka kantatzen du.

AHOTSA: NAAANAAA!

NANA: Ez zenuen bada lo hartu nahi...? Bada egizu lo!

AHOTSA: Orain ezin dut, esnatu egin nauzu.

NANA: Ez dakit nor zaren, eta ez dut ezezagunekin hitz egin behar.

AHOTSA: Nana, nik ezagutzen zaitut.

NANAK berriro ere ahopeka kantatzen du.

AHOTSA: Ea, Nana!

Neskak ahopeka lehen baino ozenago kantatzen du.

AHOTSA: Ez duzu jakin nahi nor naizen? Nana, ez?

NANAK etenik gabe kantatzen jarraitzen du. AHOTSAk nor den esan nahi dio baina kantuak gain hartzen du. Azkenean, NANAK ahots apalagoan kantatzen duenean entzuten da...

AHOTSA: AHATEAREN GOOOOOOLA! AHATEAREN GOOOOOOLA!

NANAK barre egiten du.

AHOTSA: AHATEAREN GOOOOOOLA!!!

NANA ahotsari batzen zaio.

**AHOTSA
ETA NANA:** AHATEAREN GOOOOOOLA! AHATEAREN GOLA! AHATEAREN GOLA! OEOEOEOEEE OEEEE OEEEE!

Etenik gabe bar egiten dute. NANA lurrean arrastaka; beno, teilatuan barrena.

NANA: Eta azkenean, azken minutuan, penaltietan, guk irabazi genuen, baloiak hegan egin zuelako! Primeran! Gora ahateak!

AHOTSA: Primeran! Goooooo!!!

Barrez lehertzen dira.

- NANA:** (*Zutituz*) Badakit nor zaren.
- AHOTSA:** Bai?
- NANA:** Dani zara, postaria.
- AHOTSA:** Baina, zer diozu?
- NANA:** Bai horixe, ahotsa ezagutu dizut.
- AHOTSA:** Baina hori zaharra da oso.
- NANA:** Bai zera! Gaztea da.
- AHOTSA:** Zer izango ditu, hogeita hamarren bat urte?
- NANA:** Ez dakit.
- AHOTSA:** Zu joaten zaren ikastetxe berera joaten naiz.
- NANA:** Baina non zaude?
- AHOTSA:** Hemen zuhaitz gainean.
- NANA:** (*Bilatzen du*) Zer egiten duzu hor igota? Arriskutsua da zuhaitzetara igotzea.
- AHOTSA:** Eta teilatuetara, ez?
- NANA:** Beno... Nire gurasoek igo naute hona... Nor zara?
- AHOTSA:** Ea... ni zure ikastetxera joaten naiz.
- NANA:** Nire ikasgelara?
- AHOTSA:** Ez, Pili andereñoarenera. Bosgarren mailan nago.
- NANA:** Ez zaitut ezagutzen orduan.

- AHOTSA:** Baietz ba. Pako naiz.
- NANA:** Ze Pako? Denak jotzen aritzen dena?
- AHOTSA:** Ez, nik ez dut inor jotzen.
- NANA:** Ergela?
- AHOTSA:** Hori Kepa da. Aizu, Eta ez da ergela!
- NANA:** Bada ez naiz konturatzen. Burua edo... erakutsi dezakezu?
- AHOTSA:** Erortzeko beldur naiz.
- NANA:** Orduan Pako beldurtia zara!
- AHOTSA:** Ezta ere. Goragoko adar batera igotzen saiatuko naiz

Zuhaitza mugitu egiten da. Txori saldoa hegan ateratzen da.

- NANA:** Kontuz txoriekin!
- AHOTSA:** Saiatzen naiz... Ea beste alde honetatik.

Zuhaitz adarren artetik kizkur gorriz betetako burua agertzen da.

- NANA:** Aaaaa, Ilegorria zara!
- PAKO ILEGORRIA:** Ezagutzen nauzu, ezta?
- NANA:** Bai noski, Ilegorria zara.
- PAKO ILEGORRIA:** Pako naiz!
- NANA:** Bai, Pako ilegorria zara.

PAKO
ILEGORRIA: Beno, bai.

NANA: Munduan zehar "Pako" mordoia dago eta...

PAKO
ILEGORRIA: Ni Francisco Jose Perez de la Encina naiz.

NANA: Hori oso luzea da. Pako ilegorria zara.

PAKO
ILEGORRIA: Konforme. Zu, orduan, Nana beltzarana zara.

NANA: Nana gehiago ezagutzen duzu ala?

PAKO
ILEGORRIA: Mmmm... Ez.

NANA: Beraz, Nana naiz, besterik gabe.

PAKO
ILEGORRIA: Jo!

Zortzi kanpai hots eta txoriak jira-biran ateratzen dira. (Jarraitzen du...)

Paco Gámez, Jaén 1982

Gaztetan hasi zen antzerkia egiten, eta ondoren, Sevillako ESADen egin zituen antzerki ikasketak.

Aktore gisa aritzeaz gain, antzerkia idazten hasi, eta sari ugari jaso ditu, haien artean, XVII. SGAE Haur Antzerki Saria.

Haur, gazte eta helduentzat idazten du, beti ere, gai berriak bilatzen saiatuz. Idazterakoan bere antzezlanak taula gainean irudikatzen du baina gaiak, sentsazioak eta irudimena muturreraino eramatea gustatzen zaio.

pacogamez@contextoteatral.es



OCTAVIO AUGUSTO ETA... BERE BORROKAK

Aizpea Goenaga

Pertsonaiak:

Octavio **Augusto**. Erromatar enperadorea

Marco **Agripa**. Jeneral handia.

Valerio Corvino **Mesala**. Jenarala

Agriparen **soldaduak**. Emakumeak eta gizonezkoak. Gutxienez 3

Mesalaren **soldaduak**. Emakumeak eta gizonezkoak. Gutxienez 3

-|-

Agripa jeneral handiaren soldaduak militar pausoak emanaz eszenatokian sartuko dira. Agripa generala lehenengo dator bere troparen aurretik. Zarata handia egingo dute pausuak ematerakoan. Eszenatokian desfilea egin ondoren eskubi aldean jarriko dira, ordenean.

Beste aldetik, Mesala generalaren soldaduak sartuko dira. Mesala aurrean doala. Zarata handia egingo dute hauek ere. Agian, aurrekoek egin dutena baino gehiago egiten saiatuko dira. Eszenatokian bira bat eman eta ezker aldean jarriko dira.

Turuta batek joko du. Enperadorea datorren abisua. Denak tente eta tinko enperadorearen zain.

Octavio Augusto enperadorea sartuko da eszenatokian, erramu-koroa bere buruan daramala, eta erdian, bi tropen artean dagoen aulki-trono batera joango da.

Tropa guztiak "bibaka eta oihuka hasiko dira".

Augustok eskuekin isiltzeko keinua egingo du. Denak isilduko dira.

AUGUSTO: Ave, nire soldaduak!

DENEK: Ave Augusto!

AUGUSTO: Gaurko egun zoriontsu honetan Oiassoko plazan elkartu gara berri on bat partekatzeko.

DENEK: *(Oihuka)* Biba! Berri onak nahi ditugu! Bai! Gora gure enperadorea!...
(Eta honelako oihuak botako dituzte soldaduek)

AUGUSTO: Gure Marco Agripa Jeneral handiak Cristo aurreko 39. urtean Aquitaniako errebelde barbaroen aurka egindako borrokan irabazi zuen!!!

DENEK: Bai... Gora Marco Agripa jenerala!!! Gora!!!

Irrintzi bat botako du Agriparen taldeko soldatu batek. Eta kolpetik denak isilik geratuko dira, irrintzia bota duenari begira. Irrintzia botatzen ari dena lotsatuta isilduko da.

ADRIANO: Eta Cristo aurreko 27. ean Valerio Corbino Mesala jeneralak ere, borrokan baskoien lurraldeetako basatiak irabazi zituen.

DENEK: *(Oihuak egingo dituzte. Orduan, Mesalaren taldeko soldadu batek ere irrintzia botako du, edo botatzen hasiko da. Denak hari begira geratuko dira, eta irrintzia berehala moztuko du)*

ADRIANO: Horregatik... gure bi jeneral hauen omenez plaza honetan bere buruen estatuak jarriko ditugu. Soldaduok... hasi lanean, zuen nagusiaren bustoa egiten. Aste bete daukazue! Eta ondoren Oiassoko festei hasiera emango diegu!

Soldadu guztiak oihuka hasiko dira, poz-pozik. Enperadoreak alde egingo du.

Soldadu talde bakoitzak orduan, bere desfilea egingo du, eta bakoitza bere txokoan geldituko da. Alde batean Agriparenak eta bestean Mesalarenak.

Mesalaren soldaduak korroan jarri eta lanean hasiko dira. Bere jeneralaren eskultura egiten.

**Eskultura hauek, adibidez, kartoizko kaxa handiekin egin daitezke. Kartoizko kaxa hartu eta aurpegia marraztu, ilea jarri... eta ahal duzuen modurik egokienean atondu.*

Kartoizko kaxa margotzen hasiko dira. Eskultura balitz bezala.

MESALA JENERALAREN SOLDADUAK:

MESALA

SOLDADU 1: Mesala jauna, eseri hortxe eta zure irudia duen eskultura egingo dugu.

MESALA

SOLDADU 2: Ikaragarri ondo egingo dugu...

MESALA

SOLDADU 3: Bai, hain ondo hain ondo... denak txundituta geratuko direla.

MESALA

SOLDADU 4: Eta Agripa jenerala... sutan jarriko da. Zure eskultura berea baino ederragoa izango delako.

MESALA:

Tira, tira... hitz gutxiago eta hasi lanean!

MESALA

SOLDADU 4: Baina ze txapuza egiten ari zara?!!!

MESALA

SOLDADU 1: Ixo... ixo... konponduko dut.

MESALA:

Txapuza? Ea... erakutsi (**Altxatu eta eskultura ikustera joango da. Ikusitakoarekin oso haserre**) Baina ze arraio da hau!!! Tira, baina nor da hau??? Hasi berriz!!! Eta ondo egin, aditu? Txapuza bat egiten baduzue... bazkaririk gabe utziko zaituztet.

Berriz ere lanean hasiko dira, isilik.

Agriparen taldekoen lanak ikusi eta entzungo ditugu orain.

AGRIPA JENERALAREN SOLDADUAK:

AGRIPA: Ni naiz jeneral handia. Soldaduak, nire eskulturak munduko ederrena izan behar du. Entzun?

**AGRIPA
SOLDADU 1:** Bai, jauna... zure eskultura mendeetan barrena ezaguna izango da.

**AGRIPA
SOLDADU 2:** Agian jauna...

AGRIPA: Zu zara irrintzia bota duzuna?

**AGRIPA
SOLDADU 2:** Barkatu jauna... atera egin zait!

AGRIPA: Hurrengoan bazkaririk gabe utziko zaitut.

**AGRIPA
SOLDADU 2:** Jauna ideia bat daukat... Zu Mesala Jenerala baino handiagoa zara... beraz logikoa da, zure eskultura ere handiagoa izatea. Zer iruditzen?

AGRIPA: Baskoia izateko ideia onak dituzu. Ondo bai, hasi lanean eta egin eskultura handi bat!

Agriparen soldaduak ere lanean hasiko dira. Baina ekarriko duten kaxa askoz handiagoa izango da. Lanean ari direnean bi taldeak, talde bakoitzak bere solasaldiak izango ditu. Edota kantari arituko dira.

-IV-

Iritsi da eskulturak erakusteko eguna eta turuta entzungo da. Eskulturak oihal batekin estalita dituzte. Hasieran bezala bi soldadu taldeen erditik enperadorea sartuko da.

ADRIANO: Iritsi da gure festa eguna! Baina festa hasi aurretik gure jeneralen eskulturak inaguratuko ditugu.

DENAK: Biba... Gora!!

ADRIANO: Musika! (*Turuta musika entzungo da*) Mesala jeneralaren eskultura!

Soldaduek oihala kenduko dute eta eskultura agerian geratuko da.

Mesalaren soldaduak pozik txaloka hasiko dira. Agriparen soldaduak barrez.

ADRIANO: (*Eskua altxatuko du, isiltzeko eskatuz*) Eta orain Agriparen eskultura!

Oihala kenduko dute, eta eskultura oso handia erakutsiko dute. Mesalaren soldaduak haserretuko dira.

MESALA

SOLDADU 1: Hori tranpa da! Askoz handiagoa egin duzue.

AGRIPA

SOLDADU 1: Baina inork ez du esan ze tamainatakoa izan behar duen eskulturak!

AGRIPA

SOLDADU 2: Bakoitzak merezi duen tamaina du!

MESALA

SOLDADU 1: Borrokaraaaaa!!!

DENAK: Borrokaraaaaa!!!!

Bi taldeak liskarrean hasiko dira, sekulako istilua sortuko da. Azkenean turuta entzungo da.

ADRIANO: Tamainak hainbeste garrantzia duela uste baduzue... Tira, Mesalaren taldekoek Agriparen taldekoen tamaina berdineko burua egiteko aukera izango duzue. Hasi lanean.

Bi taldeak lanean hasiko dira.

Handik denbora pittin batera turutak joko du. Lehiaketetan bezala, turuta izango da eskulturak amaituta egon behar duen seinalea. Denak besoak goraka jarri eta oihalarekin estaliko du talde bakoitzak bere eskultura.

-V-

Aurreko egoeran bezala enperadoreak oihala kentzeko esango die.

ADRIANO: Gaur eskulturak ikusi eta festari hasera emateko gure egun handia da!!!

DENAK: Goraaaaa!!!

Turutak joko du

ADRIANO: Mesala jeneralaren eskultura...

Oraingoan Mesala jeneralaren eskultura askoz handiagoa erakutsiko dute.

Agripa taldekoak haserre jarriko dira. Protesta bizian.

ADRIANO: Lasai... lasaiiii... Goazen Agripa jeneral handiarena ikustera!

Enperadoreak Agriparena erakusteko esatean turutak joko du. Orduan Agriparen taldekoek eskultura pilo bat egin dituztela ikusiko dugu.

*Agriparen soldaduak poz pozik saltoka.
Mesalarenak oso haserre.
Denak elkarri irainka hasiko dira.*

Turutak joko du.

ADRIANO: Nahikoa da, gure artean borrokan hasi behar badugu... Akabo! Akabo eskulturak eta akabo festa!

DENAK: *(Protestan hasiko dira denak)* Eeeez... Ezzzzz!!!
Festa nahi dugu! Festa nahi dugu... FESTA NAHI DUGU! *(Manifestazio moduko bat egingo dute)*

Halako batean irrintzia bota duen soldadua, berriz ere irrintzia botatzen hasiko da, eta beste taldekoak ere irritziari elkartuko zaizkio.

Amaitzerakoan denak "Biba, gora eta irrintzika" oihu egiten hasiko dira festa giroan.

Orain arte eskulturak ziren kartoizko kaxak hartuko dituzte soldaduek, eta buru gainean jarriko dituzte Kiriki eta buru-handiak balira bezala.

ADRIANO: Soldaduak, baina... baina zertan zabiltzate?

MESALA: Nora eraman behar duzue nire bustoa?

ADRIANO: Puskatu egingo da!

MESALA: Gaur afaldu gabe...

AUGUSTO: Has dadila festa!!!!

Musika hasiko da, zuzenean jotzen hasiko dira soldadu batzuk edota denen artean erabakitako festa kantu bat abestuko dute.

Puxikak aterako dituzte.

Festa giroan, buru-handiak jendea xaxatzen hasiko dira, ikusle guztiak zirikatuz.

Amaia

Etorkizun distopiko batean, pertsonak lan egiteko gai ez direnean "egoitza" berezi batzuetan sartzen dituzte. Behin barruan, ez dira inoiz gehiago beraien familiekin eta gizartearekin kontaktuan jarriko. Antzezlanak, uda gau batean gertatzen da. Floridako egoiliarrek, bertatik ihes egitea erabakitzen dutenean.

FLORIDA

Amancay Gaztañaga

(ZESTOAN EGIN ZEN 2019KO UDAN)

II. Matxinada

Espazioa hutsik geratu da. Denbora pasa ondoren lehenengo familiarra sartzen ikusten dugu, Valentina da, urduri dator, kaiola txiki moduko bat du eskuetan, barrukoa begiratzen du. Espazioan dagoen aulki batean esertzen da. Bigarren familiarra sartzen da, Otis, ingelesaz mobiletik hizketan dator. Valentinari begiratu azkar bat botatzen dio, honek ez du begiratzen. Kolgatu eta beste aulki batean esertzen da. @dukkessa lasai dator, sartu eta tente geratzen da. Mobilarekin bere buruari argazki bat ateratzen dio.

OTIS (Oso urduri) Aizue, barkatu baina ba al dakizue zertarako deitu diguten. Ez nago denbora galtzeko.

VALENTINA Ez... nire aitonari buruzko zerbait baina ez didate esan zer.

Mertxe sartzen da une horretan. Kezkatuta.

OTIS Zu al zara zuzendaria?

MERTXE Ni, ez...

OTIS Fuck off... justu gaur izan behar honek ere.

@DUKKESSA Nik zu ezagutzen zaitut...

OTIS Bai, bai... neu naiz... itxaron nik zu ere ezagutzen zaitut. Zu ez al zara..

@DUKKESSA @dukkessa, instagramer, influencer...

OTIS Bai, jarraitzen zaitut! Beno eta zuk ni ere bai.

VALENTINA Barkatu momentu zorogarri hau apurtzeagatik baina norbaitek ba al daki zer gertatu den hemen. Hau normala al da?

MERTXE Nik dakidala behintzat ez. Zure familiarra Floridan utzi orduko, berez ez duzu zertan gehiago arduratu behar.

OTIS Nik bihar kontzertu garrantzitsu bat daukat Miamin... nere amak zer egin duen, edo ez duen, ez da batere relebantea nire bizitzan, egia esan. (*entsaiatzen hasten da*)

Momentu horretan Agurtzane agertzen da.

MERTXE Hauxe da zuzendaria.

OTIS Right now zer gartatzen den jakin nahi dut.

@DUKKESSA Oso pertsona okupatuak gara.

VALENTINA Zerbait gertatu zaio nire aitonari?

AGURTZANE Lehenik eta behin lasaitu egingo gara. Guztiok batera hitz egiten badugu, ez gara ongi komunikatuko. Ea, hemen bildu zaituztet, zera... oraintxe nator.

Familiar guztiak aho bete hartz geratzen dira.

OTIS What? Aizu, aizu! Ezin gaituzu hemen utzi besterik gabe.

VALENTINA Mesedez, ez egin ohiurik, nahiko estresatuta bagaude lehen ere.

MERTXE Nire bezeroei deituko diet hau luzatzen ari dela esateko. (*telefonoz deitzen du*)

@dukkessa instagrameko bideo bat egiten ari da. Otis telefonoz. Agurtzane sartzen da Begorekin batera.

AGURTZANE Lasai gaude ezta? Hitz egiten hasiko naiz. Gainera nire kide Begori ez zaio negatibitatea batera ondo etortzen.

MERTXE Esango diguzu behingoz zer gertatu den? Orain dela ordubete irten naiz hemendik.

OTIS Eta ni txiripaz harrapatu nauzue hemen, bihar Miamin egongo naiz bira mundialari hasiera ematen.

AGURTZANE Lasai, lasai.

Martintxo sartzen da.

MARTINTXO Agur, amaitu dut aulkien kontuarekin, bihar itzuli eta sukaldekoa errebisatuko dut.

AGURTZANE Ai Martintxo zatoz zatoz, zuri ere hau interesgarria egingo zaizu.

MARTINTXO Zer gertatu da?

BEGO (*bapatean*) Zer gertatu den? Zuen familiarrek erasotu egin nautela.

AGURTZANE Erasot hitza oso gogorra da.

MARTINTXO Nola erasotu?

VALENTINA Baina zer gertatu da?

@DUKKESSA Non dago nere ama?

MERTXE Eta nere osaba?

AGURTZANE Lasai, lasai, mesedez, guztiok batera ezin dugu hitz egin. Dana ondo dago.

BEGO Ez dago ondo...

AGURTZANE Orain ondo gaude.

BEGO Balerioren azken agunerako abestia prestatzen ari ginela, erasotu, lotu eta armairu batean utzi naute sartuta. Ni! Eta mila esker, mila esker guztioi nitaz arduratzeagatik. Terapia orduak kostatuko zaizkit.

AGURTZANE Terapia oso ona da...

OTIS (*moztuz*) Baina orain non daude guztiak!

@DUKKESSA Hori, non!

AGURTZANE Ez daude.

MARTINTXO Nola?

BEGO Ihes egin dute.

VALENTINA Nola da posible? Hau ez al da inguruko errezydentziarik onena?

BEGO Gau baterako joan direla esan didate.

- MERTXE** Eta nire osaba?
- AGURTZANE** Agian Balerio beraien erara agurtu nahi izan dute. Garrantzitsuena da, hau guk, gure erara konpondu behar dugula.
- MARTINTXO** Nola gure erara?
- AGURTZANE** Imaginatzen duzue prensa enteratuko balitz? Edo diputazioa?
- @DUKKESSA** Prentsa?
- AGURTZANE** Hau ez da inoiz gertatu...
- OTIS** Ez, honek ezin du hemendik irten.
- MERTXE** Eta zer egingo dugu?
- VALENTINO** Zuek ez dakit, ni nire aitonaren bila noa.
- BEGO** Kanpora?
- AGURTZANE** Jende librearen basora alde egingo zuten. Ez dago beste irteerarik.
- BEGO** Zuek segi, ni hemen geratuko naiz. Agian itzul daitezke.
- VALENTINA** Goazen!

Irten egiten dira.

Amancay Gaztañaga, Guayaquil 1980

2002an Madrilgo R.E.S.A.Den lizentziatu zen interpretazioa arloan. Aktore bezela lan ezberdinak egin ditu telebista eta antzerkian.

Kamikaz Kolektiboaren sortzailetako bat da, antzezlan ezberdinak idatzi eta zuzendu ditu. Gaur egun **Atzerrian Lurra Garratz** antzezlana zuzentzen ari da ArteDramarentzat.

www.kamikazkolektiboa.com



TXIBIRIBIRI

Toribio Altzaga
1861-1941

Donostiko Teatro Zaharrean estraineko aldiz aurkeztatua, 1918ko otsailaren 11ean

PERTSONAIAK

Xixili
Xatur
Eteban jauna
Andres jauna
Jaxinto
Jenaro

I

Gela apain bat. Ezker-eskuinetan ateak. Esteban eta Andres, eserita, hizketan.

ESTEBAN Gure illoba Xixili, gurasoak hil eta umezurtz gelditu zenean, guregana ekarri genuen.

ANDRES Gaixoa! Ondo neska polita da.

ESTEBAN Polita, azkarra, ona eta langilea. Baina ez zion inork arpegira begiratzen. Dirurik ez du, eta: «txanponik ez bada, gaur eguneko gizasementzat emakumerik ez dago».

ANDRES Egia.

Esteban Eta hara non, nere emaztearen anaia Alberto, hil ondoren, gure iloba Xixilirentzat diru mordotxoa utzi zuela jakin genuen... Herri guztian zabaldu zen Xixiliren aberastasuna.

ANDRES Hala gertatzen da.

- ESTEBAN** Ta berehala hasi ziren Xixiliren atzetik. Era guztitakoak baziren: itxurazkuak, itxura txarrekuak, apainak, arloreak, gazteak...
- ANDRES** Ikustekoak egongo ziren!
- ESTEBAN** Eta ikusi duzun mutillik txoroena, *Txibiribiri* deitzen diot nik. Beti dantzan dabillega diruri!
- ANDRES** Eta neskatxak hura nahi...
- ESTEBAN** Txoraturik dago bere horrekin. Ez dakit nik, Xixili dan azkarrarekin, nola *xalta-periko* horretaz zaletu den.
- ANDRES** Izan ere.
- ESTEBAN** Ikusiko bazenitu bien arteko txorakeriak... Osabak utzitako diru horiekin ametsetan, eta halako batean, zapla! Zure eskutitza jaso genuen, adieraziz, osabaren diruaz jabetzeko Xixilik bere lehengusu Jenarorekin ezkondu beharko zuela.
- ANDRES** Bai, Alberto jaunaren azken nahia oso argia da. Bere diru guztiak, bere iloba Jenaro eta Xixilirentzat izango dira, biak elkarrekin ezkontzen badira. Bietako batek nahi ez badu, ukatzen ez duenarentzat izango da guztia.
- ESTEBAN** Nola nahi duzu Xixilik Txibiribiri uztea?
- ANDRES** Ez dauka bada beste biderik. Gaur arratsaldeko lauetan, Jenaro ta Xixilik, biek, aitortu behar dute nire aurrean, osabaren agindua betetzeko prest dauden ala ez. Jenarok ordurako etorriko da.
- ESTEBAN** Noski... Arratsalde arte bada.
- ANDRES** Bai...



XIXILI, gero ESTEBAN. Azkenean JAXINTO

- XIXILI** (*Eskuineko atetik sartuko da*) Gizon horrek gure zorion guztia pikutara bidali digu: Jaxinto edo osabaren dirua! Ai... a zer korapiloa! Nik ezin dut... ezin dut. Korapilo honek itoko nau!

ESTEBAN (Azaltzen da atzeko atetik) Abokatua etorri da.

XIXILI Badakit.

ESTEBAN Lauetan bi lehengusuak esan behar diozue bete nahi duzuen ala ez osabaren agindua.

XIXILI Nola ezkonduko naiz Jenarorekin, behin ere ikusi ez badut...

ESTEBAN Abokaturengana joan baino lehen, zu ikustera etorriko da.

XIXILI Itxura ederrekoa izango da!

ESTEBAN Ez da noski izango Txibiribiri bezain kilimakatzailea...

XIXILI Txibiribiri, ez... Jaxinto!

(Jaxinto oso alai eta dantzatuz azaltzen da)

JAXINTO A! Esteban jauna; sartu eta zeinekin... eta zeinekin...

ESTEBAN (Jaxintoren dantzak ikusirik, bera ere dantzari eta abestuz) "Eta norekin ... Petra zikinaren alabarekin".

JAXINTO E?

ESTEBAN Hor gelditzen zarete. (Atzetik joaten da)

III

XIXILI eta JAXINTO

JAXINTO (Barrez) Zure osaba alaitsu dago.

XIXILI Ni baino alaiago. Jenarorekin ezkondu arazi nahi naute.

- JAXINTO** Ez! Hori ez! Zu, nirea izango zara!
- XIXILI** Orduan ez dago dirurik.
- JAXINTO** Bai. Badakit nola
- XIXILI** Nola?
- JAXINTO** Jenarok uko egingo du; eta orduan diruak izango dira zuretzat... eta niretzat... biontzat, eta... (*Abestuz eta ohin baten gainean jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...
- XIXILI** Ez tontakeriarik esan.
- JAXINTO** Begira; zuk esango diozu lehengusuari: Jaxintotaz txoratua nago, e? Jaxintori emana diot bihotza, e? Eta, nola Jenarok ez duen nahiko bihotz gabeko emazterik, utziko zaitu, diruak izango dira guretzat, eta... (*Abestuz eta jira emanaz*) txibiribiri... biri.. biri...
- XIXILI** Zertarako esaten dituzu horrelako lerdokeriak?
- JAXINTO** Orduan, beste zerbait... asmatuko dut... itxoin... zu zara, munduko neskatxarrik ederrena, politena...
- XIXILI** Mila bider esan didazu.
- JAXINTO** Bada, horren polita izan arren, jarriko zaitugu emakumerik itxusiena bezela; eta Jenarok zu ikustean ikaratu eta... (*Abestuz eta jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...
- XIXILI** Baina... nola?
- JAXINTO** Badakit: korkoxa!
- XIXILI** E?
- JAXINTO** Bai, jarriko dizugu bizkarrean korkoxa, eta Jenarok ikustean alde egingo du, eta... (*Abestuz eta jira emanaz*) txibiribiri... biri... biri...
- XIXILI** Ez da ideia txarra.
- JAXINTO** Korkoxa egiteko motxilaren bila noa. (*Atzetik lasterka aterako da*)

IV

XIXILI eta ESTEBAN JAUNA. Gero JAXINTO. Azkenean XATUR

ESTEBAN Nora doa hori muturrak hausten?

XIXILI Ideia bat bururatu zaio.

ESTEBAN Horri? Horren buruan ez da jaiotzen ilea besterik-eta.

XIXILI Bere motxilarekin txantxetako korkoxa jarriko dit, eta Jenarok ez du noski korkoxdun emakume batekin ezkondu nahiko.

ESTEBAN Ez dago gaizki asmatua...! Nork esan Txibiribirik...

XIXILI Txibiribiri, ez; Jaxinto!

ESTEBAN Ondo da. Hemendik aurrera deituko diogu: (*ohiuka*) Jaxinto!

JAXINTO (*Motxilarekin sartuz*) Hemen naiz. Hara... (*motxila erakutsiz*)

XIXILI Ederki!

ESTEBAN Ederki asmatua!

JAXINTO Orain trapu zahar batzuk sartu eta...

XIXILI Xatur!

JAXINTO Xatur!

(Xatur agertzen da)

XIXILI Xatur! Trapu zaharrak behar ditut...

XATUR Bai, andrea.

JAXINTO Jantzi zaharrak, zera...

XATUR Bai, jauna.

XIXILI Izebaren gona zahar batzuk edo...

XATUR Bai, andrea.

XIXILI Ez, ez, goazen biok (*Xixilik Xatur eskutik heldu eta aterako dira*)

V

ESTEBAN eta JAXINTO. Gero XIXILI. Azkenean XATUR

ESTEBAN Xixiliren osaba Alberto hori beti izan da berezia, eta azkenean...

JAXINTO Azkeneko hau da txarrena.

ESTEBAN Zuretzat, bai.

JAXINTO Baita Xixilirentzat ere.

ESTEBAN Bai, biontzat.

JAXINTO Baina, orain korkoxarekin...

XIXILI (*Atzetik korkoxarekin agertuz*) Hara! Ondo al nago?

ESTEBAN Benetazkoa dirudi.

JAXINTO (*Xixiliri*) Jenaro etortzean, jarriko zara zu ispilura begira...

ESTEBAN Bai, ikusi ez bazenu bezela.

JAXINTO Eta Jenarok ikustean alde egingo du, ta... (*Abestuz eta jira emanez*) txibiribiri... biri... biri...

XATUR (*Atetik*) Jenaro, jaun gaztea iritsi da.

XIXILI Jenaro?

ESTEBAN Datorrela. (*Xatur badoa*)

JAXINTO Banoa ni (*Jaxinto ezkutatu nahiean hasiko da bueltaka*)

ESTEBAN (*Jaxinto txamarratik helduaz*) Hortik ez, gizona.

XIXILI Sartu zaite gela horretan.

VI

XIXILI, ESTEBAN eta JENARO

(Xixili apaintzen bezala ispilu aurrean dago. Esteban ondoan eta Jenaro agertuko da. Gazte oso apaina da. Bizkarrean korkoxa du, baina berokiak ezkututzen dio.)

JENARO Esteban jauna...

Esteban (*Eskua luzatuaz*) Zer mouz, iloba?

JENARO Ondo, txit ondo, eta berorri?

ESTEBAN Ondo. Xixilik ez zaitu ikusi, hara non dagoen. (**Publikoari:** Gizaseme itxurakoa da gero...)

(Jenarok berokia kendu, eta Estebanek korkoxa ikusten dio)

ESTEBAN (**Publikoari:** E! Korkoxa! Honek ere bai! Hau bai dela benetakoa!)

(Xixilik bira eman eta lehengusuaren korkoxa ikustean karraxi egiten du)

- XIXILI** (**Publikoari:** Ai! Korkoxa! Nola ezkonduko naiz korkoxdun gizon batekin!)
- ESTEBAN** Xixili, hona zure lehengusu Jenaro.
- JENARO** (*Xixiliri esku emanaz*) Zer moduz?
- XIXILI** Ondo, eta zu?
- JENARO** Txit ondo. Baneukan zu ezagutzeko gogoia.
- XIXILI** Ikusten duzun bezela, hemen bakoitzak baditugu gure gauzak. (*Korkoxa seinalatuz*)
- JENARO** Bai
- JENARO** Jakingo duzu noski nire etorrera zergatik den...
- ESTEBAN** Jakinaren gainean dago. (**Publikoari:** Hauxe da korkox jatorra!)
- XIXILI** Ez zenuen usteko nik horrelakorik izango nuenik.
- JENARO** Egia da.
- XIXILI** Ta orain, ikusi eta gero... osabaren agindua betetzea zaila eta astuna egingo zaizu, ezta?
- JENARO** Ez: osabaren aginduak beti izango dira niretzat atseginak.
- ESTEBAN** (*Korkoxa erakutsiz*) Denak?
- JENARO** Denak, bai.
- XIXILI** Bai, baina, nire bizkarra... badakizu...
- JENARO** Bai, nire bizkarra bezela.
- XIXILI** (**Publikoari:** Bere horretatik ez da aterako. Hau zorigaitza!)
- JENARO** (*Estebani*) Eta izeba?

ESTEBAN Gaixo daukagu. Baina hobeto dago.

JENARO Agur bat egin nahi nioke.

ESTEBAN Goazen bada.

JENARO Gero arte, Xixili; eta badakizu nire azken-hitza, osabaren agindua beteko dut.

(Jenaro eta Esteban atzeko atetik joango dira)

VII

XIXILI ta JAXINTO

XIXILI Hau zorigaitza!

JAXINTO *(Ezkerretik poliki-poliki atereaz)* Zer, alde egin al du?

XIXILI Ez horixe! Osabaren agindua ez duela bete gabe utziko! Hori esan dit.

JAXINTO Baina... korkoxa ikusita...

XIXILI Zer korkox! Berak nirea baino handiagoa du-eta, gainera benetazkoa.

JAXINTO Galduak gara!

XIXILI Guk gure bideari jarraitu behar diogu. Gelditu dadila Jenaro bere korkox eta bere osabaren diruarekin. Ez dugu ezer behar.

JAXINTO Bai...

XIXILI Maitasuna nahikoa dugu.

JAXINTO Baina dirua ere behar dugu.

- XIXILI** Zertarako? Maitasuna edukita.
- JAXINTO** Dirurik gabe ordea, ez dago ezer.
- XIXILI** Maitasuna izan ezker...
- JAXINTO** Dirua behar da lehendabizi, dirua bigarren, dirua beti...
- XIXILI** E? Baina zu: nire bila ala diruaren bila zatoz?
- JAXINTO** Dirua lehenbizi...
- XIXILI** Alde nire begien aurretik!
- JAXINTO** Maitasuna ere bai.
- XIXILI** Etzaitut ikusi nahi! Alde! A!... *(Korkoxa askatuz)*
- JAXINTO** Baina, Xixili, ez nizun hori esan nahi... alegia...
- XIXILI** *(Korkoxa Jaxintori boteaz)* Tori alegia. Ospa!
- JAXINTO** *(Korkoxa hartu eta badoa)* Banoa; lasaiago zaudenean etorriko naiz.

VIII

XIXILI eta JENARO. Gero ESTEBAN. Azkenean JAXINTO

- XIXILI** Ez etorri! Jaxinto... zurekikoa amaitu da. Diruagatik zebilen nirekin. Diruagatik! Orain ez daukat beste aukerarik. Jenarorekin ezkondu beharko dut... Korkoxa du baina ondo gizaseme itxurakoa ta atsegina da.
- JENARO** *(Jenaro sartzen da atzetik eta Xixili korkoxik gabe ikusten du)* Xixili, oso aldatua aurkitzen zaitut.

- XIXILI** Bai. Osabaren agindua betetzeko prest nago.
- JENARO** Poz handia ematen didazu.
- XIXILI** Gizon batek maite ninduela uste nuen, baina nire diruaren atzetik zebilen, eta aidean bidali dut.
- JENARO** Ederki egin duzu.
- XIXILI** Harengatik gezurrezko korkoxa jarri nuen... Barkatu Jenaro...
- JENARO** Nik ere beste aitorten bat egin behar dizut. Zu ikusi bezain laister, zutaz txoraturik gelditu naiz. Ez diot begiratu zure korkoxari, baizik zure begien ezintasunari.
- XIXILI** Eskerrik asko.
- JENARO** Ez nekien hori gertatuko zenik, eta... zure asmo bera izan nuen. Begira... (*Korkoxa atera, eta boteaz*)
- XIXILI** Gezurrezko korkoxa!
- JENARO** Zurea bezalakoa.
- XIXILI** Zorionez betetzen nauzu.
- ESTEBAN** (*Atzetik sartuaz*) Ikusten dudanez ondo moldatzen zarete. (*Jenaroren bizkarrean korkoxa bilatu nahiean*)
- XIXILI** Bai, osaba.
- JENARO** Oso adixkide egin gera.
- ESTEBAN** Gezurrezkoa al zen honena ere?
- JENARO** Bai.
- XIXILI** Nirea bezela.
- ESTEBAN** A ze pare!

XIXILI Osaba Albertok nahi bezala elkarrekin ezkonduko gara.

JENARO Ederki esana.

ESTEBAN Bai, baina... eta Txibiribiri?

XIXILI Nire diruaren atzetik zebilen.

ESTEBAN Bagenekien.

XIXILI Aidean bidali dut eta ez utzi etxean sartzen.

JAXINTO (*Atzean agertuz*) Beste bat asmatu dut...

ESTEBAN Ez daukagu ezer asmatu beharrik, etorri zaren bidetik alde!

JAXINTO Baina...

ESTEBAN Ospa hemendik.

JAXINTO Eta zer egin behar dut nik orain?

ESTEBAN Zer egin behar duzun?

Esteban eta Xixili (Abestuz eta ohin baten gainean jira emanez) Txibiribiri... biri... biri...

Amaia

Beste antzerki testu batzuk:

Antzerki Testuen webgunea, Mikel Martinezek sortua



Joxe Miel Barandiaranen antzerkiak



Karmele Igartua Bengoa



Alaitz Olaizola



Goizeder Iturain



Denboraren makina, Erein

Autobusaren zain, Erein

Non biziko gara?, Erein

Aizpea Goenaga

Antzerki zaletasuna etxetik jaso dut. Umetandik antzerkia egin dugu etxean, udalekuetan eta baita ikastolan ere. 8 urte nituen lehenengo aldiz jendaurrean antzeztu nuenean. 13 urterekin ikastolan antzerki talde bat sortu genuen. Eta harrez gero, beti ibili naiz antzerkia edo antzekoren bat egiten.

Magisteritza ikasi banuen ere, ez naiz inoiz "andereño" izan, ikasle baizik. Beti.

Madriren, Donostiako Antzerti Eskolan eta NY-en ikasi nuen interpretazioa, gidoigintza... Euskal-Herriko antzoki guztietan barrena ibili naiz antzezten, baita hemendik kanpo ere. Nire antzerki testuengatik sariak jaso ditut. Filmak errodatu ditut. Antzerki ikasketen master bat egin dut... Antzerkian, telebistan eta zineman aktore, gidoilari, antzerkigile eta zuzendari izan naiz... Zorionekoa ni! Tira -ez dut ukatuko- batzuetan asper-asper egin naiz, edota amorratu, nazkatu eta baita lotsatu ere. Baina askoz askoz gehiagotan zoriontsu izan naiz, bai horixe! Mundua ulertzeko begirada zabalagoa eman dit, eta jende asko ezagutu, lagun oso onak egin, asko ikasi, emozioz betetako uneak bizi, barre egin eta antzerkian bakarrik bizi daitekeen "zirrara hori" bizi izan dut.

Antzerkia egitean jartzen dudan bihotza jarri dut gida honetan. Liburu honek aspalditik nuen behar eta gogo bati erantzuten dio: antzerkia sortzearen, partekatzearen eta jolastearen beharrari. Baina batez ere amets bati... Gora Teloia! esan, eta zuek denok, antzerkia egitea! Mundua leku solidarioagoa, aberatsagoa eta askoz ere alaiagoa izango da. Seguru!

Gora Teloia!... esan, eta magia, sorpresa, maitasuna, indarra, gogo, bizipoza emozioak, ametsak... sentitu eta biziko dituzue. Eta zuei esker baita guk ere.

Gida hau oinarri bat da, zuek lanean hasteko tresna bat. Baina benetako tresna zuen sormena da, mundu aske batera sartzen lagunduko dizuena. Testu hau erabili, antzerkia egin, jolastu, ondo pasa eta... bejon deizuela! GORA TELOIA!!!

www.aizpeagoenaga.com

© AIZPEA GOENAGA

IKERTZE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbidetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



Kultura
eskola

